

A man in a white dress shirt and dark tie is seen from the side, looking out a window. His hands are resting on the white window frame. The background shows a bright, sunlit outdoor scene with trees and foliage. The overall mood is contemplative and professional.

TXAKUR INGELESAK

LUTXO EGIA

LUTXO EGIA

Txakur ingelesak

SS narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2011 Lutxo Egia

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2011ko apirila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Unai Dorronsorori

Txakur ingelesak

Fostertarren lorategira sartu da Maider. Nahiko lukete Evelyn eta Jonathan senar-emazte edadetuek *ryegrassa* euren txalet zurian. 2004an ailegatu ziren Lanzarotera, Mikel eta biak heldu ziren urte bertsuan.

Maider harritu egin da Tim eta Pat -Jonathanen txakurrak- harrizko lauza nabarrez osaturiko kaktustegian ez ikustean. Burdin hesia zabaldu orduko, saltoka eta zupaka hasten zaizkio beti. Oso animalia zalea ez bada ere, maitagarri deritze auzoko txakurrei.

Abante egin du kristalezko ate nagusiraino. Txirrina jo aurretixe, Tim eta Pat zaunkaka bertaratu dira. Atzeko hanken gainean zutik jartzeko ahaleginetan dihardute. Berriro txirrinari sakatu dio Maiderek. Atzo arratsaldean bere burua eskaini zuen Evelyn uharteko aireportura eramateko. Nottinghamera joan behar du aste biz, alaba ikusten.

Beste behin saiatu da. Azkenekoz.

Itsas-Begi txaletera itzuli da artega. Mikel bizarra egiten hastekoa da bigarren pisuko komunean. Sano gela argitsua da. Behatokia desiozuela azaldu zion Mikelek arkitektoari. Distiranta. Artelan txipi bat. Mainerrek, aldiz, zer edo zer funtzionalago gurago zuen.

- Ez dute erantzuten Fostertarrenean.

- Irten egingo ziren honezkero -esan du Mikelek ezaxola.

- Txirrina jo dudanean, txakurrak ziztu bizian bildu dira ate nagusira.

Olgetan ari da Mikel, dantzan beharbada. Atzamar luze-hezurtsuez ferekatzen du bizar sarrria. Laster ez da arrastorik geldituko.

- Taxi bat hartu izan balute, entzungo genukeen -esan du Mainerrek-. Eta, gainera, Evelynek deituko zidakeen abisatzeko.

- Eta zergatik egin behar luke hori?

- Normalena delako. Areago Evelyn izanda.

- Batek daki, orduan.

Irriño ohartezina egin du Mikelek. Umorean itzarri da gaur. Bost egun barru Erromara bidaiatu behar du neurologia kongresu batean

parte hartzeko. Mainerrek maiz laguntzen badio ere, bakarrik joango da oraingoan.

Mikeli begira geratu da Maider. Komunera sartu denetik ispiluaren bidez so egin dio. Mikelek, aldiz, ez dio bere begi marroiez aurpegiko aparrari behatzeari utzi.

- Zerbait gertatzen da.

- Zergatik gertatu behar du zerbait? Zergatik gertatu behar du beti zerbait?

- Zer esan gura duzu?

- Zure eldarnioekin hasi behar al duzu?

- Ez aipatu berba hori, badakizu gorroto dudana.

- Zer esango dut, ba? Etengabeko paranoia batean bizi zara. Saiatu zara, behintzat, telefonoz hots egiten?

Mainerrek marapiloa du eztarrian, boaren es-tutua. Bihotzak ez du behar moduan punpatzen. Ez dio SOS Txakurra elkarteko boluntarioari erreparatu Fostertarren etxera ailegatu denean. Polizia-autoek eta anbulantziek batzuek besteen atzean aparkatu behar izan dute kale estuan.

Boluntarioak Timi eta Pati lepotik heldu dienean, ordea, harri eta zur geratu da. Uhalez lotu ditu, muturreko bana ipini. Lasterka joan da harengana. Berrogeita hamar urte inguruko gizona da. Egin gabe dauka bizarra (minutu batzuk lehena-goko Mikelen mugimendu soraioak ekarri dizkio gogora). Ezohiko usain bat dario, garratza, animaliek ekarria beharbada.

- Fostertarren alboko bizilaguna naiz -esan dio Mainerrek-. Nora daramatzazu txakurrak?

- Arrecifeko udal-txakurtegira.

- Zer gertatuko da eurekin?

- Ez dakit. Nik animaliak jaso baino ez dut egiten.

Orduantxe kontatu dio SOS Txakurreko boluntarioa dela. Espainiako elkarte. Koska bat gorago obratzen dutenen banitate txipi hori.

Maider ez dago horretan interesaturik. Harira jo du:

- Eta nork daki zer gertatuko zaien?

- Txakurtegiko albaitariarekin hitz egin beharko duzu.

- Baina ez dituzte sakrifikatuko, ezta?

- Ez, hori segurua da. Nolanahi ere, bada beste kontu bat...

- Zein kontu?

- Poliziak agindu du ezer ez egiteko txakurrekin. Ikerketaren parte bihurtu dira.

Polizia-agentek Evelyne eta Jonathanen etxera sartu direnean, kanpoan gelditu da Mainer. Geroago bakarrik utzi diote sartzen, lekuko moduan. Haietako batek, gainera, agiraka egin dio auzokideen kristalezko atea apurtzearen.

Gogoratzera egin du Mainerrek.

Evelynek ez zion telefonoa hartu.

- Mikel, benetan, hemen zerbait gertatzen ari da.

Mikelek ezker-eskuin mugitu zuen burua, begiak ispilutik aldendu gabe. Toalla beltz batez ezabatu zituen apar arrasto zuriak.

Mainer Fostertarren etxera itzuli zen. Berrirajo zuen atea, hatz erakuslea txirrinetik jaso gabe. Berehala agertu ziren Tim eta Pat zaunka zoroan, zarata kirrinkariak eroarazirik.

Luzetsita, lorategiko harri zapal handi bat hartu eta ateko kristala apurtzen hasi zen Mainer. Txakurrek atzera egin zuten metro bat.

- Hori da Pat! Hori da Tim! Kendu paretik!

Hautsitako kristal zati handienak kendu zituen lehen-lehenik. Besoa luzatu gero. Zerrapoko giltzari buelta osoa eman. Maratilarri eragin. Atea zabaldu bezain laster kalera irten ziren Tim eta Pat. Ohi bezala, gainera igo zitzaizkion jauzi urduriez, minutu batzuk lehenago kristalaren kontra burutu zituzten mugimenduak errepikatuz gorputzaren inguruan. Segidan txiza egiteko toki bana bilatu zuten eta, osteratxo bat eginda-koan, etxe barrura bueltatu ziren zaunkan.

Orain Maider Fostertarrean bigarrenez sartu aurretik, polizia asko ibili da barruan. Anbulantzia bitako medikuak eta erizainak ere barneratu dira bera baino lehen. Olga Brito eta Ikko Betancourt ezagutu ditu, Mikelen lankideak dira ospitalean.

- Hil egin dituzte -komentatu dio Olgak, Maiderrek lehendabizi eta Mikelek geroago gorpu odoleztatuak ikusi ez balituzte bezala-. Lapurreta izan da.

Maiderrak Mikelen laguntzarik gabe sartu behar izan du bigarrenez Fostertarren etxean, poliziak heldu direnean ospitalera joan baita se-

narra. Mainerrek senperrenak egin ditu berriro negarrari ez emateko. Hasieran, auzokideen hilotzak ikusi dituenean, itolarria sortu zaio. Baina ez zaio malkorik etorri. Tim eta Pat eraman dituztenean, orduan hasi da negar batean.

Agente batek han eta hemen bistadizo bat botatzeko eskatu dio Mainerri.

- Lasai, presarik gabe. Esadazu zerbaiten falta sumatzen baduzu, zer edo zer arraroa iruditzen bazaizu. Lekuz aldaturik dagoen objekturen bat edo...

Etxe oso ordenatua zeukaten Fostertarrek. Dena betiko lez iruditu zaio Mainerri. Apaingarri asko hormetan, mahaietan, apalategietan, komodetan, liburutegietan. Baina dena ageriko ordena batean. Koadroak. Portzelanak. Argazkiak zilarrezko markoetan. Eta batez ere Jonathanen trofeoak beira-arasetan.

- Argazki bat falta da -bota du brastakoan, asaldaturik -. Jonathan Winston Churchillekin zegoeneko hura.

- Burutik egin al zaizu?

Oihu egin orduko, Mikelek hatz adierazle biez bortizki zigilatu dizkio ezpainak.

- Ahapeka, Mainer, dedio! Polizia Fostertarre-
nean dago oraindino.

- Baina erotu egin zara?

- Apal berba egiteko, kaguenlarrusia!

Ahots-tonua beheratu du Mainerrek:

- Nola bururatu zaizu Jonathanen argazkia hartzea? Ez al zara konturatzen horrek hilkete-
tan inplikatu ahal zaituela?

- Ez ezazula tontakeriarik esan, mesedez!
Batzuetan ergel hutsa ematen duzu.

- Ezin dut sinetsi! Eurenera sartu, hilotzak ikusi eta hori bakarrik bururatzen zaizu: argazkia lapurtzea!

- Eta nork deitu dio Poliziari?

- Joder, Mikel! Lapurtu egin duzu argazkia!

Mikelek ahoan jarri dio berriro eskua, tapoi gisa.

- Hartu egin dut, bai, eta zer? Jonathani ez dio jada balio.

- Argazkia ez da gurea.

- Ann alaba zen Jonathanen senide bakarra. Eta ezinikusia zioten elkarri. Alabari baino lehenago emango zidan niri.

Sofa tapizatuan etzan da Maider. Etxera bueltatu denetik puzzle osaezin baten legez ibili ditu goizeko irudi lausoak. Ez da gose. Mikel, ordea, tripa zorriak etorri da ospitaletik. Sukaldean labana batez ebaki txikiak egin dizkie patata handi biri. Plater batean jarri eta olioztatu egin ditu. Mikrouhin labean bost minutuz egosi ondoren, ketchup tomate ugarirekin irentsi ditu.

- Saiatu ez pentsatzen -aholkatu dio senarrak telebistako albisteei begira-. Ezin dezakezu ezer egin.

Argazkia berak egin balu bezala ikusten ditu Maiderrek Churchill eta Jonathan elkarren ondoran. Zer dagoen ondo eta zer ez dagoen ondo.

- Behintzat, zaharrak ziren.

Salto batean agondu da Maider:

- Zaharrak? Hori al da bururatzen zaizun guttia?

- Zaharrak ziren. Ez gaizki interpretatu propio nire berbak. Zaharrak ziren, beste barik.

- Beste barik, ez. Zer gertatuko da orain?

- Orain? Kontxo, Maider, ez dizut ulertzen. Ann etorriko da eta denaz kargutu beharko du. Gurasoez. Etxeaz. Saldu egingo du seguru aski.

- Ez naiz horretaz ari.

- Zer arraioi buruz ari zara orduan?

- Txakurrez. Zer gertatuko da Timekin eta Patekin? SOS Txakurreko boluntarioak esan dit aditu-frogarako erabiliko dituztela.

- Ederra kontua! Txakur-aditu bat -Mikelen irri sarkastikoak durundi egin du egongelan-. Akabatu egingo dituzte. Hori egiten dute honelako kasuetan.

- Eta zergatik akabatu behar lituzkete?

- Ez dakit ba... Beharbada ez dituzte garbituko. Beharbada Ann kargutuko da horretaz ere.

- Annek ez du ezer jakin gura izango, aurretiaz diotsut. Hau tamala, Tim eta Pat maitagarriak dira.

- Pat eta Tim txakur puta bi baino ez dira.

Maiderrek bekainak jaso ditu Mikelek puta mespretxuz trenkatzean.

Pixka bat lehenago, Mikel patatak prestatzen ari zenean, hilketaren zioaz jardun du Maiderrek: une labur batez Olga Britorekin mintzatu dela.

Mikelek barre egin du: Olgak sexu-aferra daukela kardiologiako zuzendariarekin. Mainerrek ez du iritzirik eman nahi izan: Olgak lapurreta aitatu diola. Baina Mainerrek ez du indarrik izan agentei horri buruz galdetzeko. Ezta minutu batzuk geroago, txaletera berriro sartu denean, lapurretaren aukeraz hausnartzeko ere. Mikel egongelara sartu denean, patatei egin behar izan dizkien ebakiak etorri zaizkio burura. Ebaketa txikiak, polizien galderak bezain. Mordoa egin diote. Bart Mikel eta biak Puerto del Carmenera joan ziren afaltzen ospitaleko lankide batzuekin. Maiz biltzen dira italiar jatetxe berean. Handik itzuli baino lehen burutu zuten hilketa ezinbestean.

Bat-batean Television Canariak isilarazi egin du txakurren gaineko Mikelen eta Mainerren eztabaida. Evelyn eta Jonathan Foster senar-emazte ingelesak hil dituzte bart. Evelyni tiro bi desarratu dizkiote, bularrean eta buruan; Jonathani bakarra, buruan. Polizia zergatia ikertzen ari da. Joan den astean Cala Blancan jazotako hiru lapurretekin zerikusia ote duen.

- Bulgariarrak baietz! -erronka egin du Mikelek.

Hamar eta erdietan telebistari begira afaltzen hasi da Mikel. Kontsulta pribatuan eman du arratsalde osoa. Irtendakoan bere abokatuarengana joan da, ezorduko bilera batera. Bada urtebete beste auzokide batek auzitara eramán zuela txaleteko atzealdeko harrizko hesiaren luzeragatik. Abokatuarenetik irten eta gero Famarara gidatu du hondartzan korrika egitearren.

- Txerriki xerrak harri zapalak lez daude.

- Gure auzokideak bart hil dira asasinaturik eta zu txerrikoa harria lez dagoela. Ederra, gero.

- Leher eginda nago, Maider, ez eman kaparradarik auzokoekin!

Maiderrek lo-kuluxka egin du arratsaldean. Interneten sartu da gero. Albistea lehen edizio digitaletan ageri da. *La Voz de Lanzarote*-ko eta *Diario de Lanzarote*-ko web gunetan bigarren albistea izan da, PIL alderdiko zinegotzi batzuen ustelkeria-kasuari dagokionaren ostean. Espainiako agerkarietan ere ageri da. Agentziako albiste baten arabera, Jonathan Foster cricket izarra izan zen Ingalaterran joan den mendeko

50etan. *Thunder* esaten zioten. Pilota bateaz jozten zuen aldiro dardarka jartzen zuen Obaltoa, Surrey Cricket taldearen zelaia. Trumoi leherketak bortitzei esker, Surreyko Lehoiek dena irabazi zuten hamarkada hartan. 1990ean, Malagan bizi zelarik, Marbella Cricket taldea fundatzen lagundu zuten. Deus berririk ez.

Iluntzeko zortzietan, ostera, azken orduko batek zimiko egin dio bihotzean. Egunkariak gertaeren bertsio berria jaso dute: badirudi zaharretako batek bestea hil eta, ondoren, bere buruaz beste egin duela.

Aurretik, bostak aldera, SOS Txakurreko boluntarioak bere ustea adierazi du Facebooken: Asasinatu egin dituztela esan dit polizia nazional batek. Ustekoa zioa: lapurreta. Serbiarrak edo kroaziarrak. Manchester Terrier arrazakoak dira txakurrak. Doberman txikiak dirudite eta horrek nahastu egiten du jendea. Ez dira oldarkorrak. Elkartean nabilenetik sekula ez dut halako txakurrik batu. Inork ez du halako terrierrik abandonatzen. Gaurkoek asko balio dezakete.

Maiderekin bere burua madarikatu du Facebooken ez izateagatik. Beldurra dio izen emateari.

Agerkari digitaletako laburpenekin konformatu behar izan du. Haien arabera, boluntarioak etxe barruan ezarri die lazoa txakurrei. Bistadizo bat ere bota du. Begiratzearekin batera aise konturatu da zer edo zer ezohikoaz. Txakurrek jateko pila zeukaten. Mordoa utzi diete. Goporrak eta platerak lepo. Lehen begi-kolpean ez ditu janaren ugaritasuna eta gertatutakoa uztartu. Furgonetan, Arrecifera bidean, behin eta berriz galde-tu dio bere buruari. Azkenean argi ikusi du: hilketen teoriak ez du ez bururik ez hankarik. Eta suizidio bikoitzarenak ere ez. Ezkutuko asmo bat zegoen janariaren aferan.

Boluntarioaren tesia sutautsa lez hedatu da Interneten. Zaharretako batek jan mordoa utzi die txakurrei bere buruaz beste egin baino lehen; ez daki, baina, bestea hil aurretik edo hil ostean bete ote dituen goporrak. Edozelan ere, txakurrak maiteago zituela bizikidea baino.

Maiderek ez du bertsio ofizialik aurkitu komunikabideen web guneetan. Irlako foro nagusian sartu da. Hamaika erabiltzaile hasi diren iritziak zabaltzen. *Yaizak* barre egin dio Poliziari: honezkero damaturik egon behar dute

SOS Txakurrari deitu izanaz. Lehenago jakin izatera, txaletaren atzealdean bertan egingo zieten tiro bana txakurrei. *Tinajoren* aburuz, txakurrek eurek kalitu dituzte ingelesak haginkadaka.

Maiderek ordenadorea amatatu du zeharo higuindurik.

Biharamunean Maider abaila bizian abiatu da Arrecifera. Etxetik irten baino lehen gizon batek deitu dio telefonoz. Atzoko polizia dela argitu du. Maiderek ahalegin txiki bat egin du haren aurpegia irudikatzeko. Atzo polizia asko ikusi zituen. Burua lehertzear zeukan. Ibuprofeno pastilla bat hartu behar izan zuen.

- Zure senarrarekin eta biokin hitz egin nahi dugu Jonathan eta Evelyn Fosterri buruz.

Maiderek zalantza egin du.

- Oraintxe bertan?

- Ez. Beste momentu batean izan daiteke. Bata bestearekin zer moduz moldatzen ziren jakin nahi dugu. Zer nolako harremana zuten elkarren artean. Baita zuek eurekin zer harreman zenuten ere.

- Guk?

- Ez du luze hartuko. Badirudi haietako batek hil duela bestea.

- Hori irakurri nuen Interneten atzo iluntzean. Maider berehala damutu da.

- Kasua argi zegoen hasieratik -jarraitu du poliziak damuari igarri balio bezala-. Atea bortxatu gabe zegoen...

Maiderren ez tul txikiak lipar batez eten du poliziaren hizketa.

- ...ustez dena bere tokian... argazki bat izan ezik, dena txukun eta nahastu gabe, gorpuak, balen traiektoriak... Autopsiak argituko du erabat, noski.

Poliziak ez du hiltzaileaz ezer esan. Maider ere ez da galdetzera ausartu. Eskegi ondoren hura Evelyn ez izatea desiratu du. Une bateko kontua izan da, berehala kontrako desira piztu baitzaio. Bart berdin gertatu zitzaion. Mikeli ez zion deus aipatu. Senarrak garbi samar utzi zion telebista lasai ikusi baino ez zuela nahi. Maiderrek, ordea, buelta ugari eman zion jazotakoari. Une batzuetan Evelyn hiltzaile gisa ikusten zuen, eta bere buruari xuxurlatzen zion Jonathanek

segur aski merezi zuela. Beste batzuetan ez zuen dudarik egiten gizonak asasinatu zuela. Eta gogoeta haiekin batera, nor gurago zuen hiltzaille gisa. Nazka ematen zion halakoak bururatzek, baina ezin saihestu.

Arrecifera iristean Timek eta Patek ordeztu dituzte jabeak Mainerren pentsamenduetan. Haiekin jokatzeko erak Jonathan bihurtzen du susmagarri. Hobendun kasik. Hura zen, azken batean, benetako jabea.

Maiderek orube batean utzi du 4x4a. Biziki harritu du txakurtegiaren eraikinak. Behinola udal tailerrak hartzen zituen. Luze gabe behera botako dute egoera kaxkarragatik.

- Arrecife erdian dagoen orube eraikigarri bati buruz ari gara -zehaztu dio albaitari atseginak.

Faina du izena. Txabusina zuri bat daroa soinean. Ahots sano amultsua duela iruditu zaio Mainerri. Azken bi egunetan entzun duen lehena.

Barrura bidean hatsak zaplaztekoa eman dio. Desinfektantea, hezetasuna eta txakur-usaina.

- Beti ez da kirats garratz hori izaten -lasaitu du Fainak irribarre batez-. Bustitako txakur bat atera berri dugu. Gainean txiza usaina zuen.

Fainak ez du Maider konbentzitu. Txakur, hezetasun eta desinfektante usainak izan behar du beti han.

Albaitaria bere lanaz solasean hasi zaio Mainerri. Ekartzen dizkioten animaliei izenak jartzen dizkie. Macherren abandonaturiko txakurrari, Cher deituko dio; San Bartolomeko katuari, Lome.

Tim eta Pat ondo daude. Atzo karioletara sartu zituztenean, galanta sortu zen. Ohikoa ez besteko giroa sumatu zuen Fainak. Bazirudien beste txakurrek bazekitela gertatutakoa eta iritsi berriei harrera berezia egin nahi zietela.

- Pentsatuko duzu tontakeria hutsa dela.
- Ez... benetan. Ikus ditzaket?
- Bai, itxaron bertan apur batean.
- Ez gara barrura sartuko?
- Ezin da. Txakurrak urduritu egiten dira pertsona bat sartzen den bakoitzean. Atera ezazu kontu, une honetan hamabost txakur dauzkagu. Maider harritura geratu da.

- Eta orduan zelan aukeratu du jendeak adoptatu gura duen txakurra? - SOS Txakurra web gunean txakurtegi honetako eta beste batzuetako argazkiak eta datuak daude. Jendeak gehien gustatzen zaiona aukeratu eta guri deitzen digu. Ondoren harrera-leku honetan ikusten du berriro. Baiezkoan, adopzio-tramiteak egiteari ekiten diogu. Ezezkoan, kaiolara osterera ere.

Atera bezain laster, Tim eta Pat urduri antzean hasi dira Mainer usaintzen. Lapa bat lez itsatsita, pozezko salto txikiak eman dituzte ber-netatik gora. Fainak barrura eraman dituenean, Mainerrek zaunka-hots tristeak aditu uste izan ditu.

- Ezagutzen zaituzte, hori segurua da -onartu dio Fainak bueltatu denean-. Eraman nahi zenituzke?

- Noiz? Orain?

- Ez, ez. Poliziak baimena ematen duenean.

- Ez dut uste. Ezingo nituzke hartu.

Faina, aldi berean, ospitale bateko zuzendari, familia-sendagile, hainbat espezialitatetan medi-

ku, zirujau, erizain eta psikologoa da; adoptatu nahi duten pertsonen psikologoa batez ere. Animalia bat hiru orduz operatzen duenean, zirujau batek edozein gizon-emakumeri hil edo biziko operazio batean eskainitako ardura beraz jokatzen du. Gaixotasun terminalak, infekziozkoak edo zauri sendaezinak dauzkaten animaliak bakarrik hiltzearen aldekoa da. Txinako edo Ukrainako ume batez ariko balitz bezala iruditu zaio Mainerri.

- Fainak esan dit neuk hartu behar nituzkeela Fostertarren txakurrak.

- Nor da Faina?

Sukaldeko mahaian eseri dira bazkaltzen eguerdia jota. Irlako argi itsugarriak distira egiten du azulejo zurietan. Mainerrek eskua ukitu dio Mikeli. Berehalako keinu batez urrunarazi du senarrak, erre izan balio bezala.

- Arrecifeko udal-txakurtegiko al baitaria da. Tim eta Pat ikusi ditut. Ez dizut esan joango nintzela?

- Ez, ez didazu ezer esan. Baina orain diostazu al baitari ganorabako batek gura duela guk

hartzea Fostertarren txakurrak? Kopla ederra. Zergatik ez diozu gomendatu bera kargutzeko?

Maiderek senarra usnatu du. Ospitaletik ekarri ohi duen izerdi usain berezia dario. Ez da oraindik ohitu.

- Fainaren iradokizun bat baino ez da izan.

- Tenteldu egin zara? Gure auzokideek elkar hil dute eta zuk euren txakurrak gura dituzu.

Maiderek begiak itxi ditu une batez. Erraza-goa da argazki batekin geratzea. Ez dio galdetu non gorde duen.

- Niri neuri ez zait hain anormala iruditzen.

- Hori ere ez da harritzekoa. Galdetu gure lagun guztiei. Ikusiko duzu zer dioten.

- Fainak uste du nik...

- Espabila zaitetz, Maider! Faina gora Faina behera zabilta berbetan hasi garenetik. Zer da al baitari puta hori? Pertsonok baino animaliak gurago dituen kolgado horietako bat?

Min eman dio Mikelen komentarioak. Lantokian ere, medikuak ez beste guztiak mespretxatzen ditu senarrak. Ipurdi-garbitzaileak batez ere (halaxe esaten die).

- Aditzen lankideen trufak? Txakur hiltzailak! Buelta zaitez jende normalaren mundura behingoz. Ez zara konturatzen Fostertarrek abandonatu egin dituztela txakurrak?

Maiderek hausnar egin du. Fainak antzeko zer edo zer aipatu dio ordu bi lehenago. Egunkarietan, ordea, ez da abandonu hitza agertu. SOS Txakurreko boluntarioaren haritik egin dute tira. Hiltzaileak askoz maiteago zituen txakur gaixoak bere bizikidea baino. Horregatik utzi zien jana bere buruaz beste egin aurretik. Jonathan Foster cricket jokalaria mitikoa da erruduna prentsaren arabera. Poliziak ez du bestelako argibiderik oraindik eman.

- Abandonaturik izatearen esperientzia opa diet animaliak abandonatzen dituzten sasikumei -ohar egin dio Fainak txakurtegian.

Arratsaldean *La voz de Lanzarote*-ra eta *Diario de Lanzarote*-ra itzuli da Maider. Herenegun, gauerdia baino apur bat lehenago, Jonathan Fosterrek, Surreyko Lehoien jokalaria historikoak, emaztea asasinatu eta segidan bere buruari tiro

egin zion pistola batez. Beste web gune batzuetan ere ageri da. Genero indarkeriako beste kasu bat, azpimarratu dute egunkari guztiek. Aurten go hamazazpigarrena, zehaztu batzuek.

Mikelen sakelakora deitu du.

- Zer duzu?

Umore txarreko begitandu zaio Mainerri.

- Poliziak jakinarazi du Jonathanek hil zuela

Evelyn.

- Eta horretarako deitzen didazu?

- Pentsatu dut jakin gura izango zenuela.

- Gauean esatea bazeneukan. Itota nabil,

Maider, heldu ezinik. Zuk, ordea...

Mikelek esaldia amaitu gabe eskegi dio. Sarri aurpegiratzen dio munduko denbora guztia duela nahi duena egiteko.

Maider terrazara igo da. Eguzkiaren ostentzeari begira gelditu da Coca-Cola *light* bat edaten ari delarik. Astia du, zer duda egin. Evelyn ekarri du akordura askotan ikusten zuen talaia-tik. Egia esan, oso bakanetan batzen zitzaion. Ez zuten hain harreman estua. Gehienetan herri ondoko harrizko bidezidorretan promenatzen ziren. Jonathanekin are gutxiagotan izaten zen. Hura

bakarrik ibiltzen zen beti, Tim eta Pat aldean zeroatzala. Eguneko edozein ordutan ikusi ahal zuen eurekin etxe osteko muinoan. Lorategian garbitzen zituen eguraldi ona egiten zuenean. Gizon lasaia zen. Behin, ordea, zoro baten moduan jarri zen beste auzokide baten autoak kasik Tim harrapatu zuelako. Bere onetik atera zen. Mainerrek gomutan du eszena. Bidetik zetorren auto azpira joan zen Tim, artez. Jonathanek auzokidea jo nahi izan zuen.

Gero ahaleginak egin ditu gogoratzeko noiz ikusi zuen Evelyn txakurrekin. Beharbada ez zitzaizkion gustatzen.

Arrautza bakarreko tortilla eta jogurt bat afaldu ditu sukaldeko mahaian, Mikel bueltatu baino lehen. Kilker-hotsek bakarrik urratzen dute kanpoan iluntzea. Eskorbuto bilatu du Spotifyn. Badago. Urteak dira ez duela Eskorbuto entzuten. *Cuidado* kanta entzuteko gogoia sortu zaio bat-batean.

Mikel etxera sartu denean, abestia kentzeko agindu dio zakar.

- Lehen gustatzen zitzaizun.

- Gaueko hamarrak dira, errementata nator.

Uste duzu Eskorbuto entzun gura dudala?

Senarra egongelara joan eta telebista piztu du. Ondoren afaria eraman du erretilu batean. Mainerrek cabrilla bat prantatu du labean, panadera erako patata eta tipulekin.

- Ez da barregarria? -Mikel kanalez kanal ari da aldagailuaz.

- Barregarria, zer?

- Gure auzokide zoroak arrazoi bat zeukan emaztea hiltzeko.

- Zergatik diozu hori?

- Hil egin duelako. Bazeukan edo uste zuen bazeukala.

- Ez da, baina, gauza bera. Zelan izan zaitezke hain friboloa? Ikaragarria da gertatutakoa.

- Niri ere ikaragarria iruditzen zait. Bizitza normalera bueltatzeko gogoia besterik ez dut.

Mikelek haginka egin dio arrainari, txakur go-seti batek egingo lukeen moduan. Tipula uztaiak alboratu ditu.

- Zuk behin baino gehiagotan berba egin zenuen Jonathanekin -esan dio Mainerrek-. Inoiz aipatu zuen zer edo zer emazteari buruz?

Arratsaldean, terrazan zela, Ann etorri zaio burura Mainerri. Evelynek kontatua zekien aitak eta alabak elkarri gorroto ziotela.

- Behin aipatu zidan hiltzeari buruzko zerbait.

- Joder, Mikel, saiatzen ari naiz ulertzen zer ez dugun ikusten jakin.

- Eta neu telebista lasai ikusten. Hori baka-rik gura dut. Egun puta osoa zoratu beharrean eman dut.

Maider ahalegindu da atzera ere:

- Harreman normala zirudien. Zimeldua baina normala. Nik tratu apur bat nuen Evelynekin eta ez nintzen ezertaz konturatu. Eta zu...

- Eta ni, zer?

- Jonathanekin berba egiten zenuen eta hala ere...

Mikelek uzteko eskatu dio. Ez du eztabaidatzeko gogorik. Telebista ikusi eta ohera nahi du.

Mainerren aburuz, arratsaldez terrazan emandako denboraren ondorioa da guztia. Zelan jakin gabe, pareak ezarri ditu. Batetik, Evelyn

eta biak. Evelynek Londresi buruz hitz egiten zion eta Mainerrek Bilbori buruz. Bestetik, Jonathan eta Mikel, futbol kontuez.

Eta txakurrak. Tim eta Pat. Lehen Jonathane-kin. Eta orain txakurtegian, jabe berriaren espe-roan.

- Aukerarik badaukat, Tim eta Pat adoptatu gura ditut.

Mikelek ezentzuna egin dio. Beharbada ez du deus entzun. Zirkinik ere ez du egin.

- Ez duzu ezer esan behar?

Mikel geldiro bihurtu da emaztearengana. Begietara noiz begiratu dion azkenekoz gogoratzera egin du Mainerrek. Fostertarrak hil baino lehenago, ebatzi du.

- Gura dut.

- Popatik!

- Ez dizut txakurrez arduratzeko eskatzen.

Neu kargutuko naiz.

- Deputamadre! Txakurren Calcutako Teresa bilakatu zara goizetik gauera! Ze tentela zaren, neska! Batek daki al baitari horrek zer kontatu dizun.

- Fainak ez du zerikusirik.

- Faina! Joder, aspaldiko laguna balitz bezala ahoskatzen duzu izena. Hark deitu dizu, ezta?

- Ez. Bai. Tira, nik deitu dut arratsaldean jakiteko txakurrak zelan zebiltzan.

- Eta bide batez burmuin bigundua xurgatu dizu.

- Neure erabakia da.

- Txakur horiei begiratzen diezun bakoitzean Fostertarrak etorriko zaizkizu burura -barre-algara egin du.

Maiderekin, bataren begi urrikariak eta bestearen begi suminduak imajinatu ditu.

- Txakurrek ez daukate ezelango errurik. Gainera zuk beti gura izan dituzu txakurrak. Hobe seme-alabak baino, defenditu izan duzu.

- Eta zuk ez duzu inoiz txakurrik gura izan. Zer aldatu da orain auzokideenak irrikatzeko?

- Ez dakit. Bakarrik dakit hemen inon baino hobeto egongo direna.

- Hori ere esan dizu albaitari horrek? Txakurrraren salara!

Mikelek atzera ere barre egin du ateraldiarekin.

- Zuk hil egingo zenituzke, ezta?

- Ez esan lelokeriarik!

- Bai, zu Tim eta Pat akabatzearen aldekoa zinateke.

- Ez hasi eldarnioekin!

- Ez aipa halakorik, gero!

- Ba, orduan ez esan lelokeriarik!

Isilune bat egin da. Mikelek telebistarantz mugitu du lepoa, erantzun guztiak handik baletozkio bezala.

- Tira, birritan pentsatuz gero...

- Zer?

- Ondo legoke. Dinbi! Danba!

Hatz erakusleaz eta lodiaz pistola bat itxuratuz, tiroka hasi da.

- Dinbi, Pat! Danba, Tim!

Hurrengo goizean, Evelynen hilketaren gaitzeste-ko asmoz Cabildo aurrean antolatutako bilkurara joan da Maider. Lehenago, telefonoz deitu zion agentea eta beste bat azaldu zaizkio etxera. Foster senar-emazteekin zeukaten harremanaz solasean aritu dira. Polizietako batek adierazi dio gaur helduko dela haien alaba.

Eguerdiari sartu da txakurtegiari. Harrera-lekuko usaina ez zaio aurreko egunean bezain garratza iruditu. Atera orduko Mainerren gainera salto egin dute Timek eta Patek, pozarren. Fainak barrura itzularazi dituenean, begiak malkotan zituztela otu zaio. Txakurren tristezi bihotzerdiragarri hori. Mainerrek bere kabutan ibili du oraindik gogoratzen ote diren Jonathan eta Evelyn Fosterrekin.

- Ezagutu zaituzte -esan dio Fainak-. Dagoeneko badakite zer esan nahi duen karioletatik ateratzeak. Baita zu bueltatzeak ere.

Lagun mordoa interesatzen ari dira Timez eta Patez. SOS Txakurrak ehunka korreo elektronikoko jaso ditu. Europako eta Amerikako hainbat herrietatik ere idatzi dute. Gehienek jakin nahi dute zein den txakurren egoera edo, beste barik, elkartasun mezuak bidaltzen dituzte. Asko dira adoptatzeko gertu daudenak.

- Zenbat dira asko?

- Ez dakit. Berrehun. Agian hirurehun.

- Halakorik!

- Normala da honelako kasuetan. Benetan uste zenuen inor ez zela txakurrokin arduratuko?

Akordatzen zara polizia batek pitbull bati tiro egin zionekoaz?

- Ez.

- Belarri ondotik sartu zitzaion bala. Hil edo bizi operatu zuten sei orduz. Ehunka lagunek eman zuten dirua operaziorako, ohikoa izaten da. Oso ondo geratu ez bazen ere, txakurrak bitza salbatu zuen. Istorioak oihartzun handia hartu zuen komunikabideetan. Polizia arrazoirik gabe beldurtu zen pitbullarekin eta tiro egin zion. Elkartasun olatu handia sortu zen txakuraren inguruan. Beti gertatzen da. Gogoratzen zara bere artzain-txakur alemaniarra jipoitzen zuen galego hartaz?

- Hartaz bai.

- Berdin. Halakoetan txakurra nori laga izaten da arazoa. Enkantean salduko luke batek baino gehiagok.

- Nik, zoritxarrez, ezin ditut txakurrak eraman.

- Lasai. Ulertzen dut.

Fainak sakelako zenbakia eman dio badaezpada ere.

Joan aurretik, Mainerrek azkenekoz begiratu die Timi eta Pati. Txakurtegia bisitatu zuen lehen egunean Fainak azaldu zion, frogaturik dagoela txakurren begietan bizitza osoak betikotzen direla. Kronologia zehatzeko fitxa egiazkoak. Dena.

Kontrabiografoa

Martxoaren 22an ailegatu nintzen Bartzelonara hegaldi gorabeheratsu baten ostean. Euskal Etxean hitz egin behar nuen. Aireratu baino lehen, duda egin nuen Manuel Delgado antropologoarekin harremanetan jarri-ez-jarri. Urtebete lehenago ezagutua nuen, Abisal espazioan antolatutako tailer batean. Harako hartan, inork gogaitua izan gabe bizitzeko nahi irmoa agertu zigun Delgadok.

Hari bakea eman eta Itziar Zigari eskaini nion arreta. Ordura arte ihes egin zidan Bartzelona bat zegoen *Devenir Perra* liburuan. Beharbada garaia duk, esan nion neure buruari, hiria beste era batera bizitzeko.

Azkenean, Belaustegiri hots egitera deliberratu nintzen. Adiskide donostiarrak hamabost bat urte zeramatzan Bartzelonan. Itzultzaile ziharduena eta idazle arrakastatsua zen, gurtzen zuen publiko txiki batentzat behinik behin. Belaustegik funanbulistaren sokatik ibiltzeko gaitasun naturala zeukan. Errusiar erruleta guztietara

emana zen. Nik, aldiz, amildegi ertzeko jarreraren lekuko ezinbestekoa izateaz konformatu behar nuen.

Berbaldira sei lagun etorri ziren. Amaitu eta gero afaltzera joan ginen. Belaustegik ez zuen harremanik Euskal Etxeko jendearekin. Moncadako jatetxera sartu orduko, nire baitan galdetu nuen hark ezinegona sortu ahal zien antolatzaileei. Azken batean, bildutako guztiek ondo baino hobeto zekiten nor zen Belaustegi.

- Badira hamasei urte etorri nintzela hiri honetara eta, sinets egidazue, gaur arte ez naiz Euskal Etxean sartu.

Euskal Etxekoek elkarri begiratu zioten. Hala ere, berehala sentitu ziren gustura. Jendea erakartzeko abilezia handia zuen Belaustegik.

- Beldurrari buruz idazten ari da-komentatu nuen.

Belaustegik aurka egin zion detaileak emateari. Itxura hutsa.

- Beldur-eragile profesional baten bizitza kontatzen duen liburu bateko lehen fasean nago.

Gaiak politika-mundura egin zuen, Belaustegiren gogoaren kontra. Politikari ezagun askoren

berba su-emaileak ekarri genituen hizpidera. Publizitate-mundura jausi ginen gero. Han ere adibide mordoa aurkitu genuen. Belaustegiri, aldiz, Tim Burtonenak bezalako ipuinak zebilzkion buruan.

- Marrazkiak indar handiagoa hartzen ari dira orain, hitzak eurak baino. Film bat ere egin liteke ditudan ideiekin. Beste aukera bat eman nahi diot beldur-eragileari.

Izua era literario batean bentzutzeko ideia gailendu zen afarian. Belaustegiren distirak arratsalde umiliagarri bat salbatzea lortu zuen.

Afaldu ostean La Bata de Boatiné-ra abiatu ginen Belaustegi eta biok. Taberna Itziar Zigaren liburuan agertzen zen. Robadors kalean, Ravalen bihotzean. Belaustegik ez zuen ezagutzen.

- Hiri honek halakoak dauzka, zorionez -esan nion-. Bertan hamaika urte eman arren, beti gauza asko falta zaizkizu ikusteko.

Bartzelona txipien arakatzaille gisa irudikatzen nuen neure burua. Joaten nintzen bakoitzean ezin itzurizko zentralitate moduko bat sumatzen nuen.

Ravalen zebilen jende urriaren laguntzaz, kalea eta taberna topatu genituen gauerdian. In-
guruko beste kale batzuetan ez bezala, aktibita-
te handia zegoen. Berbetan zebiltzan magrebiar
itxurako gazte batzuek erakutsi ziguten taberna-
zuloko atea. Txirrina jo behar izan genuen sartu
ahal izateko. Leku kutrea iruditu zitzaion Belaustegiri.

- Nora ekarri nauzu? Eixamplera joatea bage-
nuen.

Nire begietara Robadors kaleko luzatze natu-
rala agertu zen. Taberna estua bezain luzea zen.
Neure burua zoriondu nuen aukeragatik. Zigaren
hirian nintzen.

Beefeater gin-tonic bana eskatu genuen. Izua
garaitzeko moduez hitz egiten lotu ginen ohartu
barik, gaia ere beste luzatze natural bat balitz
bezala.

- Egia esan, ez nago liburu baten lehen fa-
sean.

Bere liburuen lehen fasean, aztertu beharre-
ko gaiari buruzko ideiak eta gogoetak biltzen zi-
tuen Belaustegik.

- Ez?

- Ez. Esatearren esan dut afarian.

- Zertan zabilta ba?

- Idaztea eta argitaratzea baino gehiago, idazteko posibilitatea interesatzen zait gaur egun. Idazteko posibilitatea literarioagoa da idaztea bera baino.

Gure aldamenenean berrogeita hamar urte inguruko gizon bat eta emakume bat zeuden. Isilik, sartu berrioi begira, hitz egiteko posibilitatean murgildurik baleude bezala, baina hitz egiteari uko militantean setaturik. Begira ere begira egon gabe zeuden. Pixka bat baztertuago, beste bikote bat zegoen: neska izugarri argal bat, larruzko jaka beltza soinean eta arrakada asko aurpegian; eta harekin itxura androgenoko mutil bat, alkandora zabal arraiaduna praken gainetik.

- Krisien bilatzaile bihurtu naiz -argitu zidan azkenean Belaustegik.

- Ez dizut ulertzen.

- Itzultzaile lana utzi dut krisietan sakontzeko.

- Langabezian zaudela esan nahi duzu.

- Teknikoki, bai. Akordio batera heldu nintzen enpresarekin. Lehen neurria handik arineketan

irtetea izan zen. Krisietan barneratzeko adinako indar eta osasun eman zidan.

- Baina zer krisi?

- Huraxe izan zen hasierako arazoa. Ez nekien zein krisitara bildu behar nuen krisi-bilatzaileraren bizi-proiektuari ekiteko. Lehenik eta behin, krisi ekonomikoa etorri zitzaidan burura. Teknikoki lanik gabe nengoen eta adierazle guztiek hura seinalatzen zuten, badakizu, dena hurrupatzen duen diru-zurrunbiloa. Krisi ekonomikoari beldurra. Nire hausnarketan minutu erdi ere eskaini ez nion izu-aukera. Krisi arrunta da erabat, xarmarik gabea, gorabeheren pentzuan beti. Edozelan ere begi aurrean nuen krisien uni-bertsoa: balio-krisia, pentsamendu-krisia, kultura-krisia, politika-krisia, justizia-krisia, erlijio-krisia...

- Hiri-ereduen krisia...

- Baita hori ere, noski.

Hurrengo egunean, Camp Noura laguntzera behartu nuen Belaustegi. Aurka egin zidan. Ez zuen inondik inora etorri nahi. Krisi sakon batean lokaztuta zegoen kirol bateko buru ikusgarria zen Bartzelona futbol taldea. Eta Camp Nou

bera, zirikatu nuenez, krisia jokatzeko zen eszenatokia. Azkenean, Belaustegik futbol-krisia errespetatzea onartu zuen, beste edozein krisi bezalaxe, batere erakarrita sentitu ez arren.

Osasunaren kontrako partida zen, asteazkenean. Belaustegi eta biok nazionalitate askotako hamaika zale *culez* inguraturik geunden. Gure atzean eskandinaviar itxurako hamar bat gazte genituen, Erasmus programako ikasleak nonbait. Bartzelonako zale katalanek *villarato*, *villarato* oihukatzen zuten bitartean, klubak partida aurretik banatutako publizitate orriak astintzen zituzten gazteek. Ikaragarri disfrutatzen ari ziren. Partida, berriz, trabatua bezain gogorra. Guardiolak eskaini ohi zuen ikuskizun distiratsuaren arrastorik ez, bederen. Ni Belaustegi animatzen saiatu nintzen. Harmailak krisiz beterik zeuden.

- Milaka atzerritarrok ez dakite jatorrizko zalearen portaerak interpretatzen. Zelan aldatzen ari den futbola!

Ordurako banuen Belaustegiren krisiaren berri. Hilabeteak zeramatzan kreatibitate-krisian miaka. Literaturatik heltzen ari zitzaion. Bere lan-tresna, hain juxtu, sortzeko posibilitatea zen.

- Beldurra garaitzeko posibilitatea literaturan zehaztu zuen.

Beldurra lurperatzeko posibilitatea, nik neure kolkorako.

Aurreko gauean, La Bata de Boatiné-n, gaiaz beste egin ondoren -agian batak bestera eraman zuen-, iraganak lurperatzera dedikatzen zen pertsona baten berri eman zidan Belaustegik. Hirugarren eta azken gin-tonicaren ondoren etorri zen. Alkohol-karga aitorten latzak mahairatzeko legezko zama ez izanagatik, deliberoa hartu zuen Belaustegik:

- laz pertsona bat ezagutu nuen. Gizona edo emakumea den esatea tokiz kanpo dago. Iraganak ezabatzen da.

Detektibe pribatu bat ekarri nuen burura. Krimenaren profesional bat.

- Antibioografoa esaten diot. Biografia kantzerigenoak erauzten ditu. Kirolarien odol lohia mudatzeaz arduratzen den mediku horiek bezalako da. Desagertu nahi duten pertsonen arrastok ezabatzen laguntzen die.

Biharamunean bestondoko itzelaz esnatu nintzen. Ezin nuen Belaustegik kontatutakoa bu-

rutik uxatu. Lehen orduan Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroaren artxibora joan nintzen. Hogei pdf baino gehiago bidali nituen nire helbide elektronikora beste horrenbeste korreoren bidez. Artxiboko datuak kopiatzeak sortzen zidan emozioaren antzekoa sentitu behar zuen antibiografoak bere bezeroen datuak ezabatzen zituen bakoitzean. Aurpegirik gabeko pertsona hark diskrezio osoz desagerrarazten zituen biografiak. Haraino iristen zen bere lana. Bezeroari inoiz ez zion laguntzen nortasun berria eraikitzen.

Ezker-eskuin begiratu nuen Camp Nouko tribunan. Fenomeno bera gertatzen ari ote zen futbol-zelai hartan? Katalanak ez besteko zale igarokorrek gero eta gehiago ziren etxekoen kaltean.

Partida bukatutakoan, La Bata de Boatiné-ra bueltatzea proposatu nion Belaustegiri. Biharamunean alde egin behar nuen azken batean, eta ez nekien noiz elkar ikusiko genuen berriro. Printzipioz, ekainean itzultzeko asmoa nuen. Urtero joan ohi nintzen sasoi hartan. Astebete ematen nuen Manuel Delgadoren -egun batean molesta-

tu behar nuen- hiria zabaltzen, karamelu bati papera kentzen zaion moduan. Oraingoz nahikoa nuen Itziar Zigarenarekin. Krisi-bilatzaile aparta iruditu zitzaidan hura ere.

- Nik neuk erosiko nizuke *Devenir perra*, hemen non saltzen duten jakinez gero.

Belaustegik zakurraren ipurdira bidali ninduen.

- Bi egunetan jasan dugu elkar, nahikoa da. Boz larriz ebaki zituen hitzak. Lipar batez, Manuel Delgadoren beraren aurrean nengoela begitandu zitzaidan.

Metroko beste linea batean galtzen ikusi nuen adiskidea. Nik neuk, lotara baino lehen, La Bata de Boatiné-ra bueltatzea erabaki nuen. Tabernazuloan ez zen ezer gertatu. Jendearen begi gorrituek nireak tenkatzen zituztela sentitu nuen, lepo-bueltan Bartzelonaren bufanda gorri-urdina zeroan giri bat banintz bezala.

Apirilaren erdialdean Poloniako hegazkin-istri-pu tamalgarria gertatu zen. Caceresen nenbilen. Autoko irratiaren bidez heldu zitzaidan albistea.

Bide-bazterrera gidatu nuen autoa, isilean hausnar egitera, negar-malkorik isuri gabe. Aurreko urtean Poloniara joana nintzen oporrak pasatzen. Harrezkero lotura estua sumatzen nuen herriarekin.

Ez nengoen ahaztuta Belaustegirekin. Zelan edo halan antibiografoaren peskizan jarria ninduen. Bartzelona-Osasuna nekagarrian hari buruzko datu gehiago jasotzen ahalegindu nintzen.

- Zer dela-eta mututasun hori? Ezagutzen dudan norbait da? Pertsona publikoa da? Ez dizut ulertzen. Esan gizona edo emakumea den, behinik behin.

- Berdin da hori.

Hala ere, ezusteko detaile bat argitu zidan. Non bizi zen.

- Baina ez da hemen bizi?

- Lehen bai. Orain Bilbon bizi da.

Bilbora itzulitakoan, hurbiltasun fisikoak antibiografoaz gehiago arduratzera eramanez ninduen. Bestetik, Bilbo hautu logikoa iruditu zitzaidan. Azken batean, geroz eta gehiago zeukan Bartzelonatik eta geroz eta gutxiago Bilbotik. Gure hiriko auzo txinatarra -han bizi ei zen anti-

biografoa- Bartzelonako auzo txinatar bilakatzeko borrokatzen ari zen eta, bide batez, desagertzeko, lehenago inoiz existitu ez balitz bezala, hots, egunetik egunera ezerezago eta auzo txinatar gutxiago izateko.

Hausnar egin nuen. Kontrabiografoak -ordurako horrela esaten nion- nahiago zuen ospa egin bere hiritik bidalia izatea baino, Ravaleko putei gertatzen zitzaien moduan. Heldua zen jazarpenari amaiera emateko ordua. Hala ere, ez nuen konprenitzen jazarpenean oinarritutako beste proiektu urbano batean sartu izana.

Belaustegik kontatutakoaren arabera, kontrabiografoak idazle batzuk desagerrarazi zituen. Partidan izen bi ikasi nituen buruz: Mia Balaguer eta Juan Puig. Lehen aldia zen aditzen nituena. Kataluniako letren idazleak izan zitezkeen. La Bata de Boatiné-ra iritsi orduko esku-zapi batean apuntatu nituen izenak. Bilbon nintzela, Googlen eta udal-liburutegien sarean begiratu nuen. Googlen, hainbat sarrerak beltzez nabarmentzen zuten Juan Puig. Blog batean zeliakoentzako janariaz idazten zuen gizon bat zen. Hura ez zen, bistan zegoen, bila nenbilen pertso-

na. Mia Balaguerri buruz, aldiz, ez nuen aztarrenik ere topatu. Argitaletxe batzuetako katalogoetan ere begiratu nuen, emaitza positiborik gabe. Izen-deitura haiek inoiz idazle gisa existitu baziren, jada ez zegoen arrastorik. Milaka idazle anonimo etorri zitzaizkidan burura. Agian Mia Balaguer eta Juan Puig haietakoak ziren, beste barik. Edo, hain zuzen ere, kategoria horretakoak izateagatik, kontrabiografoak erraz asko ezabatu zituen euren garrantzirik gabeko biografiak.

Wikipediako ezabaketa-politikari zegokion orria bisitatu nuen. Artikulu bat ezabatzeak, kasu, azken bertsioa eta aurreko guztiak desagerraraztea zekarren erabiltzaileen begietatik, baina datu-basean jarraitzen zuen. Edozein momentutan, kontraorden batez, jarri ahal zuten berriro. Irakurtzen segitu nuen: *Liburuzainek bakarrik ezaba dezakete*. Nortzuk ote ziren liburuzainak? Sakatu egin nuen hiperloturaren gainean. Liburuzainak Wikipediaren kudeatzaileak ziren. Zalantza egin nuen. Parean *burokratak* izeneko beste hiperlotura bat neukan.

Kontrabiografoak, derrigorrez, beste modu batean jokatu behar zuen Interneten. Orritik irte-

teko zorian nengoela, zerbaitek deitu zidan arre-
ta: *Orrien zuritzea*. Datuak ezabatzeko praktika
bandalikoak zen. Kontrabiografoak orriak zuritu
behar zituen.

La Bata de Boatiné-n emandako bigarren
gauean bertan kontsideratu nuen kontrabiogra-
foaren bezero bilakatzeko posibilitatea. Mozkor-
tzeko bidean nenbilen. Nire literatura goitik be-
hera aldatu nahi nuen aspalditik. Gaiak, istorio
motak eta estiloa bestelakotzea ez zitzaidan
zaila iruditzen. Kanean inor ase ez zuten liburu bi
neuzkan. Irakurleak behar nituen ezer baino
lehen. Baina ezinezkoa zen irakurleak erakar-
tzea iraganaren zamarekin. Beharbada pertsona
hark, kontrabiografoak, lagundu ahal zidan. Ez
zen zentzugabea.

- Desagertzea oso gutxitan da erabatekoa
-azaldu zidan Belaustegik Camp Noun-, baina
bazterreko bihur gaitzake. Harri eta zur gelditu-
ko zinateke jakitean zenbat lagun desagerrarazi
dituen antibiografoak. Mia Balaguer. Juan Puig...

Bigarren izenetik aurrera ez nuen besterik
buruz ikasterik lortu. Pere zetorkidan gogora.
Baina Pere sano izen arrunta zen Bartzelonan. La

Bata de Boatiné-n lehenengo biei buruzko zalantzak ere sortu zitzaizkidan. Zalantzok Interneteko bilaketaren ostean areagotu zitzaizkidan.

Belaustegik argi zekusan:

- Literaturan gaizki hasitako jendea. Beste arte batzuek eskatzen ez duten ahalegina exijitzen du literaturak. Zure lehen obrak ez baditu irakurleak eta kritikariak seduzitu, ordenadore aurrean denbora galtzen duzun zontzia zara.

Literaturako zontzia ote nintzen? Lurperatua izan ostean, irakurleen bizitzetara behin eta berriro bueltatzen saiatzen zen idazlea?

Apirilaren 10ean, betiko aienatzearen aldeko hautua egin nuen. Atzera ere Bartzelonak jokatu zuen gau hartan, Madrilen kontra Santiago Bernabeun. Bi eta huts irabazi zuen, Osasunaren aurkako partidari bezalaxe. Egun berean gertatu zen Polonian *Tupolev*-ek izandako istripua. Kitzikatu egiten ninduen Poloniako desagertze-ereduak. Desagertze ez traumatikoa zen. Urtero gogoratuko zituzten joandakoak. Hainbat hamarkadatan behinik behin.

Gauerdian, apartamentuko egongelan Bee-feater gin-tonic bat prestatu ondoren, Belaustegiri telefonoz hots egitea otu zitzaidan. Biharamunean deitu nion, ordea. Hariaren bestaldean, ahots batek azaldu zidan bezeroak baja emana zuela. Atzera ere deitu eta ahotsak mezu bera errepikatu zidan. Popatik hartzera bidali nuen boza. Aje apur bat banuen. Ordenagailua piztu eta korreo elektronikoa bat bidali nion. Automatikoki, helbide okerraren berri ematen zuen erantzuna jaso nuen. Ostera ere bidali nion eta osterara ere ezezko bera jaso nuen.

Neure burua madarikatu nuen. Belaustegirekin harremanetan jarri ezean, ezingo nintzen kontrabiografoaren bezeroa izan. Arratsalde osoa eman nuen nire oroipenak ordenatzen. Beharbada zer edo zer pasako zitzaidan oharkabean La Bata de Boatiné bigarrenez bisitatu ostean. Kontrabiografoa enpatia aditua izan zitekeen. Hots, bere burua berriro asmatuagatik, dena kanpotik ikusteko gaitasuna zeukan pertsona aritua. Mia Balaguer eta Juan Puig ekarri nituen ondotik gogora. Haietakoren bat idazle arrakastatsua izan zitekeen gaur egun.

Hurrengo egunean Belaustegiren argitaletxera deitu nuen. Ahots larriko gizon batek erantzun zidan. Ezin zuten inori buruzko informaziorik eman.

- Hil edo bizikoa dut Belaustegirekin hitz egi-tea.

Gizonak ez-tul egin zuen gogorik gabe. Beste toki batera deitzeko iradoki zidan. Baita egin ere. Bartzelonako beste argitaletxe batera hots egin nuen. Antzeko erantzuna eman zidaten.

Egun batzuk geroago berriro ahalegindu nintzen lehendabiziko argitaletxean. Berriz ere ez deitzeko agindu zidan gizonak.

- Zure lagunak bere burua kendu du katalogotik.

- Zer esan nahi duzu?

- Pertsona batek Belaustegiren stock osoa erosi du. 650 ale guztira. Akordio batera ailegatu gara prezioari dagokionez. Ondoren zure lagunak deitu du katalogotik ezaba dezagun eskatze-ko.

- Benetan?

- Dagoeneko Belaustegi ez da gure katalogo-ko idazlea.

- Esango didazu, mesedez, nork erosi dituen liburuak?

- Ezin dugu halakorik egin.

- Eta esan ahal didazu, behintzat, gizona edo emakumea zen?

- Ezta ere. Orain eskegi egin behar dut eta, mesedez, ez deitu berriro argitaletxe honetara.

Erosleak Belaustegiren aleak beste argitaletxean ere erosi zituelako bihozkada izan nuen.

Interneten ekin nion bilatzeari. Egun hartara arte ez nintzen lagunaz arduratu, bion sarrera-kopuruak alderatzeko ez bazen. Beste idazle batzuekin ere egiten nuen. Belaustegik askoz gehiago zeukan nik baino. Astelehenean 112.000 zeuden. Ez nuen kalkulatu zehatz-zehatz zenbat zegozkion lagunari. Paper batean apuntatu nuen zenbakia. Asteazkenean 82.000 zeuden. Eta astearen amaieran 16.000. Haren izen-deituren sarrera-kopurua, Antartikoko fitoplanktona bezala, egunetik egunera gutxitzen ari zen. Sarrera gehienek, gainera, berarena bezalako izena edo abizena zuen jendearekin zuten zerikusirik. Belaustegi, bada, saretik desagertu

tzen ari zen erremediorik gabe. Orrien zuritzeaz gogoratu nintzen.

Kontrabiografoa Belaustegi kalitzen ari zen.

Deskatalogatzearen ondoren, liburu-denda pare batera sartu nintzen adiskidearen aleren bat aurkitzeko itxaropenarekin. Ez nuen bakar bat ere ikusi. Bidebarrietako Liburutegira joan nintzen. Jakin banekien han bazeudela bi edo hiru liburu. Ordenadorean ez zitzaidan ezer agertu. Usaina hartu nion. Belaustegi deitura ere ez zen udal-liburutegien sarean azaltzen. Fitxa bat bete nuen. Liburuzainak, ordea, ez zuen signaturarik gabeko fitxa onartu.

- Begiratu, mesedez, katalogo digitalean.

- Ez dago.

- Orduan ez daukagu udal-fondoetan.

- Orain dela aste batzuk bazegoen. Bai eta autore beraren beste bi izenburu ere.

- Bai arraroa.

- Izan liteke zuek kendu izana? Hau da, liburuzainek, burokratek edo dena delakoek ezabatu, Wikipedian bezala?

- Zuzendariari idatzi behar zenioke. Hark argituko dizu.

- Barkatu, bada hemen orri zuritzerik?

- Zer?

Alde egin nuen liburutegitik. Kontrabiografoak aurrea hartua zidan beste behin. Bidebarrietan barrena arin ibili nintzen, katedralerantz. Eskuin hartu nuen, Jardines kalera sartu. Belaustegik, errusiar erruletaren erregeak, azken tiroa eginga zion bere buruari. Desagertzea bera jarria zuen desagertzeko posibilitatearen aurrean. Ez jakin, ez nekien atzera ere agertuko zen izen berri batekin, beste produkzio batekin, estilo desberdin batekin eta beste argitaletxe batekin.

Kontrabiografoa, aldiz, agerikoago bihurtua zitzaidan. Ez nekien deus hari buruz, salbu eta Bilboko auzo txinatarrean bizi zela. Beste toki batera hanka egin izana ere ez nuen baztertzen. Azken batean, ogibideak etengabeko mugikortasuna eskatzen zion. Bartzelonara bueltatu izatea ez zen zentzubakoa erabat. Are gehiago, bazitekeen Bilbora etorri izatea Belaustegiren zorrak kitatzera. Auskalo. Beharbada ez zegoen kontrabiograforik. Belaustegi bera izan zitekeen bere antibiografoa.

Pentsamenduotatik tiraka, Camp Nouko harmaila hantustera itzuli nintzen. Partida hasi aurretik ilun zegoen. Euria zekarren. Ederra bota zuen La Bata de Boatiné-n izan nintzen artean. Belaustegiren azalpenek beste zentzu bat zuten orain. Bata bestearekin izan ginen denbora osoan, laster desagertuko zela adierazten saiatu zen adiskidea. Krisi-bilatzaile bilakatzeko -beharbada gau hartan bertan, ni La Bata de Boatiné-n bakarrik mozkortzen nintzen bitartean- zama arindu beharrean zegoen. Zama literarioa. Sortzeko posibilitatearen bidez bete-betean hondoratuko zen kreatibitatearen krisian, izu-industriaren profesional guztiak bentzutuz, beldur eragile endogamikoak, famara eta banitatera kondentzen gaituztenak, zanpatuz.

Jardinestik San Frantziskora zuzendu nintzen. Merced zubira ailegatzean, barandan bermatu nintzen. Posibilitateak ezartzeko erreminta aldean zeroan laguna non edo non zebilen krisien xerka. Auzo txinatarrerantz egin nuen Maiatzaren Biko kaletik, aldapan gora.

Bartzelonar erako aldapa, pentsatu nuen.

Lerdo makiladuna

Aurreneko argazkian elkarren ondoan ageri dira Arriaga eta Gerry Adams Dublinen, kongresu-jauregi batean. Irriz ari da Adams. Bizkar gainetik pasatzen dio eskuin besoa Arriagak.

Garai hartan sano ezaguna zen hemen Sinn Fein alderdiko buruzagia. Arnaldo Otegi orduantxe hasi zitzaizkion Gerry Adams deitzen. Komunikabideek asmatu zuten. Zentzua ez zegoen beti garbi; barregarri uzteko erabiltzen zuten batzuek, baina bazen fede itsuz esaten zuenik ere. Geroago, herri-epai baten itxura hartuta, desagerrarazi egin zuten. Arnaldo Otegi, baiki, ez zen Gerry Adams.

Bigarren argazkian pausatu du begirada Arriagak. Beste hau, Parnell plazan egina. Atzo, hegazkinera igotzear zelarik, Arriagari iruditu zitzaion bigarren argazki hark euriaren erdigunera itzularazten zuela. Arrazoia oso besterik izaki: administrazio publikoko lengoaiei buruzko jardunaldi batzuetan parte hartzeko bueltatu behar

izan du Dublinera. *Plain English*-en gainean eztabaidatuko dute bihar-etzi.

Lau urte dira Arriagak Dublingo argazki biak azkeneko aldiz begiratu zituenetik. Urte hartan ezagutu zuen Woodworth. Hari erakutsi zizkion afaritan.

- Nor da bigarren argazkiko gizona?

- Ez dakit, ahaztu egin zait.

Arriagak argazkiaren binperra erakutsi zion Woodworthi. *To Arriaga with love*. Argazkiak Arantzabalek eta Urkizak atera zituzten 1998an. Dublingo egonaldi laburrean egin zuen Arriagak bien ezaupidea.

Arrazoi bat edo beste, bigarren argazkiko irlandarra -jatorri hori duela erabaki du Arriagak- ikusezina bihurtu da, Otegi gertatu izan zitzaion moduan. Nor ote da? «Nor ote haiz?». Irlandar misterioitsua eta Parnell plaza ikusten ditu argazkian, eta haien gibelean, urruti samar, Conway's taberna. Akorduan dauka taberna, behin edo birritan ikusi du *The Snapper* filmeko eszenetan. Irudi, ahots eta elkarrizketa mordoa datorzkie nahas-mahas; haietan, ordea, ez dago argazkiko irlandar hezurtsurik.

Gizon ikusezinak ezinegona sortu dio Arriagari. Haren ukabilkatutako eskuak, lepo mehea, belarrietako aroak eta bekokiko orbana baino urrutiago ez du ezer ezagutzen. «Ezin ikustea ez ote da behin-behineko oroimen-galtze baten lehen seinalea?», galdetu du bere kabutan. «Tamalgarria litzateke». Baina baliteke, bestalde, bere bizitzan sekula ikusi ez izana. Argazkian ageri dena eta binperrean eskaintza idatzi duena pertsona bat eta bera ez izatea. Horrek, jakina, buruhaustea areagotzea besterik ez luke eragingo. Ikusezin bat izan barik, bi izango lituzke.

Parnell plazak, ezinbestean, Charles Stewart Parnell politikari historikoa ekarri dio gogora Arriagari. Baita Daniel O'Connell ere, hura bezain edo are historikoagoa. Honore de Balzacen aburuz, XIX. mendeak Napoleon eta O'Connell bakarrik ikusi baitzituen. Eta hortxe asalatu zaio zalantza Arriagari. Beharbada bigarren argazkiko gizonaren ikusezintasuna Parnellen beraren ikusezintasuna da.

Duda-mudetan barna aterik ate ibiliko balitz bezala, Arriagak bere buruari galdetu dio argazkiko gizona ez ote den Otegi irlandar bat, XXI.

mendeko une jakin batean irlandarren eta ingeles oroitzapenetik desagertua. Baina hala bada: «Noiz utzi zion Gerry Adamsek Gerry Adams izateari Otegi bilakatzeko?».

Atzo, Bilbao-Londres-Dublin hegaldian, argazki zuri-beltzeko gizonari Pearce deitzea erabaki zuen Arriagak. Beldurra ematerainoko argala iruditu zitzaion, fotografia-paperak mehetu egin balu bezala, plaza eta taberna bere horretan utzita. Argaltasun fisikoa baino gehiago, zer edo zer lotsagarria zeukan. Gorputz iharrak ikusgarriago bilakatzen zuen eta, beraz, are ikusezina-go Arriagarentzat.

Alboko bidaiariak areagotu egin zion sentipena. Arriagak inoiz ikusitako gizon lodiena zihoan propio egokitutako eserleku batean. Wichitako erlojugile beltz bat zen. Emaztea, semea eta hirurak Europako herri batzuk bisitatzen ari ziren. Irlanda zuten azken geltokia, Shannon aireportutik Estatu Batuetara itzuli baino lehen. Arriagari otu zitzaion, Irlandako itsasoa zeharkatzean Bermudetako Triangeluak soilik desagerrarazi ahal-

ko zuela giza-masa beltz hura. Masa astun mor-
doa desagerraraziak zituen Florida-Bermuda-
Puerto Rico eremu ekilateroak. Eta gero burura-
tu zitzaion, beharbada Parnell plazak ere joka ze-
zakeela Triangeluak bezala.

Parnell plazara ailegatutakoan, doi aztertu du
tokia.

Lehenago, egunsentian, argi itsugarri batek
itzarri du. Alferrik saiatu da berriro lokartzen. Ho-
teleko buffet librean gosaldtu du. Zelatatze arin
bat egin du jangelara sartu orduko. Ez du jardun-
aldietako inor ikusi. Jan bitartean bakarrik sen-
titzearen sentrazioa gustatzen zaio Arriagari.
Amaitutakoan Parnellera abiatu da denborarik
galdu gabe. Argazki biak eroan ditu aldean.

Topografo baten zehaztasunez etsaminatuko
du plaza.

Rotunda amaetxe zaharrean hasi du azterke-
ta. Iparrerantz egin du berehala, Oroipen Lorate-
gira, Irlandako askatasunaren alde hil diren guz-
tiei eskainia. Pearce heroi haietako bat izan lite-
keela uste izan du. «Zenbat Pearce jausi ote
dira!». Ondoren Gate antzokira abiatu da, Orson
Wellesek eta James Masonnek estreinako urratsak

eman zituzten hartara. Arriaga luzaro promenatu da batetik bestera, miaka, plaza katedral bat edo museo bat balitz bezala, detaile ñimiñoei ere erreparatuz. Behar horretan barneratu da Findlater eliza neogotikora, Hugh Lane arte galeriara eta plazako beste eraikin historiko batzuetara.

Azkenean Parnell eta O'Connell kaleen elkar-gunean dagoen Charles Stewart Parnellen monumentura zuzendu da. Gizonari eskaini dio arreta une batez. Ez daki ezer askorik. XIX. mendeko politikari irlandarra, handienetakoa. Parnell, subiranotasunaren alde (kontzienteki edo ez) agertzen ziren irlandar guztiak bezalaxe, derrigorturik zegoen izatera ikusia izan gabe. Eta horixe izan liteke Parnelleko desagerpenen arrazoa. Arrazoi politikoa eta historikoa. Hala ere, irudi du Parnell guneak ez daukala fotografia errebelatuen pertsonaiarik ikusezin bilaka dezakeen magnetismoa sortzeko beste indarririk. Ez da Irlandako Bermudetako Triangelua.

Parnellen monumentutik O'Connell kalera joan da Arriaga. Dublinek ikusezintasunean eraginik badu, O'Connell kaleko Posta Bulego Nagu-

siak baporizazioen santutegia izan behar du. Oraindik antzeman daitezke ingelesen balak eraikinaren zutabe joniarretan. Belfasten gatazkaren guneetan ibilbide turistikoak antolatzen dituzten era berean, Dublinen ere mereziko luke heroien bideetan barrena paseatzeak. «Eamon de Valerak eta Michael Collinsek kale bana izango dute, seguru» esan dio Arriagak bere buruari. Alderdi politikoak bakarrik hartuko lituzkeen *Ulysses* berria idatz lezake norbaitek, halako palimpsesto iraultzaile bat. Toki batzuk errepikatu ko liranteke, izen berriez gehienak.

Turista asko dabilta O'Connellen barrena. Glasnevin kanposantua etorri zaio gogora Arriagari. Baita harako bidea hartu ere. Hilerrian eman zieten lur Parnelli eta O'Connell; De Valerari; Collins; Arthur Griffith ere han da, Sinn Fein alderdiko fundatzailea; Maud Gonne; Sir Roger Casement; Kevin Barry; Constance Markievicz kondesa gorria; Irlandako kausaren aldeko hamaika poeta. Ibilbide historiko literarioa antola liteke. Ez al da beste horrenbeste gertatzen ari Suedian Stieg Larssonekin? Ez al dute Lisboako Chiado auzoa Pessoaگانako pelegrinazio bihur-

tu? A Brasileira kafetegi ondoko estatuaren argazkirako erromesaldi.

Birritan pentsaturik, Pearce enigmak -gisa horretan bataiatu du Arriagak- zerikusi artezagoa izan lezake Pessearekin Otegiarekin berarekin baino. A Brasileira alboko estatua desgastatuaren altzoan kamera digitalez erretratatuak izateko ilaran jartzen direnei, luze gabe, ikusezin bihurtuko zaie Pessoa; Dublinen bertan, O'Connell eta Earl North kaleen artean, Joyce ikusezin bihurtuko zaien bezala -*the prick with the stick* esaten diote: lerdo makiladuna-.

Bilboko estatuekin akordatu da Arriaga. Guggenheim museotik hurbil dagoen bat da fotografatuena: Ramon Rubial politikari sozialista historikoa, sozialisten Parnell moduko bat. Bisitari askok, erraturik, Miguel de Unamunotzat jotzen dute. Estatua besarkatu eta klik gabeturiko kamerak bere lana bete arte itxaroten dute. Estatua-bilatzaileak dira guztiak. Arruntak eta gustu gabekoak.

Arriagak bere burua zoriondu du, estatua baten ondoan fotografiarik inoiz egin ez duelako. Gero Pessearengan jarri du arreta, Pearce enig-

ma deskubritzeko giltza izan daitekeelakoan. Pearce desgastatua norbaiten heteronimoa -Otegi irlandarrarena, akaso- izan liteke. Behar-bada okerreko arrastoaren atzetik ibili da. Pearce barik, Ronan O'Driscoll izan liteke. Brian Sexton. Eoin D'Arcy. Fergurs Cullem.

Eguerdian, Glasnevin kanposantutik alde egiterako, unaturik dago Arriaga. Lur-azpian edo panteoi dotoretan behin betiko atsedena bilatzen duten pertsonaia historikoak ikusgarri bihurtzeko ahaleginak zeharo leherrarazi du. «Hierarkiak daude ikusgarritasun aferetan» ebatzi du. Irribarre txiki bat egiten ere saiatu da, baina neke-keinu hutsa iruditu zaio. Ikusezintasuna bere burutik ezabatzera egin du. Alta, zenbat eta gehiago pentsatu horretan, orduan eta ikusgarriago bilakatzen zaio. «Zer da ikusezintasuna? Gauza bera ote dira ikusezin bihurtzea eta desagertzea?». Umezarora bueltatu da, sei urte zituelarik Laida hondartzan galdu zenekora. Beti lotu du desagertpena, ideia bezala, episodio harekin. Ama estuturik ibili zen itsasertzean. Harentzat desagertua zen; hondartzan ziren beste guztientzat, aldiz, ikusezina. Amaren begi-bista-

tik desagertzeak ez zuen besteen begietan ikusgarriago bilakatu. Bihurtzekotan, ama bihurtu zen ikusgarriago.

Arriagak orain arte ez du inoiz ikusezintasuna desagertzearekin lotu.

Parnell plazara bueltatu da arratsaldean. Bihar *Plain English*-i buruzko ikuspuntuetan murgilduko da. Entzungailuak ipini beharko ditu, azkenez Norwich-ekoan egin zuen bezala. Paradoxa da deus ez ulertzea lengoaia zuzenaren gaineko jardunaldi batzuetan.

Bostak aldera iluntasun beldurgarri batek bahitu du plaza. Orain dela ordu batzuk ikusitakoa itxuraldatu egin da. Arriagak ez daki zein den plazarekiko pertzepzio zuzena *-the plain and only*, aitortu dio bere buruari ingeles eska-sean-. Bere bizimoduak, egunekoa guztiz, goizekoaren aldeko hautua egitera bultzatu du. Goizez argi berunkara batek hauts-distira eman dio plazari, Pearce gizajoaren argazkiaren berdint-sua. Euria zekarren. Tanta batzuk besterik ez dira izan azkenean.

Bat-batean, ikusezin bihurtu dena tokia bera ez ote den otu zaio Arriagari. Ez da lekuekin edo objektu bizigabeekin halako sentsazioak dituen lehen aldia. «Zenbat aldiz ez ote naiz harritu, senide edo lagun baten etxean, existitzen zirenik ere imajinatzen ez nituen liburuak aurkitzean; edo kitzikatzen nauten liburu-azalak ikustean». Sentipen iniziatikoa da, behin arrebarenean lo zegoela, aurpegi gainera *Short Cuts* jausi zitzaionean bezala. Beharbada Pearceren argazkia ez da Parnell plazan hartutako argazki arrunt bat, baizik eta Irlandako literaturako liburu baten azala. Izan ere, argazki artistikoa da bigarren argazkia. Sepia tankerakoa. Pearce, irlandar ikusezin baten isla izan liteke, kultuzko musikaria Stoneybatter-eko auzokide ilunentzat. Liburuak irlandar musikari honen bizitza tragikoa kontatuko luke. Protagonistak izan lezake Pearce izena. Eta kontakizunean Pearce musikariak zirt edo zart egin beharra dauka ikusgarritasunaren eta entzungarritasunaren artean. Pearce, Stoneybatterreko belarri zolientzat gero eta entzungarriago bilakatzen den heinean, badoa bistatik desagertzen. «Aisling O Braonain izeneko idazle

batek idatzi du liburua», begitandu zaio Arriagara.

Parnell plaza, Pearceren ikusezintasunaren eragilea izan beharrean, biktima izan liteke. Leku guztiak desegite-prozesu antzemanezinetan murgiltzen baitira. Lehen Vaughan hotela zegoen plazako 29. eta 30. zenbakietan. Michael Collinsek beste edozein toki baino areago estimatzen zuen biltzeko eta, batez ere, ezkutatzeko. 46.ean Irlanderaren Ligako egoitza zegoen. Plazak berak Rutland Square izena izan zuen Parnell izan aurretik. 18.ean, berriz, zabalik segitzen du Irlandako Idazleen Museoak. Hango kafetegira eta liburu-dendara sartu da Arriaga.

Pearceren argazkia erakutsi die langileei. Inork ez du ezagutzen, denak aurpegia ezaguna egiten zaiela adieraztean bat etorri arren.

- Pearce sano deitura arrunta da Irlandan -zigortu du liburu-dendako arduradunak-. Eta gure Pearce famatuena Padraig Pearse duzu.

Arriagak ez dio tutik ere ulertu, baina museo-
ra sartu denean, Beckett, Shaw edo Butlerren erretratuekin batera ikusi du Padraig Pearsere-
na. Poeta, Pazkoko Altxamenduaren buruetako

bat eta Irlandako behin-behineko gobernuaren presidentea. «Iraultzaileak dira herri honetako idazle guztiak?» esan du bere baitarako; «idazleak iraultzaile guztiak?».

Museoan andrazko batek hurrengo atarira bidali du. 19.ean Irlandako Idazleen Elkarte dago. Arriagari zentzuzkoa iruditu zaio. «Nire adin bereko idazle dublindarra izan liteke Pearce», pentsatu du. Agian egunen batean museora eramango dute. Agian Aisling O Braonain bera ere bai, Pearceri asmatu dion idazle hori. Agian.

Seiak eta erdietan tripa-zorriak hasi zaizkio Arriagari. Bilaketak zuloa sortu dio urdailean. Parnellen erronkari eustera deliberatu da. Chapter One jotetxea aukeratu du, plaza inguruan dagoen bakarretakoa. Michelin izarra du 2007tik eta Dublingo jotetxe onenaren saria lortu du hainbat urtetan. IVAPi bidaliko dio faktura.

Afaldutakoan Conway's tabernara joan da. Idazleen museoan irakurri du tabernako kanpoaldean etsi zuela Pdraig Pearsek britainiarren oldarren aurrean. Paddy Reillyk abestutako *The fields of Athenry*ren doinu melankolikoak aditu ditu barrura sartzean, harrigarriro tabernan mu-

sikarik ez badago ere. Pinta bat Guinness eskatu du. Giro ederra dago. Beirate nagusi alboko mahaira joan da jesartzen. Beiratean, tabernaren izenarekin batera, irekitze-data azaltzen da: 1745. Urte hartan fundatu zuten Rotunda amaetxea ere. Ezin da kasualitatea izan. Urte batzuk lehenago eserita egon zen tokian dago orain Arriaga. Orduko hartan ezagunekin izan zen, Dublinera bizitzen joandako euskaldunak gehienak, Arantzabal eta Urkiza tartean. Gerry Adamsen eta Pearceren argazkiek zuzen daroate eurengana. Argi ikus ditzake. Eta argi ikusi ahal dituen arren, bere bizitzatik betiko desagertu direla konturatu da.

«Arantzabalena eta Urkizarena baino neurea da errua», onartzen du Arriagak. Dagoeneko ez du modurik haiekin harremanetan jartzeko. Ez ditu ez telefono-zenbakiak ez posta elektronikoen helbideak, eta inoiz izan bazituen, galdu egin ditu. «Dublinen bertan bizitzen segitzen duten ere ez dakit». Eguerdian, Glasnevin hilerria utzi ostean, North Circular errepideko haien lehengo apartamentura hurbildu da. Aurpegia orezta gorritz beterik zuen morroi atsegin batek adierazi

dio ez dituela bere adiskideak ezagutzen. Arriagak ez zuen besterik espero.

- *Go raibh mait agat* -eskerrak eman dizkio Arriagak irlandera, eta atoan lotsagorritu eta hanka egin du.

Tabernako ateraino eraman du itxaropenak. Han tinkatu du begirada. «Bizitzaren zirkunstantzia bategatik sar litezke Arantzabal eta Urkiza oraintxe». Laster etsi du baina. Irlandar itxurako bezeroak soilik sartzen dira. Orduko lagunak ez dira inoiz itzuliko. Pearcek -Pearce ikusezinak-, ordea, irribarretsu jarraituko du argazkian.

Trago luzea jo du Arriagak. Azken ahalegin akigarria egin du -benetan neka-neka eginda dago- adiskide guztien aurpegiak bistaratzeko. Oroipen-kronologia bat ezarri du. Denboraz gaindiko hierarkia bat datorkio gogora. Bere burua hilduratu du marrazten ez jakiteagatik. Filmetan legez, lagunaren erretratu robot bana osatuko luke eta haien izenak idatziko lituzke orrien behealdean.

Sei pinta edan ditu eta bederatzia laurden gutxitan irten da Conway's tabernatik. Zama arindu baliote bezala sentitzen da. Joyceren aurretik igaro da hotelerako bidean. *The prick with the stick*.

- Lerdo makiladuna! -oihu egin dio, oinezkoengan errezeloa ernaraziz.

Pessoarekin akordatu da Arriaga. Rubialekin akordatu da, Guggenheimeko Unamuno deskafeinatuarekin. Orduantxe deskubritu du, oinezko horien belarrietara iristen ez den ooooooooo! bobobil bat sortuz, hiru estatuak uztartzen dituen argaltasun beldurgarria.

Dublin eta Bilbo bazterturik, pentsamenduak Lisboara eramatea erabaki du berriro. Argiaren azken pausalekua, Edorta Jimenezen esanetan. Behin eta berriro bueltatzen da hiru berbako esaldi horretara Lisboaz ari denean. Eta hiru estatuen artean argitsuena Pessoaarena denez, duela hamahiru urte Erramun Landari La Brocha galerian erositako *Lisboa* koadroarekin gogoratu da. «Apartamentuko salan eskegita dago, berde kirotan margoturiko horman, zeharo hondaturik». Tonu ilunak ditu mihiseak. Beltzaren gai-

nean trazu grisak, trazu bertikalak. Barne belztasuna lehertzen da pintzeletan. «Zer dela-eta jarri ote zion Landak *Lisboa*» pentsatu du Arriagak, «non aurkituko ote zuen han belztasuna?». Edozelan ere, fisikoki elkarrengandik urrun dauden honetan, ezin adierazizko kitzikapena dakarkio. Haren mardultasuna Pearceren, Pessoren, Joyceren eta Rubialen estatuen argaltasun anorexiakoaren kontrako tapoia da, halako azken pausaleku bat.

Lisboako kontrasteaz hausnartzeak sosegatu egin du Arriaga. Dagoeneko ez du bere burua kolapso baten atarian sentitzen. Berba egiteko gogoia sortu zaio. Premia. Baina Arantzabal, Urki-za, Woodworth eta Pearce ikusezina alde batera, ez du inor ezagutzen Dublinalen. Irrikak eta premiak derrigorturik, bat-batean, hamaika helbide posiblez galdezka hasi zaie O' Connelleko gizonemakumeei. Oldarrean datozkio Erresuma Batuen kontrako borrokako liderrak eta Glasnevin hilerrian ehortzitako guztiak (Peadar Kearney, Brendan Behan, Liam Whelan eta Luke Kelly barne). Baina galdetu du beste dublindar entzuetzuei batzuei buruz ere: Patrick Kavanagh edo

Paddy Moloney edo Kevin Moran; eta baita ere Bono -*where is Bono Street?*- edo Michael O'Riordan -*is this place O'Riordan Corner?*- edo Jonathan Swift -*where born Swift?*-, hirurak Glasnevin auzoan bizi izandakoak. Andrazko zahar bati Otegi kaleaz itaundu dio, gehiegikeriatan ari dela jakinik. Hitz egitean halako *Plain English* batez komunikatzen da, O'Connell kalera ekarritako lengoaia erraz batez, boz gora, hartara hobeto ulertuko baliote bezala edo existitzen ez diren kaleak adierazi ahal izango balizkie bezala.

Arriaga abante doa pozarren. Dublin Lisboa da; Joyce Pessoa da; eta Pearce ez da Pearce, inoiz ez baita Pearce izan. Erramun Landa bera izan liteke, zuririk gabeko erretratu beltz batean, kolorearen dantzari, beltzaren emaitza den edo beltza bere semea den ez asmatzeraino; sekula ikusi ez duen Erramun bat, orain, bere beltzean, metro erdi batera ikusiko balu bezala agertzen zaiona. *Gizakien gauak badu mila gezur zutabe* artelanaz akordatu da Arriaga. Artistaren hitz batzuk -«ezagutzen ez dugun bidetik ibiltzea bezalakorik ez dago, nahi dugun lekura iristeko»- zeharo *plain* egin zaizkio. Zeharo *cool*.

Eta une horretantxe, itzalen artetik irrist egin duen argia laztantzean, bururatu zaio beharbada bera, eta bera bakarrik, dela ikusezina.

Neuk diseinatu nuen John Lennon hil zuen pistola

PISTOLA

Nahiko erraza da pistola baten arrastoan jartzea. Denek daroate serie-zenbaki bana, autoek edo garbigailuek bezala. Zaila da, ordea, jakitea nork diseinatu duen pistola jakin bat. E0130025 serie-zenbakidun pistola, adibidez. Eta are zailagoa deskubritzea nork diseinatu zuen Mark David Chapmanek erabilitakoa.

JOHN LENNON

John Lennon naiz. Ez Chapmanek New Yorken akabatutakoaren izen bereko gizona. Esan nahi dut ni neu naizela John Lennon hori.

Hamaika biografia argitaratu dituzte nitaz. Azkena, Philip Norman kazetariak idatzitako *John Lennon*. Ez dut oraindino irakurri. Dardarka has-

ten naiz nire bizitzaren gaineko liburu baten aurrean ipintzen naizen bakoitzean. Ez dut neure burua ezagutzen. Gaztetan berdin gertatzen zitzaidan ispiluaren aitzinean: *Koño! Hi ez haiz hori!* Edo geroago irratietan eta telebistetan: *Horrrela hitz egiten duk?* Halakoetan Paulekin alde-ratzen nuen neure burua. Paulekin beti. Egun zinemaz jazotzen zait. Bazter bateko aulki batean eseri eta nor naizen jakiten ahalegintzen naiz. Ikusi duzue *The Killing of John Lennon?*

Biografia guztien artean, Cynthia lehenengo emazteak idatzitakoak artegiatu ninduen gehien hasieran. 2005ean argitaratu zuen Hodder & Soughton-ekin, *John* izenburupean. Beste guztiak bezalaxe, baimendu gabeko biografia da.

Noizean behin, banitate handiz, pentsatzen jartzen naiz nori baimenduko niokeen biografia bat. Beharbada Cyntiari berari, Yokori, Julian seme nagusiari (Sean txikiegia zen hil nindute-nean) eta izeko Mimir.

CYNTHIA

In my life kantarekin zoratuta zegoen Cynthia. Paulek eta biok konposatu genuen. Cynthia, Julian eta hirurok zoriontsu bizi gineneko sasoi batekoa da.

Beti akordatuko naiz zenbait tokirekin, / nahiz eta haietako batzuk aldatu. / Batzuk betiko aldatu dira, eta ez hoberako, / beste batzuk joan dira eta bere horretan dirauenik ere bada.

JULIAN

Herentzia beldurgarria utzi nion Juliani. Sarritan, umemokoa besterik ez zela, kaleko jendeak ez zion bakerik ematen: *Nire bizitzak zure aitarena orbitatzen du.*

John gora, John behera.

Batzuk nire kontra jartzen ere saiatu ziren.

Cynthia eta biok banandu ginenean, kasik betiko aldendu nintzen Julianengandik. Halako urrutiratze-zigorra.

Inor legitimaturik baldin bazegoen ni tirokatzeko, huraxe.

Eta inork mereziko balu nire errautsen gainean txiza egitea, hura Cynthia litzateke.

BESTE NIAK

Hil ondoren biografoek mantendu naute bizirik. Haiei esker nago hemen.

Neronek *beste niak* esaten diet. Ondo ezagutu nindutenak; nirekin une zailak eta une goxoak bizi izan zituztenak; nirekin behin ere hitz erdirik egin ez zutenak eta gure kontzertu bat egundo ikusi ez zutenak; zeharo arrotzak zaizkidanak; edo harreman laburrak eta azalekoak baliatu dituztenak nitaz berba egiteko.

Figuranteak, antzerkian bezala, asko eta asko. Estrak. Bost mila eta hamar mila artean izan litezke.

JOHN

Sumendi bateko laba lez zabaltzen den legenda naiz. Erre eta solidotu egiten dut. Baina kontu

guztiak argi: hanka-sartzeak eta biolentzia-episodioak gorabehera, pertsona bikaina izan nintzen. Kritika eta agiraka guztiak alboratu gabe, kontrakoa dioen kontakizunik ez duzue aurkituko.

PLASTIKOZKO PISTOLA BAT

1980ko abenduaren 7an, Galesko iparraldean zeukaten jatetxe txikerrean zeuden Cynthia eta Angie. Bazkideak ez ezik, lagun-minak ere baziren. Arratsaldean Gabonetako apaingarriekin ari ziren. Kanpoan eguraldi mina egiten bazuen ere, tabernan giro alai zen nagusi. Ardo botila bat ireki zuten. Zuhaitzean bolak ipini zituzten. Hala-ko batean, barnean sorpresaren bat edo beste gordetzen duten kartoizko kutxa horietako bat zabaldu zuten. Lurrera jausi zen barruko jostailua. Cynthia goragaletu egin zen pistola bat zela ikustean. Seinale txarra iritzi zion.

Biharamunean Cynthiak Londresera bidaiatu zuen. Egun horretantxe hil ninduten.

Baliteke Cynthiak istorio hori asmatzea edo egunarekin erratzea.

Baina litekeena da kontatzen duen moduan gertatu izana.

ABENDUAK 8

New Yorken tirokatu ninduten, Dakota eraikineko nire etxe aitzinean, 1980ko abenduaren 8an, gaueko 22:50ean. Londresen 9ko 03:50ean.

MEHATXUAK

Behin baino gehiagotan etorri zitzaidan burura hil ahal nindutela. Baina ez hor zehar aipatzen duten beste bider. Eta, Cynthiak uste duenaren kontra, ez nintzen zama horrekin bizi izan nire azken hamalau urteetan.

1966an lerdo batek gutun bat bidali zidan. Bere burua igarletzat hartzen zuen memelo hutsa. Ohartarazten ninduen egun batean tiroka hartuko nindutela Estatu Batuetan. Garai hartan

Ingalaterran bizi nintzen. Adierazia nuen Jesu-kristo baino famatuagoak ginela. Hura eskandalua! Mehatxu ugari bidali zizkidaten. Baina egia zen: kristorenak ginen!

HILKETA

Eleberri beltz bateko hilketa-tokia balitz bezala eraiki dut hamaika aldiz nire tiroketa. Ironikoa da ikertzaile baten azalean sartu behar izatea ongi ulertzeko zelan kalitu ninduen Chapmanek. Biografiak eta filmak ditut iturri. Baita garaiko egunkariak. Poliziaren ikerketak. Yokoren testigantza. Eta batez ere Chapmanen beraren adierazpenak.

PETE

Musika munduan bateristaz urri ibili gara beti. Zer esanik ez onak badira. Pete Best izan zen gurea Ringo ailegatu baino lehen. Bere barnera

bildua, melankolia aieru batek joa beti. Neskak berehala maitemintzen ziren harekin.

1962an Parlophone Records zigiluak disko bat grabatzeko proposatu zigun. Gure lehen kontratua! Paul, George eta hirurok, orduan, aho batez erabaki genuen Pete kanporatzea. Zigiluari buruz deus ez esateaz aparte, Brian agenteari eskatu genion bota zezala. Pete gizajoak aste bi eman zituen etxetik irten gabe. Ez zuen ulertzen zer zela-eta geuk, bere lagunok, gibeletik sastakutzen genuen. Sano krudela eta bidegabea zen. Gainera, sinetsita zegoen bateria jotzeko bere moduak eraman gintuela urrun. Eta guk azalpenik gabe kaleratu. Ez genuen adorerik bildu hura bisitatzen joateko. Nik neuk pentsatu nuen amorritan egon behar zuela, eta agertuz gero txiki-txiki egingo ninduela. Ez nion hots egin.

Hark ere bazeukan eskubidea niri tiro pareta desarratzeko. Gibeletik.

Murgil egiten dut Internetera niri buruzko kontuak jakin nahian. Egunero ipuin berriak. Banitateak eta oroimena koipeztatzeko beharrak lotu naute Facebookera.

Zergatik kalitu ote zuen Chapmanek John?
Horra talde birtualaren izena.

Holden Caulfielden (J.D. Salinger idazlearen *The Catcher in the Rye* nobelaren pertsonaia nagusia) eraginez burutu zuela aitortu du beti. Holdenek hipokrisia gorroto zuen eta ni pertsona zuria nintzen Chapmanen begietara. Oparotasunean bizi baina *Imagine* kantan jabetzarik gabeko mundu bat amestu.

Holden Caulfieldi eta hipokrisiari buruzko teoriak nahastu egiten nau. Kontradikzio ugari bizi arren, ez nuen nire burua hipokritatzat. Gainera, ez da Holden bera kontradikzioen paradigma?

LENNON 2.0

Interneten denetik irakur daiteke. Psikologo batek adierazi berri du, Yokorengan bilatu nuela haurtzaroan eta nerabezaroan izeko Mimik

emandako babesa. Izugarria da norbere bizitzaz halakoak deskubritzea hil ondoren.

Internetek mundu zabalago bat ekarri dit. Lehen betikoek hitz egiten zuten nitaz, badakizue, Bob Spitz, Ray Coleman, Barry Miles, Peter Brown eta halako jendeak. Ezin zulatuzko hierarkia osatzen zuten. Egun, berriz, lauagoa da dena.

Oraindik orain, kasu, Mauricio Gondra Ugalde izeneko gizon baten erranek zurtu naute. Chapmanek erabilitako pistolaren egilea dela dio.

CHAPMAN

Inor hilez gero, pertsona ospetsu bihurtzen zaituzte. Gizarteak bere egiten zaitu. Haietako bat zara. Jendeak soberakinak uxatzen ditu liposukzioen bidez, kisteak egotzi, tumoreak kiskali. Hiltzaile ankerrak, ordea, mimatu egiten ditu. Hiltzaileak sona handiko pertsonaia bilakatzen dira telebista-saioei eta biografiei esker.

Zenbat eta sarriago berba egin nitaz Chapmanek, orduan eta onartuago.

Ni hil ondoren Atticara bidali zuten preso. Sei urte inguru eman zituen prentsarekin mintzatu gabe. 1987an Chapmanek elkarrizketa bat eskaini zion James R. Gaines-i *People* aldizkarirako. Ondoren Jack Jonesi eman zizkion batzuk, *Democrat and Chronicle* egunkarirako. Jonesek berak, 1992an, liburu bat argitaratu zuen: *Let Me Take You Down: Inside the Mind of Mark David Chapman, the Man Who Killed John Lennon*. Izenburua lar luzea da eta ez du aski indarrik nire izena aitatu gabe.

Chapmani buruzko film aipagarri bi ere egin dituzte: *Chapter 27* (Salingerren liburuak 26 atal dauzka) eta *The Killing of John Lennon*.

HOLDEN CAULFIELD 2.0

Zendu ondoren atzera ere irakurri nuen *The Catcher in the Rye*. Hasi eta buka. Hamaika bider harrezkeroztik. Aztertu egin dut Salingerren literatura.

Egun Salinger 2.0 eta Holden Caulfield 2.0 interesatzen zaizkit. Facebooken gune bat zabaldu

dut hausnartzeko Mr. eta Mrs. Antoliniren etxean Holdeni gertatzen zaionaz. Sarean honakoak ere aurki daitezke: Salingerrek ez balu Caulfield sortu, beharbada inork ez zukeen Lennon hilko. Eta nik neure artean: Salinger bere burua hilduratzten penalti erabakigarria huts egiten duen futbolariaren antzo? Bai zera!

DOUBLE FANTASY

Sinatutako azken diskoa nori eta Chapmani sinatu nion. Ironia krudelagorik!

Sgt. Pepper's Lonely Hearts Club Band entzun ondoren sentitu omen zuen ni hiltzeko beharra. 1980an Hawaiiin bizi zen. Abenduaren 6an New Yorkera abiatu zen (hirugarren aldia udazken hartan). Sheraton Hotelean hartu zuen ostatu bi egunez. 8ko goizean esaldi batek durundi egin zuen bere buruan: «Gaur duk eguna». *The Catcher in the Rye* erosi zuen liburu-denda batean.

Eskolakideek jazarria kirolari eskasa izatearren, erlijio-kontu ilunetan nahasturik, amarekin

lotsaturik, aitari gorrotoa, Gloria emaztea jipoi-tu... Horra hari buruz esaten dutena. Batek jakin.

Chapmani *Double Fantasy* diskoa sinatzen ari nintzeneko unea harrapatu zuen bere kameraz Paul Goresh argazkilariak. Bion aurpegiak baino ez dira agertzen. Horri, berriz, ez dakit zelan deitu.

DAKOTA

17:00etan Yoko eta biok Record Plant estudioetara joan ginen eguneko grabazio-saioak prestatzen. Limusinara igotzear nengoela, Chapmanek eskua luzatu eta *Double Fantasy* sinatzeko erregutu zidan. Hala egin nuen (pazientzia handiz jokatu dut beti fan guztiekin; haiei esker lortu genuen, azken batean, arrakasta. Cynthiak ezin hobeto biltzen du bere biografian).

22:49an bueltatu ginen Dakota eraikinera. Chapmanek bost tiro desarratu zizkidan. Bik bizkarra jo zuten eta beste bik sorbalda. Bailetako batek aorta zulatu zuen. Berehala ailegatu zen

polizia-auto batean eraman ninduten Luke's-Roosevelt ospitalera.

Zeharo odolusturik hil nintzen 23:07an.

CHARTER ARMS WIKIPEDIA

Chapmanek 38 kalibreko Charter Arms bat hautatu zuen nire egunei akabua emateko.

Colt eta beste etxe batzuentzat lan egin zuen Douglas McClenahan armen diseinatzaile gazteak Charter Arms Co. fundatu baino lehen.

Hainbat errebolber mota fabrikatu zituzten Charter Arms-en: .22 Long Rifle, .22 Magnum, .32 Long, .32 Magnum, .357 Magnum, .38 Special eta .44 Special, besteak beste.

Lehena 38 kalibreko bat izan zen, *Undercover* izeneko modeloa.

Ni, baina, kalibre bereko beste modelo batez hil ninduen Chapmanek: Hawaiiin eskuratutako 38 *Special Off Duty* bat.

Interneti esker jakin dut Poliziak ez zuela Chapmanen pistola erre. Epaiketaren egunetan ez nuen ikusi nahi izan. Nire bizia hautsi zuen frogari tresna deabruzkoa neritzon. Eta ikusteko gogoia sortu orduko, Poliziak aspaldi kiskalia behar zuela otu zitzaidan.

Henry Leutwyler-ek argazkia atera zion, ordea, Queenseko Auzitegiko Ikerketen Institutuan. Chapmanen armarekin daude han, besteak beste, David Berkowitzen pistola eta 60ko hamarkadan Nazio Batuen erakundea erasotzeko erabilitako bazoka.

MAURICIO GONDRA UGALDE

Urte askoan, Interneten eta prentsa idatzian, Smith & Wesson batez akabatu naute, Dixie Derringer batez, Patriot batez eta, are, Luger batez ere bai. AEBetan, Argentinan, Alemanian eta beste hainbat lekutan sortutako armez hil naute. Hamaika entzuteko hil gara.

Mauricio Gondra Ugaldere *Neuk diseinatu nuen John Lennon hil zuen pistola* liburuaren sinopsian irakurri dudaren arabera, autoreak, autobiografiaren aitzakian, errebolberraren industria aztertzen du. Nor da Mauricio Gondra Ugaldere? Googlen 81 erreferentzia daude dagokioneko. Gondra eta Lennon sartuz gero, 7. Egunkari batean elkarrizketa bat ageri da: *Pistola batek elkarrengana hurreratzen ditu John Lennon eta euskaldunak*.

Gondra Espainian hasi omen zen, Astra eta Star enpresetan. 1960an Estatu Batuetara joan zen High Standaren kontratu bati esker. McClellanek 1964an Charter Arms-era eraman baino lehen, Sturm-en ere lan egin zuen. Dirudienez, Gondrak sortu zuen *Off Duty* modeloa.

Estatu Batuetan urte mordo eman ostean, Ean bizi da egun Gondra. Ea Gernikatik hur dago. Picassoren koadroari esker dut ezagun Gernika. MoMAN ikusi nuen New Yorken bizi nintzelarik. Baki toki ederra dirudi Googleko argazkietan. Bisi bat egingo diot Gondrari. Eta, ondoren, Cynthia emazte ohiari. Mallorcan bizi da bere laugarren senarrarekin.

EA 2.0

Web-bilatzaileak keletone.org blogera eraman nau. «Julio Cortazar mila aldiz euskaldunagoa da Lennon baino», dio Keletonek. Antza denez, Ean zituen sustraiak idazle argentinarrak.

Pinche looser

Mexikon ezagutu nuen Taka.

Hara joan baino lehen hareazko jokaleku batean zaildu nintzen, euri egunetan lokatzezkoa bihurtzen zen zulo hartan. Danok Bat eta Begoñako taldearen aurka jarduten genuen Mallonako kanposantu zaharraren gibelean (altzairu-fabrikaren arrastorik ez ordurako), marmolen artean, hilen gainean.

Bastidak Begoñara alde egin zuenean, Emilianok belarria zulatu zidan:

- Egiok kosk barrabiletan urde horri!

Eta Arostegik Danokera (etsaietan gorrotatuenera) ihes egin orduko:

- Jan egizkiok gibela eta bihotza!

Esana bete nuen.

Lehen mailan jai neukala esaten zidan.

- Hi bigarreanean, asko jota -Emilianoren ezpain okertuek mexikarren azentua behartzen zuten-. Bigarreanean irabazi ahal izango duk diru apur bat. Jada ez zagok pagotzarik.

Laurogeita hamarrekotan Mediterraneoan fut-
bol klubetan dirua sartu zutenetik ugari kartzela
ezagutuak ziren.

- Hoa Mexikora, Langarita, neuk konponduko
diat.

Goitzenak estimua zekarren aldean. Behin
baino gehiagotan berba egin zidan Isidro Langa-
raz. Gerra Zibilean Euzkadiko Selektzioarekin jo-
katutakoa zen pasaitarra. Hasieran Europan,
Jose Antonio Agirre lehendakari eta Athleticen
jokalaria ohiaren aginduetara; Hego Amerikan ge-
roago. Hotsak neurriko oihartzuna sortu zuen
Mexikon. 1938-39an selektzioa Barruti Federale-
ko txapelketan aritu zen Club Deportivo Euzkadi-
ren izenpean. Hantxe Langara. Bizia, argia, dri-
blingean dantzaria. Argentinara joan zen, San
Lorenzo de Almagrok fitxaturik. Debut egunean
lau sartu zizkion River Plateri.

- Mexikon golegilerik onena izan zuan 44. eta
46. urteetan. Pertsona argiaren baliokide erabil-
tzen zian jendeak haren deitura. Gaur egun Me-
xikon inork *langara* deituz gero, azeri hutsa hai-
zen seinale. Aditu didak, Langarita?

Kasu eman nion Emilianori. Mexiko Hiriko lagun batzuei hots egin zien.

- Klub pare batean saiatuko haiz. Dena konponduta zagok. Athleticen ez bahaute estima-tzen, *fuck them all*. Amerikara hoa. Nomada izango haiz aurrerantzean. Gora Santutxu, ka-broi horiek!

Ez zidan muturra sartzeko aukerarik eman. Zera errepikatzen zuen beti:

- Amaren bularrak zeharo siku utzi nitian anaia, Hugo Sanchez, munduratu aurretik. *Chin-gon* hari txilenak bakarrik utzi nizkioan!

Emiliano ez zebilen gezurretan. Isidro Langa-raren eta erbesteratu guztien segida egiten zuen. Haren pidgin bitxia eta azentua, erakusga-ri. Kontaktuek duda guztiak uxatu zituzten: Me-xiko DFkoak maila gorenekoak ziren. Hiriko aire-portura ailegatu orduko, Ignacio Goena Euskal Etxeko presidentea eta txofer bat neuzkan zain. Gizon ñañaarroa zen Goena, aspaldi gizendua. Berehalakoan konturatu nintzen egun batean egunkarietako azaletan agertuko zela garondo-an bala batekin.

- Ongi etorri DFra. Patrikak betetzeko asmo-tan Athletic abandonatu dutenak ezin dituk nire aurrean aipatu. Horixe duk arau bakarra.

Sekula entzun gabeko talde batek fitxatu ninduen: Necaxa.

Guk Puebla ezagutzen genuen Emilio Butragueñori esker (Goena jaunak okerra zuzendu zidan: Buitrek Celayan jokatu zuen Michelekin batera; Pep Guardiolak Doradosen; eta Bakerok Tiburones Rojosen).

Necaxak, aldeak alde, Athleticen antza zuen: elastiko zurigorria, garai hobeak ezagutua eta identitatearen auzia puri-purian. Goena jauna, mimesian itsu, Necaxaren zale amorratua zen. Ezagutu ez zituen sorrera eta urrezko aroa maite zituen.

- Frasser izeneko ingeniari ingeles batek sortu zian 1923an. Urte batzuk geroago gizona hiltzen ditek eta oinordekoek, futbol zaleak ez direnez, taldea desegitea erabakitzen ditek. Mexikoko Argiketarien Sindikatuaren esku gelditzen duk azkenean. Liga Txikia jokatu behar ditek urte askoan. 1971n afera larriago bat zagok: zorreirei aurre egin ezinik, zuzendaritzako kideek en-

presari espainiar batzuei saltzen zietek kluba. Toros del Atlético Español bihurtzen duk Necaxa. 1982an izena berreskuratu dik, baina dagoeneko zale askok atzea eman ziotek.

Pendejada hutsa bazeritzon ere, Athletic beste maite zuen. Fidel Castrok berak erosi izan balu, sama urratu arte animatuko zukeen Necaxa. Athleticek egunen batean atzerritarrak fitxatzen baldin bazituen, presidenteari Browning batego kanoia hesteetaraino sartu, bertan desarra egin eta ondoren txaloa joko zien errusiar, mexikar, argentinar, kroaziar eta espainiar iritsi berriei. Argi zuen: han-hemen zebiltzan zuzendari ustelak gorabehera, taldearekin bat hil arte. Areago erabaki makur batek ataka estuan jarri zuenetik: uztailean, ni heldu eta hilabete bira, Aguascalientes hirira mudatu ginen, DFTik 500 kilometrora. Niri neuri Goena jaunak aurreratu zidan fitxatu orduko:

- Sasikumeok beste egoitza batera aldatuko dituk laster. Imajina ezak Bilbo utzi eta Cuenca-ra doala Athletic. Nola erantzungo luke jendeak? Hiria erre, Neronek lez! Luze gabe Aguascalientesko Victoria zelaian egingo duzue debuta.

Berehala ohitu nintzen. Galtzontzilo zikinak erantzi eta garbiak janzteak bezalakoxea izan zen. Hilaren amaieran jokatu nuen estreinakoz zaleen aurrean. Asko DFTik etorriak. Komando Zurigorrikoak kantetan ibili ziren hasi eta buka. Ahazteko moduko partida jokatu nuen.

Hurrengo hiruretan igualtsu aritu eta kontra jarri zitzaizkidan Necaxazaleak. Halako batean, estadiotik irteten ari nintzela, gazte batek agiraka egin zidan aurpegi betean:

- *Pinche looser*, zer haiz ba!

Telebista-kamera batek grabatu zuen eszena, tamalez. Hurrengo astean harrika hartu ninduten Santoseko harmailetan: *Looser, looser, looser!* Baloia ikusi ere ez nuen egin. Entrenatzaileak, haserre, Takanashi atera zuen nire ordean bigarren zatian.

Hasierako hamaikakora bueltatuko banintzen, gibela eta bihotza jan beharko nizkion japoniarren entrenamenduetan. Baina kontua ez zen horren erraza. Takanashi beteranoa sinetsirik zegoen goizago edo berantago bihotzekoak eman-go ziola berdegunean. Konplikazio kardiako la-

ria zuen: balbula aortikoak ez zion behar bezala funtzionatzen.

Hamaika urte lehenago, Yokowaga Denkin urte batzuk eman ostean, Holandako Utrecht jokatu zuen Takak. Garai hartan, tantaka bazen ere, Europara hurreratzen hasiak ziren Asiako futbolariak. Italiako Catanian eta Ingalaterrako Crystal Palacen ere jardun zuen. Jokatu, gutxi. Bihotz-gaixotasunak behin eta berriro aldenarazi zuen futbol-zelaietatik. Mexikoko aukera sortu zitzaionean, berriz, onera egin zuen nabarmen. Liga ez zen lar gogorra. Altuera, gainera, ezin hobeto zetorkion osasun makalari.

- Zerutik gertuago nagok hemen.

Ez nintzaion kontrakarrean hasi. Kideei ere ez nien deus galdetu. Dftik ospa egin baino lehen konturatua nintzen: inor ere ez zegoen Takarekin arduraturik. Harrigarria bazirudien ere, ikusezina zen klubeko jokalaririk ikusgarriena. Entrenamenduren batera azaldu izan ez balitz, ez zioketen erreparatuko. Errua, hala ere, ez zen soilik mespretxua erakusten ziotenena. Takak berak ez zuen ahaleginik egiten onartua izateko. Bere

oskol barruan bizi zen, kanpoan gertatzen zena-ri ezaxola.

Klubean garbi zeukaten: heldu berriak, nik alegia, japoniarrarekin partekatuko zuen hoteleko logela. Lehendabiziko partida bietan Takak ez zidan hitzik egin. Gelan bakarrik balego bezala portatu zen, halako *hikikomori* bat Queretaroko eta Guadalajarako hoteletan. Pachucaren aurka-koaren bezperan, ordea, zer edo zer aldatu zen. Taka kontu-kontari hasi zitzaidan:

- Utrecht ez duk hiri bat. Zoroz lepo dagoen etxe kalamastra duk. Itoginak ditik nonahi. Zuloak estaltzeak ez dik ezertarako balio.

Hasieran ez nion tutik ere ulertu. Kontatu ahala, kostata, zerbait bai. Takak hitz eta pitz jardun zuen goizaldeko laurak arte Holandako hiriari buruz.

Hurrengo partidari Siziliako egunak ekarri zituen Monterreyko hoteleko logelara:

- Kartzelan bederatzi urte eman zituen *tifoso* bat ezagutu nian. Lagun mordoa zeukaan Mar-seillako mafian.

Eta DFko partidari Londreskoak:

- Han ez zagok ez itsasorik ez mendirik. Itoko ez bahaiz, dokumentalak ikusi behar dituk Londresen.

Utrecht, Catania, Londres. Hiru konpartimentu hermetiko bete bizipen zeuzkan Takak. Baina logelan bakarrik solastatzen zen. Aldagelan, berdegunean, hegazkinean edo autobusean nekez aterako nion monosilaborik. Hobe, ez bainuen gura harekin hitz egiten inork ikusterik. Loak hartu arte entzuten nion. Lokartzea ez zen nekearen edo asperraren seinalea, ase eta bete egotearena baizik. Egun haietan ase izateko behar handia nuen. Bakarrik sentitzen nintzen. Zorionez, Takarekin sano gustura nenbilen. Haren istorioek bizitza propioa hartzen zuten berbetan hasi orduko.

Egun batean, ez dakit zer gertatu zitzaion, Takak aitortpena egin zidan:

- Hasierako hamaikakoan ikusi nahi haut berriro, Langarita.

Normaltzat hartu nuen, adiskide batek besteari esango liokeena.

- Ez didak ulertu. Nire ordeztan nahi haut hamaikakoan. Hi nire ordeztan.

Ezustean harrapatu ninduen. Sasoi hartan ez nuen berriz jokatzeko itxaropenik. Entrenatzai-leak bigarren zatian kendu ohi zuen Taka eta, ni barik, edonor ateratzen zuen; begiratu ere ez zidan egiten. Zelairatutako jokalariairen ezaugarrien arabera berrantolatzen zuen taldea, aldatetaren helburu bakarra probatzea balitz bezala joka zezakeela *pinche looser* madarikatua gabe. Nik ez nuen amore ematen, gogor entrenatzen nintzen, asterik aste indarrak ahitu zitzaizkidan arte.

Gero eta erosoago nengoen ordezkoen aulkian. Non zauden jakiteak egoeraren jabe bihurtzen zaitu.

- Lapurtu diadan postua berreskuratu behar duk -esan zidan.

- Postua ez duk inorena. Hik ez duk ezer lapurtu -esan nion.

Eta izatekotan harena zen. Neuk kendu bainion hark niri kendu baino lehenago.

Hausnarrean murgildu nintzen. Bazitekeen Takak ikusezina bihurtu nahi izatea. Hala bazen, erraturik zebilen: klubean ez zuen inork ikusten, egunkariek ez zuten haren izena aipatzen eta ez

zegoen zaleen oihuetan. Kontuak kontu, Takak hasierako hamaikakotik kanpo geratu gura zuen. Nik neuk, asmoa gauzatzeko aukerak aztertu aurretik, arrazoia jakin behar nuen. Asmoari burugabe ez baneritzon ere, ohikoa zenik ezin esan. Baziren kasuak non jokalaria, karreraren hondarrean, aulkiaren babesa (are diskotekako geriza) nahiago izaten baitzuen. Ez zirudien, baina, Takaren kasua zenik. Taka ez zen Romario da Souza.

- Mexiko ezinezkoa duk, Langarita. Holandarra, italiarra eta ingelesa nauk. Sekula ezingo nauk mexikar bihurtu. Saiatu nauk, bene-benetan, baina ezinezkoa duk.

Mexikotik ihes egitearekin amesten zuen.

- Hire fitxaketaren berri izan orduko ikusian tunel hondoan argia. Hik jokatuz gero, baja emango zidatean denboraldi bukaeran. Kontratuaren finitzeak *lakio mexikarretik* askatuko nindian.

Orduan ez zekien ezer nire joko-mailari buruz. Baten bati entzun zion DF_n konpondu zutela (Goena jaunaz ari ote zen?), ez ei nuen neurria ematen, zurrumurruak. Tamalez, gauzak ho-

betu beharrean, okerrera ekartzen lagundu nuen... laugarren partidan *pinche looser* esaten hasi zitzaizkidan.

- Zaleak hire kontra egonda, ez nian zer eginik. Begitan hartu hindudan. Gorroto itzela. Baina ez nindian etsiak hartu.

Takak nigana hurbiltzea erabaki zuen. Biluztu egin zuen bere burua nik hobeto ezagutzeko eta, bide batez, nahi zuen tokira ni eroan ahal izateko.

- Bion hobe beharrez erabiliko haut -abisatu zidan-. Hi berriz jokutzen hasiko haiz eta nik akabua emango zioat *lakio mexikar* itogarri honi behin betiko.

Zer erantzun jakin gabe geratu nintzen. Burua eta ahoa ez dira batera joaten, are gutxiago hark *collage* baten itxura hartu badu. Collagearen lehen zatia, hauxe: ezinezkoa zen niri halakorik gertatzea. Bigarrena: zer egiten nuen gela hartan. Hirugarrena: ez zegoen ihesbiderik. Laugarrena: beharbada uste baino lehenago atera nintekeen labirintotik. Bosgarrena: ni ere lakio mexikarrean harrapaturik nengoen (Europako japoniar bilakatu nahi ote nuen?).

Berriro zaleen begiradapean geratzea arriskutsua zen. Takaren desagerpenak nire agerpena ekarrita ere (eta hura ez zen batere ziurra), argi zegoen ez nintzela goizetik gauera jokalaria ona bihurtuko, ez niola galtzaile arrunt bat izateari bat-batean utziko. Balizko itzulerak ez zuen nire joko-maila zertan hobetu.

Takak hiru puntuko plan bat zeukan, ordea.

Lehena, nigana hurbiltzea, burutua zuen. Zaleak kontra nituen atzerritarra izateak izugarri erraztu zion lana.

Bigarrena, antzezpena. Karrera osoko partidarik txarrenak jokatuko zituen aurrerantzean. Eta halaxe jazo zen bion arteko solasaldiaren osteko lehen norgehiagokan. Nik beste inork ez zion erreparatu nahitara egindako trakeskeria andanari. Ezinegonak hartu ninduen. Aulkia ez zen jada toki segurua. Hurrengo astean errepikatu egin baitzuen. *Keria* bilduma zabala zelairatu zuen atzera: nagikeria alferkeria axolagabekeria utzikeria. Zaleek irainka hartu zuten. Entrenatzaileak, baina, beste aukera bat eman nahi izan zion. Kritikak kritika, tematu egin zen Tuxtlan. Ordainean, Takak negar egiteko moduko partida

jokatu zuen. Nik izugarri sufritu nuen. Ez Takagatik, noski. Aulkiaren beroa galtzear nengoelako baizik. Ekinaren ekinez *lakiotik* libratzen ari zen Taka, ikusi egiten zuten, ikusezin izateari laga zion.

Eta ordurako martxan zeukan hirugarren puntua. Inoiz ez legezko gogoia erakutsi behar nuen entrenamenduetan.

- Zor didak, Langarita!

Beste gezur bat, nik ez bainion ezer zor. Eta hala eta guztiz, zerbaitek (ez dakit zerk) agindua betetzera bultzatu ninduen. Berpiztu egin nintzen!

Takaren baldarkeria taldekoei oharkabean pasatu ez zitzaenez, berehala heldu ziren ziriak:

- Txinga ezak japoniar pendejo hori! -esaten hasi zitzaizkidan.

Identitate kontu bat ez ote zen. Ez nabil arrazismoaz, japoniarren kontrakorik ez zegoen gure artean, baina hurbilagokoa ikusten ninduten ni. Askok klubetik kanpo nahi zuten Takanashi.

Nik jokoan hobera egin ez arren (egia da), hegan ninderamaten:

- Erakutsi egiok nor den orain *pinche loose-rra!*

Egunkariak ere vascoa lehenetsi zuten japoniarraren gainbeheraren aurrean. Taka aulkiko nire tokian uzten hasi zen entrenatzailea, eta gero deialdietatik at.

Denboraldi amaierako azken bultzada besterik ez zuen falta. Eta ni, berriz, duda-mudan. Jokoa ez nuen hobera egin. Eskerrak ni bakarrik ohartu nintzen. Han-hemen Langarita gora Langarita behera zebiltzan.

Aldatu ziren gauza gehiago ere. Taka jada ez zen nire gelakidea izango. Americaren aurkako partidari Garderekin ipini ninduten, erdiko atzelariarekin. Inork ez zuen Garderekin lo egin nahi. Tapoiak jarrita ere ezinezkoa zen haren zurrungak ez entzutea. Eta hori gutxi balitz, beldur zion ilunpeari. Argia isiotuta lo egiten zuen hark, eta begietarako mozorro batekin nik.

Beste toki batean biltzeko proposatu nion Takari. Hasieran ez zitzaion lar gustatu, lanetik kanpoko espazioak ezin bortxatuzkoak balira bezala.

- Zorretan hago nirekin -gogorarazi nion.

- Hori ez duk egia -erantzun zidan-, baina gezurra ere ez -eta barrez ito beharrean lehertu zen.

Haren apartamentura biltzen ginen biok. Hiru egun finkatu genituen: astelehena, holandarren eguna; asteazkena, italiarrena; eta ostirala, ingelesena. Baina Takari egiten nizkion bisitak ez ziren oharkabean pasatu. Goiz batean Guarrosek hots egin zidan. Larritu egin nintzen. Klubeko afera lohiez kargutzen zen Guarros. Garbitzaile klasikoa zen. Noraino ailega zitezkeen erakusten zien kazetariei. Mugak non zeuden jakinarazten zien barretakoei. Tolucaren aurkako partidariak Cuvasek eta Bandak (deitura asmatuak dira, ulertuko duzue) putak eroan zituzten gelara. Arazoa berez ez zen putak gelara igotzea, baizik eta jokatu aurreko gauean *Heraldoko* erredaktoreak ikustea. Ez bat ez bi Guarrosengana jo zuen kazetariak. Hura ere andrazko batekin zegoen. Muturrekoka atera zuen hoteletik *Heraldoko* salaria. Eta jokalariengana joan zen atoan. Cuvasek zabaldu zion atea. Lo-plantak egin zituzten Bandak eta biek. Neskak komunean, gordean. Guarrosek jokalariak kanpora biluzik be-

hartu eta hamar minutuko errietan eduki zituen korridorean, denok entzuteko eran.

Tira, kontua da, goiz batean Guarrosek bere-gana hots egin zidala, ikaratuta joan nintzaiola eta galdetu zidala:

- Zertan ari haiz japoarekin, marikoi hori?

- Ez gara sekulan elkarrekin oheratu.

- Bost axola niri zakiltxoan non sartzen duan, marikoi horrek! -hiruzpalau bider errepikatu zuen berba-. Ez zakiat zer egin dioan, baina enpresari japoniar batek hirekin hitz egin nahi dik.

- Enpresari batek?

- Simaur usaina hartzen diat, *pinche looser*.

Hanka sartu baduk, neronek eramango haut Espainiara arrastaka.

Takumi Ogata. Nissan enpresako goi-zuzendaria. Urteak ziren Japoniako multinazionalak Latinoamerikako fabrikarik handiena irekia zuela Aguascalientesen. Bost mila lagunek lan egiten zuten han. Ez nuen konprenitzen, zer zela-eta ingeniari batek hitz aspertu bat izan nahi zuen nirekin. Bozak goxotik larrira eta larritik goxora egin zion istant batez. Berrogeita hamar urte inguru zeuzkan. Argala baina gorpuzkera sendo-

koa. Nola arraio sartuko ote zituen bizkar zabal haiek traje estu gris ilunean? Jostun batek egingo zion propio, zuena baino itxura luzexkagoa eman zezan.

Miraz behatu zidan Takumi Ogatak. Dudarik ez, Necaxako jokalaria bat ikusi osteko erreakzio normala zen hori. Ingeniariaren begi dirdaitsuek, baina, miraz gain, beharra ere adierazten zuten. Laguntza aldarria.

Zeremoniarik gabe sartu ginen Aguascalientesko fabrikatik atera berria begitandu zitzaidan automobilean.

- Bakarrik sentitzen zara Mexikon -esan zidan.

- Bueno, bai, noizean behin -erantzun nion-, denok bezala.

- Lehengo asteko elkarrizketa batean esandako hitz batzuegatik iruditu zitzaidan.

Solas-hari horri jarraitu barik, beste batzuekin korapilatu zen: turistentzako gidari bati zegozkion komentarioak egin zituen. Gustuko zuen hiria. Ibilbide osoan esaldi arruntak eta hizpide xaloak erabili zituen. Nire galderaren baten esperoan zegoen agian. Ez nuen, ordea, murtik ere

esan. Isilik genbiltzan hirian barrena, leihatiletatik sartzen zen aireak alkandorak hanpatzen zizkigula, nora gindoazen ez nekiela.

- Iloba dut Takanashi -aitortu zidan supituki-. Hitz egin dizu inoiz nitaz?

- Ez -txundituta nengoen.

Baina ez zen harrigarria Takak hartaz ezer ez aipatua. Utrecht-Catania-Londres trinitatea bakarrik zeukan buruan. Zeharo ahaztuta zuen Japonia ere.

- Galdetu al diozu zeure buruari zergatik ari den bere azken urtean hemen? Honezkero sinesteko moduko azalpena emango zizun.

- Ez, jauna.

Hiri-kanpoaldeko auzune bateko etxaurrean geunden. Solairu bakarrekoa zen, aski zabala. Barrura sarrarazi ninduen Takumi Ogatak.

- Duela hilabete batzuk Takanashi nirekin bizi izan zen, etxe honetan bertan. Umezurtza da Takanashi. Lepoa egingo nuke hori ere ez dizula kontatu. Berdin da, ez du garrantzirik. Mexikon igarotako lehen denboraldiak alde batera, nirekin izan da hamalau urte bete zituenetik. Arrazoiak ez zaizkizu axola. Zu klubera iritsi baino

apur bat lehenago jarri zen bere kasa bizitzen. Ez da lehen aldia. Hala ere, kezkatu nago. Takanashik gaixotasun arraro samarra du, azken aldion larriago egin zaiona.

Japoniar erara apaindurik zegoen etxea. Tea edatera gomiatu ninduen. Kontuz ibili beharra neukan, Guarrosen hatsa nabari nezakeen saman. Artega sumatu ninduen Takumi Ogata. Neure buruari buruz zer edo zer kontu nezan zirikatu zidan, Bilbori buruz; itxura hutsa.

Gero aldatu egin zuen gaia: futbola. Ezin nitekeen inolaz ere *looserra* izan. Sinetsi egin nion. Ozeanoa zeharkatzeaz aritu zen lipar batez. Ez ote zen ari bere buruaz? Nolanahi zela, Emiliano ekarri zidan akordura: «Hi *fuckeatzen* ahaleginduko dituk bestaldean, Langarita. Baina lehen *rounda* hirea duk: ez zagok burgestutako *travellek*».

Takumi Ogata ez zen futbol zale porrokatua. Takanashirekin bizitzen hasi arte ez zuen sekula partidarik ikusi. Ilobaren etorrerak herra sortu zion, ez zuen jasaten horrenbeste astakilori begira bizi beharra. Partidetara joaten hasi zen lan-

tzean-lantzean fabrikako zuzendari batzuekin, eta ohitu egin zen azkenean.

- Aspaldion iruzur egiten dio errealitateari. Horixe da Takanashiren gaitz bakarra.

- Iruzurra errealitateari? Zertaz ari zara, Ogata jauna? *-lakio mexikarra* etorri zitzaidan gogora.

- Kontatuko zizun arazo larria duela arteria aortan.

- Eta ez da egia?

- Bihotzekoa barik, burukoa du gaitza.

Arrangurak menderatzen zuen Takumi Ogataren begirada.

- Propio aukeratu omen zaitu pertsonaia erakitzeko.

- Ez dizut ulertzen.

- Etxe honetatik aldendu orduko bereganatu zuen Takanashik bihotzeko gaitza duen pertsonaia. Klubera jo nuen berehala. Detektibe bat kontratatu zuten.

Guarrosi buruz ari zen, zer duda egin. Hark erabaki zuen biok gela berean jartzea kontzentrazioetan.

- Ailegatu berria, bakardadean nire iloba bezala, izaera malgukoa eta, gainera, zaleak zure kontra... Mutil jatorra dirudizu.

Guarrosen hatsak Takaren bizipen guztiak kontatzera derrigortu ninduen. Europako etapa-ko oroitzapenak azaldu nizkion Takumi Ogatari: Utrecht, Catania eta Londres, munduan besterik ez balego bezala.

- Takanashi ez da inoiz Europan izan.

- Zer esan gura duzu? Utrechten, Catanian eta Crystal Palacen jokatu du eta!

- Aditu duzu inoiz *Castillejo* sindromeaz? Nor-tasun-plagioak egitera bultzatzen duen desoreka obsesibo muturrekoa da.

- Total igualtsu geratu naiz -erantzun nion.

Takumi Ogatak denbora hartu zuen.

- Ez dakizu zer den *castillejo* bat, ezta?

Javier Castillejo boxeolari espainiarraz gomutatu nintzen. Oscar de la Hoya handiaren kontra galdu zuen mundu-titulua urte bi lehenago Las Vegasen. Noski, Takumi Ogata ez zen Castillejo hari buruz ari.

- Aldamioei esaten zaie *castillejo*. Aldamioak eraikinen itzalak dira. Dozenaka metro egin de-

zakete gora, eraikinek dituzten adina. Ikusi duzu DFko Dorre Nagusia? Aurten amaitu dute. Mexikoko altuena da. 230 metro luze izan dira *castillejoak*.

Ez nuen ulertzen noraino zihoan.

- Gaitz arraroen artean sailkatuta dago sindromea. Inoren berdina izateko borrokatzen den gero eta herritar-multzo handiago bat biltzen du. Postmodernitateko gaitz bat da.

- Argiago mintzatuko zinateke, mesedez?

- Neurosi-gaitza da *Castillejo* sindromea. Patologia horren arabera, eraikinaren ezaugarriak dituela sinesten du aldামীoak. Bere burua erai-kintzat hartzen ez badu ere, bat egiten du haren ezaugarriekin.

Unean-unean nahastuago nengoen. Taka sindrome haren pean zebilen, horraino iristen nintzen. Norbait kopiatzen ari zen, hortik aurrera ez nuen deus ere konprenitzen.

- Iraupen laburreko egiturak dira aldামীoak. Jarri eta kendu egiten dira. Ez dago denboran luze irauten duen *castillejorik*. Lantzean behin, lanak atzeratuz gero... baina besterik ez. Farmakoekin errealitatera itzularazten zaio gaixoari.

Botika hartzeari uzten dion momentuan (eta ohikoak izaten da), gaixoak aldamia muntatzen du ostera ere.

- Eta zein da Takanashiren kasua?

- Batzuetan muturreraino eroaten du, orain bezala. Bizimodu normala egiten du. Zuk zeuk ez duzu ezer arrarorik nabaritu. Harekin bakarrik ibiltzea izan liteke arrazoia.

- Zer esan gura duzu?

- Fikzio koherentea sortu du nire ilobak. Bete-bete sinetsi duzu zuk. Litekeena da beste jokalariek zorotzat hartzea. Hori da ez da-kidana. Ez dut hain urrun joan nahi izan.

Zeharo ezezaguna zitzaidan Takanashiri buruzko xehetasunak kontatu zizkidan: Diamante Beltzetan aritu zela umetan, hamazazpi urterekin fitxatu zuela Tokio Gas Football klubak.

- Mende berriarekin batera Mexikora etorri behar izan nuen Nissanen eta Renaulten arteko aliantza zuzentzera. Neurekin ekarri nuen iloba. Irapaton sartu nuen (talde ona zen urte hartan), Aguascalientestik gertu. 2002an fitxatu zuen Necaxak. Orduan mudatu zen DFra. Ni ailegatzera-ko beste jokalaria baten ezaugarriak eta bizipe-

nak egin zituen bere: Nwanko Kanu nigeriarra. Jakingo duzu nor den...

- Bai, Arsenalen jokatzeko du. Lehenago Ajaxen eta Interren.

Kanuren bihotzeko gaitz larriaz mintzatu zitzaidan Takumi Ogata, bai eta Cleavelandeko ospitalean jarritako arteria artifizialaz ere.

- Ikusten duzunez, xurgatu egin du.

Banpirizazio ekintza zirudien. *Castillejo* sindromea barik, *Bram Stoker* sindromea proposatu behar zuten.

- Eta zer gura duzue nik egitea? -bota nion barru-barrutik.

Takumi Ogatak, Necaxako presidentea eta, beharbada, entrenatzaileak berak aurretiaz adostutako kontua izan zitekeen. Guarrosek ere jakinaren gainean egon behar zuen.

- Zer gura duzue nigandik?

Takumi Ogatak ikara antzeman uste izan zuen nire bozean. Ez zen halakorik. Zegoeneko nire kabutan ari nintzen. Madarikatu egin nuen Emiliano:

- Hoa Mexikora, Langarita, neuk konponduko diat.

Gutunak

Txabi Aretxagari

2007ko irailaren 29ko gutuna

Egun haietan logelako pertsianako zirrituetarik barrandutzen nuen biluz, ezer definitu gabe. Oso aldi bakanetan kaleratzen nintzen, korrespondentzia postontzitik hartzera batez ere. 29an ezustean harrapatu ninduen Beitiak bidalitako gutunak. Baziren hiru hilabete ez nuela haren berririk. Bidaiatzen ari omen zen. Hamabi urte zeroatzen inora joan ahal izan gabe.

Hilaren 24an zigilatutako gutuna zen. Harri eta zur gelditu nintzen. Beitiak bere etxetik bertatik igorria zen. Denbora faltaz edo gogo faltaz -edo biak, edo bat ere ez-, postala kanpotik bidali beharrean, etxetik bidali nahiago. Gutunazal zuriaren barnean, ordea, ez zegoen postalik, gutun bat baizik. Sano arraroa begitandu zitzaidan. Zer edo zer idatziz komunikatu nahi ba-

zidan, etxeko postontzian uztea bazeukan. Ez alferrik bizi ginen elkarren parean, hamabost metrora.

Irakurtzen hasi nintzen. Niri gutunak bidaltzeko prest zegoen *-jarraitu* eta *berreskuratu* aditzak ere erabili zituen-. Nik ez nuen ordainean erantzuteko beharrik. Ondoren gure kaleaz aritu zen. *Ondo pentsatuz gero, zioen sarrera gisa, balkoietara azaltzen garenean gure bizitzek ikuspegi diferenteak hartzen dituzte.* Berehala etorri zitzaidan irudia burura: Beitia eta biok, nor bere balkoian kaleari beha. Funtsean arrazoi zeukan. Nire ikuspegia ez zen osoa. Kaleko aldaketek ere jardun zuen: meskita, etorkinen ugartzea -batez ere aljeriarrak eta marokoarrak-, Halal, Pasio-Irudien Museoa, Machu-Pichu. Irakurri ahala kalea gorpuztu egin zen.

2007ko irailaren 30eko gutuna

Goizean eraman nuen erantzuna postetxera. Nik ere kaleaz berba egin nion Beitiari. Hiri-manifestua prestatzen ari nintzen. Hasiera bidali nion:

Hiria indibiduoen arteko solasa da, akzioa, joan-etorria, talka. Etenik gabeko mugimendua. Hiria indar-eremua da, magnetismo-gunea, pultsio-esparrua, desio-aldea. Dena zegoen Manuel Delgadoren, baina hori ez zekien Beitiak. Azken momentuan amore eman nuen: Manuel Delgadori zor, idatzi nuen.

2007ko urriaren 7ko gutuna

Pertsiana atzeko barrandatzeek ustekabeko zentzua hartu zuten. Lehenago ere horrela aritua nintzen Beitiarekin. Aurrekoan lez, eskuz idatzitako gutuna jaso nuen, laburra, telegrafikoa aukeran. Harekin batera Delgadoren *El animal público. Hacia una antropología de los espacios urbanos* liburuaren hiru kritika zetozen.

2007ko urriaren 12ko gutuna

Moilara ematen duen kale aldatsu horietako bateko argazki bat eskaneatu eta inprimatu nuen.

Kartulina gorri batean itsatsi nuen. *Edozein oinezkoren egitekorik arruntenak poesiara hurre-ratzen gaitu*. Hori bakarrik idatzi nion, esan gabe hartan ere bazegoela Delgado; ulertuko zuen.

1999ko abuztuaren 23ko gutuna

Ez nuen akorduan Beitiarekin behin ere hitz egin izana. Ekaineko edo uztailleko bidaiari ekin aurretik -zer bestela?-, 12 urte igaro zituen kartzelan. 1995ean atxilotu zuten. Lehenago, nahiz eta kale berean bizi, nahiz eta beti balkoitik balkoira elkar agurtu, arrotzak ginen bata bestearentzat. Goiz batean izotza apurtzea erabaki nuen. Soto del Realeko presondegian zuten atxilo. Gutun bat idatzi nion. Etxera bidean, *hi baino gorago nagok* garden ahoskatzen zuen boz karrankaria entzun nuen barruan. Ez dut gogoratzen -zinez diot- erantzun ote zidan. Nik neuk hiru urte eman nituen ezer bidali gabe. Kartzelaldiko laugarren urtean, berriz, zer edo zer gertatu zen gure kalean eta beste gutun bat idaztera animatu nintzen. Eta hantxe ekin genion noizean behin

gutunak elkarri igortzeari. Berrogeita hamasei gutun zortzi urtean.

Manuel Delgadori buruzko gutunak

2007ko irailetik aurrera, bada, gutunak trukatzeko jarraitu genuen. Bata bestearengandik mila kilometrora bizi diren aspaldiko lagunak bagina bezala bidaltzen genituen. Edo Beitiak kartzelan jarraituko balu bezala. Manolo Delgadorekin inguruko materiala biltzen genuen, Wikipedian topatutako datu eskasetatik -loturak salbu- bere blogeko artikuluetara. Baita han-hemen aurkitutako elkarrizketak ere -*Noticias de Navarra, Cultura Urbana, Avui, Clarín, Gara, Solidaridad Obrera, Revista Austral de Ciencias Sociales, Minerva* eta *Tribuna Latina*-.

Ordurako amaitua nuen manifestua eta mugimendu bat sortu gura nuen: Izurde Hiria. Izenarena adostu beharrekoa zen gainerako kideekin. Izurdea hautatu izanak arrazoi batzuk zeuzkan: izurdeak animalia sozialak dira oso, haragi-

zaleak, larru-jotze laburrak dauzkate eta, hiriek bezala, ez dute lorik egiten -edo oso gutxi-.

2008ko apirilaren 29ko gutuna

Presondegi bateko erregelamendua bidali zidan Beitiak egun hartan. Ez zegoen Delgadoren arrastorik gutunean. Presoentzako arautegiarekin batera, gogorarazten zidan kartzelan zegoelarik, gutun banatan, nork bere iritzia eman zuela egungo gizartearen arau gero eta zorrotzagoei buruz. Nik ez nuen halakorik oroitzen, baina derrigorrez izan behar zuen Delgado bera -entzun diodan aldi bakarrean- Bartzelonako arautze itogarriaz mintzatu zen batean. San Joan suak izan zituen hizpide. Txikitan nonahi eta baimenik eskatu gabe pizten zituzten. Egun, berriz, sua piztea mirakulutik hurbil zegoen. Beitiak, bada, kanpoko arautze muturrekoari barrukoa gehitu nahi zion, gure balkoiek ematen zizkiguten ikuspegi diferenteekin egin bezala.

Ziegetan presoek eduki ezin zitzaizketen gauzak zerrendatzen ziren erregelamenduan.

Banan-banan, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak ezarritako debeku guztiak irakurri nituen. Lehen kolpean batzuk zeharo logikoak iruditu zitzaizkidan, hala nola egiazko armak, su-armak zein arma zuriak edukitzea. Arma gisa erabil zitezkeen gauzak ere -burdinagak, objektu zorrotzak eta ebakitzailleak, xiringak edo orratz hipodermikoak- sartzen ziren logika hartan. Egiazko armekin batera, gezurrezkoak ere ageri ziren. Presoek ezin zuten imitaziozko armarik gorde. Egia esatera, hori ere zeharo normala iruditu zitzaidan. Pentsa, bestela, zer nolako aurpegia geratuko zitzaion engainatutako kartzela-funtzionarioari egunsentian preso batek Star edo Astra batez destatzen bazuen. Zur eta lur gelditu nintzen, aldiz, irakurtzean presoek ezin zutela hartzitutako frutarik edo hartzitzen hasia zen frutarik ziegan izan. Zertarako nahiko ote zuten presoek horrelako frutarik eduki? Erantzuna ere halakoxea begitandu zitzaidan: arautegiaren bosgarren puntuan baldin bazegoen, esan nahi zuen lehenagoko ohitura zela.

Beste artikulu interesgarri batzuk ere bazeuden: presoek ezin zuten 14»koa baino telebista

handiagorik izan; 20x30 zentimetro baino gehiagoko irratirik; presondegiko bizitza lasaia hankazgora jar zezaketen txanpon, billete eta gainerako balio-objekturik; tabakoa biltzeko paperik; edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako jantzirik eta sinbolorik -zertarako gurako ote zituzten presoek?-. Era berean, ezin zezaketen arroparik eta zapatarik garbitu patioetako dutxetan. Landareak -eta animaliak- debekaturik zeuden. Azkenik, BIC eta CLIPPER markako metxerak ere galarazita zeuden. Balizko arrazoiez galdetu nion neure buruari. Erregelamenduan ageri baldin baziren, arrazoi on bana zegoen noski. Zein, ordea? Ziegan landare bat edukitzeari egoki neritzon presoaren bergizarteratzerako. Zalantza handiagoak nituen, berriz, BIC eta CLIPPER markako pizgailuekin. Presoek ez zuten ziegan metxerorik eduki behar. Su eman ahal zioten kartzelari, Hego Amerikako presondegiri ikaragarrietan behin edo behin gertatzen den bezala. Baina zer dela-eta BIC eta CLIPPER? BICera deitzeko deliberoa hartu nuen. Debekuaren berririk ba ote zeukaten galdetu nion gizon bati. Bozaren tonuagatik, adarra jotzen ari nintzaiola pentsatu

zuen. Ez dakit ezer horretaz, esan zuen hotz. Benetan hotz. Hurrena CLIPPERera hots egin nuen, Bartzelonara. Andrazko batek aitortu zidan sinesten zidala -zergatik ez zidan sinetsiko-, baina sano kontu barregarria iritzi zion.

2008ko apirilaren 6ko gutuna

Egun batzuetako dudak uxatu ostean, CLIPPER pizgailu bat erosi eta Beitiari bidali nion gutun-azal barrubigun horietako batean. Une batez otu zitzaidan itzuliko zidala, preso bat espetxez aldatu eta presondegitik gutuna itzultzen dizutenean bezala *lekuz aldatuta!!!* oharrarekin. Ez nuen nahi, inolaz ere, Beitiak pentsatzerik artean preso izaten jarraitzen zuela. Kartzelan izandakoek sarri aipatzen duten estigma hori. Beharbada Joseba Sarrionandia nuen buruan *Preso egon denaren gogo*a poeman. Hark zera idatzia zuen: *Preso egon denaren gogo*a kartzelara itzultzen da beti. *Kalean juje, fiskal eta abokatuekin gurtzatzen da eta poliziek, identifikatu ez arren, beste inori baino gehiago begiratzen diote, bere*

pausua sosegatua ez delako edo sosegatuegia ez delako. Bere bihotz barruan betirako kondenatu bat dago. Bernardo Atxagaren Zeru horiek ere etorri zitzaidan burura. Baina ezin nuen zehaztu narrazioan kartzelatik irtendakoaren gogoia ere kartzelara bueltatzen zen. Noiz irakurri nuen nik Zeru horiek?

2008ko ekainaren 17ko gutuna

Beitiak, eskerrak emateaz gain, Kropotkinen erretratu horiztatu bat bidali zidan. *Ziegan luzez gorderik eduki nuen bera*, azaldu zidan gutunean. Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiko erregelamenduaren U eta 16. artikulua -kartzelen arabera- aipatzen zituen. Konstituzioaren aurkako anagramak, pegatinak eta posterrak debekaturik zeuden. Baita sinbolo zein lelo arrazistak ziztuztenak, askatasun erlijiosoaren nahiz sexualaren kontrakoak, erakunde terroristen aldekoak zirenak edo indarkeria bultzatzen zutenak ere. Beitiak luzaro -Valdemoron eta Valladoliden- eduki zuen Kropotkinen argazkia ziegan. Nadar

argazkilari frantziarrak ateratako haren kopia zen. Lantzean behin presondegi-funtzionario batek galdetzen zion erretratuko gizon bizardunaz. Piotr Alekseievitx Kropotkin, noblezia errusiarreko anarkista, Beitiak erantzun. Egun batean funtzionario batek argazkia kendu zion. Kropotkinen gainean ikertzen ibilia zen. Bonbak jartzen zituen putaseme hutsa zen Kropotkin hura. Beitiak *enpin* erantzun zion, erratuta zegoen -ez zion erratuta zegoenik leporatu-. Eta U-kartzela hartan U- artikulua ezarri zioten. Agur anarkista unibertsalari, Deustuko Unibertsitateko Soziologia fakultatean ere ikasgai arrunta zena. Aste batzuk geroago, Beitiak Bakuninen argazki bat eskatu zion lagun bati gutun bidez. Jakina denez, haurrek erre kara harriak bota lez zartatzen zituen bonbak Bakuninek. Edozeinek daki hori. Funtzionarioak, berriz, ez zion ezer aurpegiratu. Ez zen Kropotkin errukigabea. Gutunaren amaieran, *Bakunin ziegako horma batean zegoen bitartean*, zioen Beitiak, *beste Kropotkin batek, aurrekoa baino txikerragoak -BIC edo CLIPPER bat bestekoa-*, *ziegako zoko-moko guztiak ezagutu zituen miaketa saihesteko. Batzue-*

tan liburu artean edo ohatze azpian bizi izan zen; beste batzuetan, jakako poltsiko batean edo Bakuninen argazkiaren atzean.

Kropotkini buruzko gutunak

Ekainetik abendura. Kropotkinen kaiera hasi genuen, Delgado erabat ahaztuta. Trukaketan aurrera egin ahala, beste izen historiko batzuk ere ekarri genituen. Zeharka beti ere. Luze gabe literaturara egin genuen salto. William Goldwin batez ere. Henry D. Thoreau, Benjamin Tucker, Allen Ginsberg, Tolstoi bera. Aldous Huxley. Ibsen. Ciberpunka. Galtzen hasiak ginen.

2009ko maiatzaren 6ko gutuna

Postariak oharra utzi zidan buzoian. Postetxera abiatu nintzen arineketan, Santa Maria kaleko bulegora. Bonsai bat eman zidaten. Beitiak Barzelonatik bidalia. *Hemendik aurrera Aurelia Ar-*

kotxaren artikulua paperean irakurtzea botako dut faltan, zioetan.

2009ko ekainaren 21eko gutuna

Izurde Hiria proiektuaz idatzi diot Beitiari. Tama-
lez -amorrut diot-, ezerezean geratu da. Ez zait
Aurelia Arkotxaren artikulua sartzea ahaztu.
Gutuna postetxera eraman baino lehen leihotik
begiratu dut pareko etxerantz. Erasmus progra-
mako ikasleak bizi dira egun, nahiko argi dago
hori.

Zer grina izan daiteke bortitzagorik

Zerk bultzatu ninduen Palermora, batek jakin. Politeama antzokira, aldiz, gose minak. *Harrizko sagarra* taularatu behar zuen Bielorrusiako Teatro Luzea konpainiak. Urtebete lehenago estreinatua zeukan Vitsebsk-en, agerpen klandestino batean. Hurrengo hilabetean Minsken ausartu zen Aliksandr Lukaxenkaren gobernuak ezarritako debekuari kontu egin gabe. Ordurako taldeak arrakasta bildua zuen Europako eszena alternatiboan.

Antzokiaren kanpoaldean zoriondu nituen aktoreak, *Cuadriga dell' Apollo* brontzezko goi-erliebearen azpian. Teatro Luzeko kide bat, goitizenez ere Apolo geroago jakin nuenez, hizketan hasi zitzaidan gazteleraz. Metro eta erdi eskaseko gizona zen, aurpegi zurbilekoa, erkina oso. Zangoak eta besoak sano ahulak zituen. Baina batez ere begirada larriak, min ematerainoko trasteak, deitu zidan arreta. Ez genuen luze

berba egin. Hitz truke laburrean, ezin definituzko harrotasun falta batez, aitona baten berri eman zidan. Sortzez sopuertarra, haurretan Ukrainara erbesteratua. Eta bertantxe, beste Apoloren zaldien maiestateaz nahasturik, eten zen gure solasa.

Gauean ez nuen begirik bildu. Apoloren aurpegi hitsa eta begi ikaratiak agertu zitzaizkidan ilunpe sargoritsuan.

Biharamunean, eguerdi aldera, Kaputxinoen Katakombetara abiatu nintzen. Bisitari ugari gindoazen herioaren arte-galeria hartara miaka. Bero sapa ustela egiten zuen. Apolo bistaratu nuen ustekabean, katakombetako sarrera ondo-ko banku batean eserita. Haren parera iritsi nintzenean, kopetako izerdia xukatu zuen zapi zuri batez.

? Barrura sartzen garenean izerditzeari utziko diot ?agurtu ninduen irri samin batez.

Ez dut akorduan nola, heriotzari buruz hasi zitzaidan:

? Katakombak hibernazio-guneak dira. Hemen bizitzak bere zentzu erabatekoa hartzen du, fisi-

koa zein espirituala. Infiniturainoko luzamendua da.

Katakonbetan momifikatutako makina bat gizon-emakume eta haur azaldu zitzaizkigun lerro-lerro. Zutik zeuden asko, soka banaz hormetan estekaturik, burua makurtuta zeukatela, bisitari beldurtuari agur edo erreberentzia aieru bat egin nahi baliote bezala. Gehienek pildak zeramatzen soinean. Hormetako gainaldean ere bazegoen mordera, gakoetatik zintzilik batzuk eta ohatze bihurtutako zuloetan etzanda besteak. Epaileak, irakasleak, sendagileak eta militarrek zeuden ?Napoleonen garaiko jantzi eta guzti?, zein baino zein izugarriagoak, beso bakoak asko, begirik gabe denak.

? Min akigarria pairatu behar izan zuten bizitzan ?esan zuen Apolok.

Korridoreetan barrena genbiltzan. Haur momifikatu baten aurrean gelditu ginen.

? Den-denek, neskato honek izan ezik.

Arretaz behatu nion haurrari, Apolo zertaz ari zitzaidan ulertu nahian.

? Laurogeita bederatzi urteko momia honek, hilik barik, lozorroan dirudi, lo goxo batean, sufri-

tzeko astirik izan ez zuelako seinale. Hazpegien narean da nabaria, ile nahasia eta orraztu gabea gorabehera.

Ez nintzaion kontrakarrean hasi. Egiatan ematen zuen lokartuta zegoela umea.

Rosalia Lombardo deitzen zen. Urte bi zituela momifikatu zuen doktore batek 1920an. Paper batean irakurri genuenaren arabera, monje kaputxinoek mende batzuk lehenago ekin zioten ordenako kideen gorpuak momifikatzeari, kasik oharkabean, lurraren idortasuna eta haize-lasterrek baliatuta, teknikak hobetuz denboraren poderioz. Hilketxarik gabe lurperatzen zituzten gorpuak, galerietan propio prestatutako horma-hilobietan, artseniko-geruza edo kare-bainu batez, denbora luzeagoz iraunarazte aldera.

Aitzina jarraitu genuen mia eta mia. Ikaragarria zen Apoloren eta momien arteko gertutasuna. Baten begirada urrikaria eta besteen behako galdua. Baten begi iheskorrak eta besteen zuloak. Elkar agurtzen zuten.

? Beroa bizitza baldin bada eta berorik eza heriotza ?jarraitu zuen nire burutazioei ezaxola?, idortasunak eta umeltasunak ere elkarri begira-

tzen diote existentziaren arloan. Baina maila fisikoan soilik. Barneak, kimikak leundu ezin ditzakeen beste arau batzuk dauzka. Soin hauek ?harritu ninduen soin hitza erabili izanak? ez dira betikotuko. Mina, ordea, *ad eternum* dugu behin heriotza ezagutu ondoren. Bizitza, hasi eta buka, sortu eta hil, ez da minak gainditzeko sasoia baino. Minaren entomologoak ditugu kaputxinoak.

Lipar batez hesi-lasterketa baten gisa irudikatu nuen bizitza. Zaldiak jausten eta zutuntzen Grand Nationalen.

Ez genuen berehala hanka egin Kaputxinoen Monasteriotik. Kanposantura sartu ginen, bizien eta joandakoen artean mugitzen dakienaren soseguz. Harrizko panteoi eta hilobi handien artean paseatu ginen burumakur, hala jardutera derrigorturik bagina bezala. Bat-batean Apolok begietara behatu zidan, katakonbetan Rosalia Lombardo haurrari behatu nion begirada bertsuaz. Modu hartan begiratzen zidan aurreneko aldia zen. Nik ezer galdetu baino lehen, idazle siziliar baten gogoeta beltza ezarri zuen aire itogarrian:

? Zer grina izan daiteke bortitzagorik, zintzilik duzun heriotzaren sentimendua baino?

Hausnarrean geratu nintzen hitzen esanahia-ri buruz, zeri eta Lampedusaren hilobiari begira.

Berriro abiatu nintzenerako desagertua zen bielorrusiarra. Panteoien eta hilobien artean bilatu arren, ez nuen haren arrastorik aurkitu. Aurretiaz zapal dutako lur-azpiak berak irentsi balu legez. Katakombetako sarrerara bueltatu nintzen. Ez zen han.

Iluntzean, Kaputxinoen Monasterioan lehena-go agertu eta geroago desagertu bezala, atzera azaldu zitzaidan Apolo. Gau-merkatu batean. Lepo zegoen tokia. Gaueko iluntasunean usain hordigarriek bahiturik zituzten goizeko kolore bi-ziak. Ilargia aise barruratzen zen hiriko zirritu zaharretatik.

? Hark ere ikaragarri erakartzen gaitu ?komentatu zuen?. Ilargiari zor diot goitizena. 1969ko uztailaren 20an jaio nintzen, Apolo XI espazio-ontzia ilargira heldu zen egunean. Abenturaren omenez bataiatu nuen neure burua denbora luzeaz dela.

Aurpegieran barre-zantzurik agertu beharrean, tristezia sakon bat marraztu zitzaion Apolori, min sendaezin bat, halako ezagupen dramatiko bat. Bazirudien une batetik bestera barneizatearen amildegitik salto egingo zuela. Ulerkor begiratu nion. Ilargiak besteko erakarpena sortzen zuen nigan ezin deszifratuzko min hark.

Luze promenatu ginen postuz postu, saltzailleek eskainitako arrain frijitu berriei kasu eman gabe. Eta halako batean, kaputxinoen kanposantuan gertatu legez, jendartean galdu zen Apolo. Gauak ?edo ilargiak? xurgatu egin zuen.

Larriturik, neure buruari galdetu nion desagertu eta agertu haiek guztiak ez ote ziren indar zentripeto batek sortutako ilusioak besterik. Seguru nengoen ez nuela berriro ikusiko. Ez zen horrela gertatu. Azken egunean pare bat bider topo egin genuen elkarrekin, larritzea areagotuz.

Bilbora bueltatzeaz bat sentipena ahuldu egin zen, egunak joan egunak etorri bielorrusiarra gogotik zeharo aldendu ez bazitzaidan ere. Ekain amaieran, Portugalera eginiko bidaia labur batean, berriro piztu zen.

Alentejo eskualde zabalean barrena nenbilen, eta Evorara zuzendu nintzen. Bisitatu eta ezagutu beharra zegoen erromatarren garaiko hiria. Sao Francisco elizako *A Capela dos Ossos* izeneko kaperara sartu nintzen. Sarreran hezurrak ezin argiago mintzatu zitzaizkidan: *Nós ossos que aqui estamos pelos vossos esperamos*. Berba gordinek eta barruko freskurak Palermoko egunetara eramanez ninduten. Hezurrek behin betiko penitentzia iradokitzen zuten. Ezker-eskuin behatu nuen, ez ote zen Apolo handik ibiliko.

Ez nuen Apolo Politeama antzokian ezagutu. Ez nintzen harekin Kaputxinoen Katakombetara murgildu. Ez zidan Rosalia Lombardo ume momifikatua erakutsi. Ez zen Lampedusaren hilobiari begira nengoela desagertu. Ez nintzen harekin Palermoko kale-merkatuetan ibili. Ez naiz egundo Evoran izan.

Teatro Luzea konpainia Bilbora etortzekoa zela irakurri nuen egunkari bateko elkarrizketan. Bielorrusiako zentsura zuten hizpide. Errazago

zeukaten kanpoan jardutea euren herrian baino. Kideetako batek, Apolok, jatorri euskalduna zuela zioen. Argala eta begirada galdukoa. Aurrez Palermon Kaputxinoen Katakombetan ikusiriko momiak ekarri zizkidan akordura. Pertsonaia egokia iruditu zitzaidan ipuin bat idazteko.

Bilboko lehen saioaren egunean banekien, Interneti esker, Teatro Luzeari buruz jakin zitekeen guztia, hala taldearen web gunean behin eta berriro sartuta nola Google bilatzaileak eskaintzen zituen arrasto urriei jarraiki. Kazeta guztietan nabarmentzen zuten Tom Stoppardek, Harold Pinterrek eta Mick Jaggerrek taldea babesten zutela.

Teatro Luzeak emanaldi bi eskaini behar zituen egun banatan. Lehen egunean, iluntzean, ordubete lehenago heldu nintzen antzoki txikira, Apolo atean, auskalo zertan, ikusiko nuelako esperantzan. Eszenatokira irten arte, ordea, ez zen halakorik gertatu. Soinean galtza maiztuak soilik zituen. *The Lord of the Rings* filmean hamaika bider ikusi dudana Smeagol izaki errukarriaren antza zeukan. Eta, Smeagolek lez, barne-min osaezin batek joa zirudien. Negarrak, bihurritze-

keinada muturrekoak eta, batez ere, izerdi-jario geldiezinak eragin zidaten katarsia.

Emanaldia amaitu ostean izango zen topaketa eduki nuen buruan denbora osoan: zeintzuk izango ziren gure lehen hitzak, zeri buruz solastatuko ginen, aukera izango ote genuen elkarrekin afaltzeko. Berari buruz idatzitako ipuina konstatuko ote nion.

Antzezlanak bukatu eta ordubetera abordatu nuen elizako kanpoaldean. Apolok irriño goibel bat marraztu zuen. Egunkariko argazkian baino itxura kezkarriagoa zeukan ?beharbada nire ipuinean baino gehiago?. Abaildurik zirudien, zurbilagoa, txikerragoturik; gogogabeturik, indarge. Histura sakonago baten mendean, akaso. Antzezlanaren karga, beharbada.

Espero ez nuen zerbait bota zuen:

? Emanaldiak iraun duen bitartean, sano urduri nabaritu zaitut jesarlekuan, bihurrituta saxofoi baten moduan.

Taxi bat geldiarazi zuen Abandon. Udazkeneko gaugiro ederra zegoen, ibiltzeko egokia. Kallean, hala ere, inor gutxi.

? Hamar urte zituela? kontatu zidan Santurtziraingo bidaia laburrean? bidali zuten aitona *Habana* ontzian anaia gazteago birekin. 1937ko udaren atarian. Euria ari zuela entzun dut makina bat bider. Eskifaia beldur zen matxinatuen gerraontzi batek ez ote zuen hondora bidaliko. Bordelera heldu ziren. Handik Leningradera eramantzen zituen beste ontzi batek. Heltzeaz bat sakabanatu egin zituzten. Gure aitona Odessara joan zen hasieran, Haur Etxe batera, bere anaiekin eta beste haur batzuekin. Handik hiru urtera Saratoven zebilen, Volga ibaiaren ondoko hiri batean, arma-fabriketan beharrean. Minskera ezkondu zen. Eta ez zen sekula itzuli.

Itsasadar ondoko kale batean utzi gintuen taxiak. Hurbileko moila baterantz abiatu ginen. Bilbon ez bezala, gurma zarratu batek lausotzen zuen dena.

? Atzo ere etorri nintzen. Zalantzak nituen. Orain argi daukat aitona ez dagoela moila honetan.

Itsasoari beha gelditu zen Apolo, Abra ilunetik haraindi nik bereizi ezin nezakeen zer edo zer ikusiko balu bezala. Zer, ordea? Gurma trinkoak

belztasun amaigabea irudikatzea ere eragozten zuen.

Moila ingurura bota nuen bistadizoa. Hamar metrora ere ez zen deus ikusten. Ordu hartan ez zebilen inor portuan, baina inor ibili balitz ere, ez ginatekeen konturatuko.

Itsasotik begiak alderatu gabe, Apolok bere berben zentzua argitu zuen:

? Bukaera zein hasiera adieraz lezake moila honek. Atzo, gaurko ordu berean bertaratu nintzenez, ez nuen ezer sumatu. Hemen inoiz ezer egon bazen, ez dago egun. Baina sinetsita nago hutsak nirekin duela zer ikustekoa, ez tokiarekin berarekin. Toki honek, atzo baino lehenago, ez dit sekula zirrara berezirik sortu.

Amarraleku batean eseri nintzen. Apolo, berriez, lanbro lodira zuzendu zen. Urrutiratu ahala, ulergaitzagoak egin zitzaizkidan haren hitzak. Berehala ostendu zen gortina umelaren gibelean. Begien bistatik galdu nuen. Zain gelditu nintzen pixka batean. Desagertua zen, nire ipuinean Palermon gertatu bezala.

Zerura jaso nituen begiak, ilargia agertuko ote zen. Hura ere irentsia zeukan gurmak.

Ez zen luze joan bielorrusiarra bueltatu arte. Berbetan zerraien, nirekin baino areago bere buruarekin:

? Zer grina izan daiteke bortitzagorik, zintzilik duzun heriotzaren sentimendua baino?

Harri eta zur gelditu nintzen. Apolo pertsonaiak kaputxinoen monasterioan, Lampedusaren hilobiari begira nenbilela, ekarritako gogoeta bera. Hitzez hitz. Duda egin nuen. Beharbada *déjà vu* hutsa baino ez zen. Orrietara bueltatu beharko nuen.

? Zuri ere barrenak bihurritu dizkizu Lampedusaren aipuak? ?galdetu nion esaldi misterio-tsuaekin kezkaturik.

Apolok zuzendu egin zidan okerra:

? Lampedusa? Gesualdo Bufalino. Siziliarra, hura bezala.

Ez nengoen kontrakoari eusteko egokieran. Gainera, esanahia nuen zain.

? Zer dela-eta heriotzaren sentimendua?

Une hartan galdetu izan balidate, lepoa jokatuko nukeen Apolo gerraz, erbesteratzeaz edo moilaz arituko zitzaidala. Baina bere jaioterrian gertaturiko hilketa bat aipatu zuen:

? 2003ko maiatzaren 16an Zinaida Kotiuga izeneko emakume bat hil zuten Minskeko kale-bazter batean. 36 urte zeuzkan. Svislatx ibaiaren ondoan bizi zen, auzo zaharrean.

Melankolia ukitu batez ebaki zituen Apolok *auzo zaharra* hitzak.

? Bere tabernan lan-eguna bukatu ondoren etxeratu zen. Pisu ondoko aparkalekura gidatu zuen autoa. Kotiugak itzal bat sumatu zuen. Nor edo nor zelatan. Metro batzuetara zegoen telefono-kabinarantz egin zuen. Ez zen heldu. Gizon batek labanaz sastakatu zuen bizkarrean eta, lurrera jausi orduko, sabelaldean. Odoletan, garra-sika hasi zen Kotiuga. Inguruko etxeetako argi ugari piztu ziren berehala. Erasotzaileak, Vasil Gurenkok, ikusi egin zituen. Leiho batetik oihu bat iritsi zitzaion: «Utzi bakean neska hori!». Oihu bakarra, besterik ez.

? Esan nahi duzu inork ez zuela ezer egin?

? Lehen labankada bien ondoren ?abante egin zuen Apolok?, Gurenko urrundu egin zen pixka bat. Kotiuga, bitartean, janari-denda batera tatarrez ailegatu eta zerraldo jausi zen. Apartamentuetako argi gehienak itzalita zeuden. Ka-

lean isila zen nagusi. Lasaitasuna lagun, lana finitzera bueltatu zen Gurenko. Jantziak odolez blai zituela topatu zuen Kotiuga. Denborarik galdu gabe hasi zen berriro sastakatzen, ezta-rrian eta aluan oraingo honetan. Emakumeak oihu ito batzuk jaulki zituen. Apartamentu askotako argiak piztu ziren atzera. Gurenko aldendu egin zen osterara ere. Kotiugak bere etxebizitzako atariraino heltzea lortu zuen arrastaka. Oihu itoek aiene batzuei leku egin zieten. Gurenko, bidea libre zuela ikusirik, bigarrenez itzuli zen. Kotiugaren gona altxatu, barne-arropak urratu eta, hilik ala bizirik zegoen jakin gabe, lehendik ezagutzen ez zuen tabernariaren gainean etzan eta hazia bota zuen. Ospa egin aurretik, aldean zeroan dirua kendu zion.

Aitona bezala, Apolo ere ez zegoen moilan. Urrun zuen gogoia une hartan. Minskera bihurtua zen, Zinaida Kotiugaren ondora.

Ez zuen luze jo detaile berriak zehazterako. Taxi bila genbiltzan.

? Gurenkok 03:15etik 03:50era burutu zuen hilketa. Lekuko ugarik ikusi zuten. Garrasi lazgarriak aditu zituzten. Hiru erasoetan piztutako eta

amatatutako argiak horren erakusgarri dira. Baina ez zuten ezertxo ere egin. Lehendabiziko erasoan, argiez gain, auzokide batek bakean uzteko eskatu zion Gurenkori. Ondoren argia amatatu zuen. Bigarrenean ere piztu zituzten argiak. Hirugarrenaren ostean, beste auzokide batek Poliziari deitu zion. Kotiuga ospitalerako bidean hil zen. Hasiera batean hilketak ez zuen hautsik harrotu. Handik lasterrera, baina, Sergei Usov izeneko kazetari batek deskubritu zuen auzokide askok ikusi zutela. Ikertzen hasi zen. Usovek ondorioztatu zuen 43 lekuko izan zirela osotara, zein baino zein axolagabeagoak. Izutu egin zen. Zerk atxiki ote zituen ezer ez egitera? Telefono-dei bat egitea bazuten euren bizitzak arriskuan jarri gabe. Ez zuten halakorik egin, ordea. Inork ez zuen emakumearen bizitza salbatzeko ahalegin mendreena egin. Zergatik? Zerk eragin ote zuen axolagabekeria? Usoven haritik tira egin zuten psikologia-aditu batzuek. *Kotiuga Syndrome* deitu zioten. Dirudienez, argi gutxiago piztu izan balira, askoz errazago gertatuko zatekeen inplikazioa.

Bekozkoa jarri nuen nora zihoan ulertu ezinik.

? Norbere etxean argia piztu zuenak, itzal bi edo pertsona bi ez ezik, beste argiak ere ikusi zituen. Are gehiago, argiak ikusi zituen batez ere. Auzokoek elkar ezagutzen zuten. Hayeva andereak bazekien Franak Vetxorka bizi zela bere parran. Leonid Martinov doktorea Aksana Stahurskayaren leihora beha zegoen argia piztu zenean berean. Lehen auzokideak oihu egin zutenean, beste bik ere pentsatu zuten gauza bera egitea. Haren gelako argia amatatzeaz bat, eurek ere beste horrenbeste egin zuten. Orduerdiz zain egon ziren denak, besteek zer egingo. Eta Zinaida Kotiuga gero eta lausoagoa bilakatu zitzaien.

Bilbon ginen. Hoteleko kafetegian trago bat hartzera gomitatu nuen. Apolok ez zuen onartu. Nekatuta zegoela. Alferrik egin nuen protesta.

Hurrengo eguneko emanaldira ere joan nintzen. Adi jarraitu nuen Teatro Luzearen antzezpena. Apolok bikain jardun zuen. Aretoko atetik irteten ikusi nuenean, nigana bihurtzeko keinua egin nion. Artega nenbilen. Hiriko bodega batera? ardoaren katakonba, pentsatu nuen? gonbidatzeko asmoa neukan.

Apolo desenkusatu egin zen:

? Antolatzaileekin afaltzeko hitza emana dugu.

Eta besterik erantsi gabe, begietan artean makillajearen gorria zuelarik, aienatu egin zen, dagoeneko bera ere ikusezina balitz bezala, ikusgai izatera bueltatzeko aukerarik gabe.

Neure kabutan galdetu nuen ez ote zen ausaz halakoa eta, beraz, neu ere bai.

Bartzelona gainezka dago gaur. Hiri zital honek ere badu ahalmen zentripetoa.

Atzo lan miresgarria bilakatu zen Rambletan behera egitea. Katalunia plazatik hotelerainoko bide laburrak, turista aldrak saihestu beharrez, unatuta utzi ninduen. Gelako ohean etzan eta te-
lebista piztu nuen. Albiste baten arabera, ETAK guardia zibil bi hil zituen Mallorcan. Ezin ego-
nean eta espantu handian begiratu nion bonba lapa batek zartarazitako autoari. Keinu automa-
tiko batez amatatu nuen telebista. Handik laster-
rera lokartu nintzen.

Esnatzearekin bat akordatu nintzen hilketaz. Aparatua piztu nuen atzera ere. Lehengo kanallean Belen Estebani buruz hitz egiten ari ziren. Beste bat jarri nuen. Hartan ere Belen Esteban, arratsaldeko magazinean esku hartzen. Ahalegin bat egin nuen gogoratzeko noiz pitzatu zituen Belen Estebanek gure bizitzak.

Telebista amatatu gabe, aurreko egunetan idatzitako narrazioan jarri nituen begiak. Gehiena asmatua zen: Bilborockeko emanaldiak, gurma zarratua, Zinaida Kotiuga, Vasil Gurenko, Sergei Usov. Ez zegoen gaizki Santurtziko moilan Apolo bielorrusiarrek kontatutakoa.

Dena ez da, ordea, ipuin hutsa.

Teatro Luzea existitzen da. Gaur ekarriko du azken lana Bartzelonara. Badira aste batzuk iragarrita ikusi nuela taldearen web guneko agendan. Aspalditik nahi nuen Bielorrusiako talde jazarria ikusi.

Apolo ere existitzen da. Bielorrusiako Teatro Luzearen zuzendaria da. Taldeko web gunean jasotako elkarrizketa batean onartzen du ilargiratzeko famatuari zor diola ezizena. Eta nire pertso-

naiak bezalaxe, jatorri euskalduneko senideak dauzka.

Azkenik, hilketaren istorioa ere benetakoa da. Baina Zinaida Kotiuga barik, Kitty Genovese da neskaren izena, eta hilketa New Yorken gertatu zen 1964ko martxoaren 13an. Sindromea, bada, *Kitty Genovese sindromea* da. Psikologian ikasi nuen.

Gaurko enkontrua Boquerian gertatu da, arratsaldean. Rambletako merkatu biziak Palermokoa ekarri dit akordura. Lehenago, eguerdia jo orduko, Bielorrusiako Teatro Luzearen konpainiaren prentsaurrekora bildu naiz. Ez zait zaila izan haren berri izatea.

Bertan ikusi dut Apolo aurreneko aldiz. Antzeztu behar duten obraz eta Bielorrusiako zentsuraz jardun du. Nire ipuinetako pertsonaiaren antza hartu diot berehala. Lehen ipuinekoarena baino gehiago bigarrenekoarena. Genoveseri eskainitako antzezlanak izateak zerikusia izan du, noski. Amaitutakoan geratu ez geratu egon naiz. Ez dut egin. Hiru edo lau kazetarik elkarrizketatu nahi zuten.

Bostak aldera Borneko kale mehar batean ikusi dut Apolo. Kasualitate hutsa izan da. Ezer esan barik, jarraitzen hasi natzaio. Apolo karrika zikinetan barrena ibili da eguzki kiskalgarriari ihesi, ustez noraezean. Behin baino gehiagotan kalezulo berera bueltatu gara. Lantzean-lantzean, jende ugari zebilenetan, Picassoren museora heltzean kasu, aurrea hartu diot. Halakoe-tan Apolok ezinikusia egin dit, edo egiatan ez nau ikusi, ez dakit. Boqueriara heltzerako, asper-turik, geldiarazi egin dut.

Palermoko alegiazko hartan bezala ibili gara merkatuko postuen artean. Batzuk itxita topatu ditugu. Nire ipuinetan bezain argal ikusten dudala esatekotan izan naiz, gaixo-itxura daukala. Bi-garren ipuinean piura espantagarria zeukan. Auskalo. Mediterraneoko usainekin hordituz pa-seatu gara, nire galderen zain Apolo ?sinetsirik kazetaria naizela?, hark zer istorio kontatuko ni. Baina ez du murtik esan. Luzaro itxaron dut.

Hotelera joan zait gogoia. Prentsaurrekoaren ostean hara bueltatu naiz, eguneko albisteak entzuteko garaiz. Atzo garbitutakoen senideak ageri dira elkar besarkaturik, negarretan eguzki-

betaurrekoen atzean. Ikaragarri kupitu naiz mal-
korik isurtzera ailegatu barik, ohean erdi etzan-
da erdi eserita, aldagailua esku batean dudala.

Telebista itzali dut. Ez da minutu bat joan,
ordea, atzera ere piztu arte. Ordurako hurrengo
albisteaz ari ziren. Beste kanal bat bilatu dut.
Esatari batek etakideen ihesaren gaineko hipote-
si bi aipatu ditu. Barne ministroak berak onartu
du ez dakiela atentatugileak irratik irten diren
edo bertan jarraitzen duten. Ministerioan hipote-
si biek in jokutzen dute. Bigarrenari begira, zer
gerta ere, kaiola-operazioa jarri dute martxan.
Telebista amatatu dut berriro. Eta piztu. Amata-
tze-pizte une laburrean Palmako hotel bateko
langile gisa irudikatu ditut etakideak. Behar-
rean ari dira une honetan, ministroaren adierazpenei
axolagabe. Zenbat diren ez dakit. Hiru. Hiru iza-
ten da batez bestekoa.

Apolok arduragabe dirudi, ez omen daki ezer
atentatuaz. Den-dena kontatuko nioke, baita
egun bi lehenago Guardia Zibilaren Burgosko
kuartelean leherrarazitako bonba-furgonetarena
ere. Ihes egiteko desioa aitatu gabe, noski.

Den-dena ezin da esan.

Isiltasun itogarri batek azpiratu gaitu.

Gauean, Apolok Montaner antzokira eroango du *Kitty Genoveseren oihuak*. Tarteka argi motelak piztu eta itzaliko dira eszenatoki ilunean. Eklipse ttipien gisa.

Jada ez dugu elkar ikusten.

Killing Txema Larrea

ARIEL URKIZA

Arrunta da hildako idazleak agertzea bizirik daudenei. Xabier Lizardi sarri azaldu zitzaion Gabriel Arestiri, bilbotarrak *Lizardi* poema argitaratu ostean. Egunez agertzen zen, Cía. Vasco Africanako bulegoetan, Zorrotzan, eta, azken hilabetee-tan, Eako etxean. Adiskide minak egin ziren denboraren poderioz.

Agerpenak funtsezkoak dira edozein idazle-ren ibilbidean. Joseba Sarrionandiari astebetetz agertu omen zitzaion Pessoa. Sarrionandia kartzelan zen *Izuen gordelekuan barrena* liburuko poemak atontzen. Pessoa hura ez zen Pessoa bera. Gorpua harena zen, baina hildakoak Rui Miranda zela esan zion, Pessoa post-mortem propio sortutako heteronimoa. Miranda proselitismo literarioaren muga-mugetan zebilen eta, dirudienez, akolito egokitzat jo zuen Sarrionandia. Edozelan ere, euskal letretan, hari bakarrik agertu ei zaio kanpoko literaturako egile bat.

2009ko otsailaren 9an, Ariel Urkiza agerpenik gabeko idazlea zen. Brendan Behan, Dylan Thomas, Charles Bukowski eta Txema Larrearen zain zegoen Urkiza. Behan idazle irlandarrarekin amesten zuen batez ere; dibertigarririk bazen, hura. Behanek, Thomasek eta Bukowskik, jakina, ez zioten inoiz kasu txikienik egingo. Larrea, ordea, beste kontu bat zen. Ondo ezagutzen zuen. Baina bazeukan arazo bat: Larrea bizirik zegoen.

Aupada bat egin zion telefonoz Larreari. Bilboko Somera kaleko Madariaga tabernan elkartu ziren. Urkizak argi eta garbi azaldu zion: «Hil egin behar duk lehenbailehen, Txema. Hil eta agertu literaturaren tunel ilunean barrena gidatzeko. Barre galantak egingo ditiagu». Zakurra- ren salara bidali zuen Larreak: «Egin otoi Krutwig handiari!». Eta hiltzeari uko egiteaz gainera, tragoa ordaintzera behartu zuen.

Egun batzuk geroago, Urkizak korreo elektronikoko bat jaso zuen. Hauxe zioen gaiak: *Ariel Pagan*. *Heriotza-oharren idazlea*. Urkiza apur bat larritu zen. Bidaltzailearen helbideari erreparatu

zion lehenik eta behin: arielpagani@scrittorimorti.org. Izen berbera eta scrittori morti.

Larrearen mendekua ote zen? Larreak ondo baino hobeto baitzekien Urkizak obituarioak idaztetik ateratzen zuela bizimodua.

Mezu elektronikoak testu laburra zekarren: *Ariel Pagani nauzu. Nekronimoa da nire izena. Eta ez litzateke batere harrigarria zurea ere hala izatea. Nik ere obituarioak idazten ditut, zuk bezala. Heriotza-oharrak 2.0 dira, hortxe dago gure etorkizuna. Oharrak 1.0 baztertzeraz animatu nahi zaitut, enmemoria.com lagatzeraz. Hilda nago. Hilda zentzu figuratu batean. Eta hilda nagoenetik obituario-idazleei agertzen natzaie. Amaieran blog baten lotura zegoen (blogs.arielpagani.org).*

Urkiza, luze gogoetatu ostean, laburrago erantzutera deliberatu zen: *Horixe uste dut nik ere, nekronimoa dela nire izena, baina ez dakit seguru.*

ARIEL PAGANIRI BURUZKO OHAR LABURRA

Ariel Paganí (Bartzelona, 1951ko uztailak 21 - Bartzelona, 2007ko azaroak 8). Obituarioen idazle bikaina. Bere ibilbide profesionalean 4.378 heriotza-ohar argitaratu zituen prentsan. *La Vanguardia Españolan* hasi zen 1970ean. *La Vanguardian* jarraitu zuen 1987ra arte. Urte hartan Juan Luis Cebrianek *El País*erako fitxatu zuen. Egunkari horretan lan egin zuen 2007ra arte.

Hil-oharren mundua azpikoz gora jarri zuen literatur obituarioak sortzean. 1974an, Oskar Schindler-en heriotzaren kariatara, kategoria bat ezarri zuen enpresari alemaniarraren izenaren ondoan: *Obituario Bidaiaria*. Hortik aurrera Paganí hamaika kategoria ekarri zituen bere obituarioetara: *Obituario Inarrosiak* (Divine, Juanma Suarez, Sid Vicious); *Obituario Estrabikoak* (Roy Orbison, Federico Fellini); *Obituario Beltzak* (Blas de Otero, Charles Mingus, Carlo Giuliani); *Obituario Sakonak* (Jacques Cousteau, Gilles Deleuze); *Obituario Tamalak* (Drazen Petrovic, Natalie Wood); *Obituario Neurrigabeak* (Jorge Luis Borges); *Obituario Desorekatuak* (Mobutu Sese Seko), eta abar. Guztira, ehun kategoria baino

gehiago, halako moduan non kategoriarik gabe-ko hil-oharrak arruntzat hartzen zituen.

Hainbat obituario daude Ariel Paganiri buruz, gehienak bere heriotza figuratuaren hurrengo egunean blogetan edo hil-egunkari digitaletan agertutakoak, hala nola rememori.com-en edo necropoli.com-en. Keinua lankideari. Bestalde, badago beste bat, arauz beste, post-mortem ez dena.

ARIEL PAGANIREN NEKRONIMOA

Heriotza-oharrez arduratu baino lehenago, bere nekronimoarekin kezkatuta ibili zen luzaro Paganiri. Sei urte zituelarik aitak esan zion harro sentitu behar zuela bere izenarekin. «Aldizkaria joan zitzaigun momentuan jaio zinen». Bartzelonako *Ariel* aldizkari literario eta artistikoaren omenez eman zion aitak bataioa. Agerkaria, Kataluniako kulturaren panorama grisari argi apur bat emateko asmoz sortu zen 1946an. Bost urte geroago itxi behar izan zuten. Carles Ribak eta Salvador Espriuk idatzi zuten aldizkarian; Joan Brossa na-

barmendu zen; Joan Miroren grabatu berriak ezagutarazi zituzten. Geroago, izena zor zien haietako askoren obituarioak erredaktatuko zituen Paganik. Batzuk ezagutzeko aukera ere izan zuen. Ezin ezkutuzko harrotasunez hitz egiten zien nekronimoari buruz. Aitak, *La Vanguardia Española*-ko linotipista, aldizkaria maketatzen eta Bartzelonako liburu-dendetara dohain banatzen kolaboratu zuen.

Paganik ez zituen beti harreman onak izan bere nekronimoarekin. Haurtzaroan karga astuna izan zen Ariel izena. Nekronimo bat zer zen ere ezin zien lehen hezkuntzako lagunei azaldu. Aukeratzekotan, gainera, beste nekronimo bat aukeratuko zukeen. Ez zuen zaila. Munduratu baino egun bat lehenago, uztailaren 20an, zendu zen Prusiako Gillermo, Inperio Alemaniarreko azken printzea. Eskolan Gille esango zioteten begirunez.

1985era arte ez zuen bere izenarekin bakea egin. Sylvia Plathen *Ariel* poema-liburu hilondokoa espainieraz kaleratu berria zuen Hiperion argitaletxeak. Jakin-minak kitzikaturik erosi zuen Paganik. Zaldi baten izena zen Ariel, Sylvia Plat-

hek ekitazio-eskolan ibiltzen zuena. Poema-liburuaren izenburua, beraz, nekronimo bati zegokion.

HIL-OHARRETARA BIDAIA

Heriotza-oharrak ez du zer ikustekorik biografia-ekin. Obituarioa sinkronikoa da. Pertsona hil osteko egunean argitaratu behar da, ahal izanez gero. Obituarioak, gizarte post kapitalistaren exigentziekin bat, azkartasuna, laburtasuna eta sotiltasuna eskatzen ditu.

Pagani amorratzen jartzen zen, ohar biografikoak erredaktatzen zituela esaten zioten bakoitzean. «Obituarioa generoa da izatez», erantzuten zuen. Egunez egunekoari begira eta neurrikoa beti. Hitz bakoitza zentzuz hautatu beharra zeukan.

Batzuetan, publizitatea gorabehera, hiru hil-ohar ere sartu behar izaten zituzten orri berean. Egunkariak agintzen zuen luzeagoak edo laburragoak egitea. Edozelan ere, mugatua zen espazioa. Baina ez Paganik ez beste edozein obi-

tuario-idazlek ez zuten trabarik ikusten espazio-
mugan. Are gehiago, Paganik harro esaten zuen
hainbat pertsona famatu hobeto agertzen zirela
bere obituario laburretan biografia arranditsue-
tan baino. Literatur kritikari batek idatzia zuen
Ariel Paganik hil-poema narratiboak idazten zi-
tuela. Eta, izan ere, uste horretan idatzi zuen li-
buru bakarra (*Hilatorraren poemak*, 2006).

Aitak behin eta berriro errepikatua zion: «Gu
baino lehenago izan den inor edo zerbait dauka-
gu beti. Ez ahaztu inoiz». Bere aurretik aldizkari
literario bat izan zen, zelan ahaztu. Aurretik ger-
tatutako guztiarekiko errespetua eta miresmena
iradokitzen zizkion aitaren esaldiak. Banitatear-
en kontrako txertoa. Eta hortxe ikusten zuen
Paganik -denboran eta espazioan baino areago-
obituarioaren beharra, bai eta biografiatik
gehien aldentzen zuen arrazoia ere. Beren
proiektu eta akzioen bidez hobeak izatera lagun-
tzen ziguten gizon-emakumez osatutako mundu
batean bizi ginen. Hori gogorarazten zigun obi-
tuarioak, Paganiren arabera, biografiaren elitis-
motik urrun. Obituarioak bigarren edo hirugarren
mailako jendearen merituak ere jasotzen zituen.

Sinetsita zegoen, noski, edozein pertsonak me-rezi zuela obituarioa. Bai eta nekronimoa ere.

1970eko maiatzaren 12an erredaktatu zuen lehen hil-oharra. 18 urte zituen eta Bartzelonako ikuskizunen saila atontzera dedikatzen zen. Johnny Hodges jazz saxofoi jotzailea hil zen aurreko egunean. Kulturako erredaktore nagusia bila zebilen, nork moldatu arratsaldeko lehen orduan erredakziora iritsi zen ingelesezko teletipoa. Ariel kalera bidean ikusi eta nota biografikoa egokitzeke gai izango zen galdetu zion. Arielek bistadizo arina bota zion ohar biografiko hotzari. Ez zekien nor zen John Cornelius *Johnny Hodges*. Oharrak honako hau zioen hasierako lefroetan: *American alto saxophonist, best known for his solo work with Duke Ellington's big band*. Ezagun zuen Duke Ellington, ordea. Musikaren Palaun jo zuen lau urte lehenago Ella Fitzgeraldekin batera.

Paganik, Jamboree jazz klubera sarri biltzen zen lagun bati deitu zion telefonoz. «Onena izan da, Charlie Parkerren baimenarekin. *Bird* da lehena, zer duda egin. Baina gero Hodges dator». Negar-zotin moduko batzuk egin ondoren Hod-

gesen lan-ibilbidean murgildu zen adiskidea. Ez zen denbora luzea joan Jamboree txikerrean Ornette Colemanek eta Tete Montoliuk elkarrekin jo zutenetik, eta bartzelonarrak klubeko eszenatokitik hitz eman zuen Hodgesek egunen batean Praça Reialeko lurpekoan joko zuela.

Honelaxe titulatu zuen Paganik obituarioa: *Johnny Hodges: saxo altua Jamboreerantz*. Larregizkoa iruditu zitzaion erredaktore nagusiarri. Ezin zuten horrela argitaratu. Beste bat, klasiko-agoa, proposatu zion Paganiri: *Argi propioz Duke Ellingtonen itzalpean*. Pagani, ostera, lagunak sortutako musika-geografian lubakitu zen. Hodges, inoren itzala izan bazen, bere itzalaren itzala izan zen. Obituarioa Paganiren tituluaz argitaratu zuten azkenean. Eta aurrerantzean, kontratu berri batez, heriotza-oharrak idazten jarri zuten Pagani.

ARIEL PAGANIREN BIZITZA

1972rako, gurasoak auto-istripu batean hil zitzaizkionean, bizidunen eta, segur aski, hilen

errespetua ere irabazia zuen Paganik. Obituarioak idazten hasi zenetik, igogailu baten moduan irudikatu zuen bizitza-heriotza bikotea. Gorakoa bizia. Beherakoan hila. Inork itzuri ezin ziezaiokeen igogailua, baina inork sekula ikusi gabea. Igo egiten ziren bizitzak, jaitsi obituariok.

Caronte gisa ikusten zituen obituariok. Paganik zen oboloa hildakoen mihi azpian jartzen zuena, txalupa-zainak ibaiaren beste aldeko hilerria eraman zitzan. Paganiren aburuz, txanpona ipintzeak joandakoen alde egitea sinbolizatzen zuen. Arreta eta mimo beraz erredaktatzen zuen Jaume Casademont enpresariaren obituaria eta Henri Cartier-Bresson argazkilaria; Antonio Gades dantzaria eta Rafael J. Salvia zinemazuzendaria; Ramona Komandantea eta Charles Richter sismologoarena; Joseph Llorens zeramika egilearena eta Adolfo Bioy Casares idazlearena; Enzo Ferrari auto fabrikatzailearena eta Luis Barragan arkitektoarena; Josep Barris maratoilariarena eta Jesus Maria Leizaola politikariarena; Antonio Bienvenida toreatzailearena eta Ramon Mercader agente sekretuarena.

Ez zuen inoiz inor hil aurretiko obituariorik prestatu egunkarietarako. Hil baino lehen atondutako heriotza-oharrari *fianbrera* esaten zioten argotean. Bere kide gehienek (Puig, Requena, Melero, Ferrin, Albiol), gaixotasun sendaezin batetik edo zaharraren zaharraz hil-usaina hedatzen zenean, fianbrerak idazten zituzten. Lantzean-lantzean gerta zitekeen haietako baten telefono-deia jasotzea: «Urlia eta Berendia nireak dira, Pagani. Ukitu ere ez, aditzen?».

Fianbrerarik idatzi ez arren, hil ez zen pertsona baten obituarioa argitaratu zuen behin. Paganiri gerta zekioken okerrena, bere kideen zorionerako. Jose Gorostiza poeta mexikarrari buruzko teletipo bat heldu zen erredakziora. Inork ez zuen hartaz arduratu nahi izan. Heriotza gora heriotza behera beti poeta hura, eta nahastu egin zen nonbait bidaltzailea. Hurrengo urtean hil zen Gorostiza, 1973ko martxoan.

ARIEL PAGANIREN OBITUARIOA

Heriotzari bizkar ematen dion gizarte batean, Paganari buru-belarri zebilen hildakoak duindu guran bizidunen artean. Hilak bizitu.

2007an, bere irakurle guztien eta kideen harri durarako, *El País* abandonatu zuen Paganik. Blog bat zabaldu zuen bere hiriko pertsonen obituarioez kargutzeko. Inor hiltzen zenean hiletara joan eta haren bizitzaz interesatzen zen. Senideei eta lagunei esaten zien: «Cecilia emakume bikaina izan zen, zinez» edo «Carles gizon bikaina izan zen, zinez». Ezagutzen ez bazituen ere, esateko beharra sentitzen zuen, guztiz sinetsita baitzegoen pertsona guztiek obituario bana zeramatela barnean. Hildakoaren merituak eta haren bizitzaren une gogoangarriak ekartzen zituen gogora hiletara bildutako laguntzarekin. Inoiz edo behin ezagunekin topo egiten zuen hiletetan. Zera esaten zioten: «Paganik, utzi behar didazu Rosita andrearen bizitza kontatzen. Ravaleko azken puta handienetako bat». Paganik hunkitu egin zen Rositaren obituarioa idaztean, harena Raval osoko obituarioa baitzen, eta Ravalekoa Bartzelonakoa, mundu zabaleko hiri handi guztietakoa azken batean, denak diseinuak,

garbi koloreak, zuzentasunak eta asperdurak pi-
piaturik.

El País utzi aurretik, Paganik salbuespena
egin eta fianbrera posible bakarra prestatzeari
ekin zion. Bere heriotza figuratuarena. Halako
bulkada berekoi bat, bere buruaren babeslea.
Edo, besterik gabe, irrikan zegoen erredaktatze-
ko. 726ko hitzekoa izan zen, 2007an sei hilabe-
tez ardura handiz idatzia. Azken 20 hitzak pren-
tsatik desagertu baino lehenagoko momentueta-
rako utzi zituen, kasik kirol finaletan, irabazlea
zein den jakin ostean, kopak grabatzen dituzten
bezalatsu. Ez zuen zalantza izpirik egiten hil-
iraultza, behin betiko matxinada nekrologikoa,
2.0ren eta 3.0ren -zer zen ez zekien artean- es-
kutik helduko zela.

ARIEL PAGANIREN HERIOTZA

726 hitzetan Paganik argi utzi zuen, aukera izan
balu, gustura akabatuko zukeela Brendan Behan
idazle irlandarra eta, jarraian, haren oharraz kar-
gutu. Behanek idatzia zuen ez zegoela norbera-

ren obituariaoa baino publizitate eskasagorik. Paganik ulertu egiten zion eta, areago, *Obituario Behanianoak* zeuzkan sortuak. Txalaparta argitaletxeak berak *Confesiones de un rebelde irlandés* liburuaren hitzaurrea idazteko eskaini zion. Paganik umorez erantzun zion editoreari: «Baina Behan hilda dago! Gehienez ere gibel-solas batekin ausartuko nintzateke».

Hil ondoren obituario-idazleak bisitatzera dedikatuko zela idatzi zuen fianbreran.

ARIEL PAGANI

1975era arte Pagani ez zen inoiz Bartzelonatik irten. Bidaiatu egiten zuen, asko, betiere bere obituarioetan barna. Jim Morrisonen Parisera eta Alejandra Pizarnikén Buenos Airesera eramaten zuten heriotza-oharrek; Salvador Allenderen, Pablo Nerudaren eta Victor Jararen (hirurak 1973ko irailean hilak) Santiagora eta Bruce Leeren Hong Kongera; Sevilla taldeko Pedro Berruezoren Pontevedrara eta Frank Costelloren New Yorkera. Egun korapilatsuetan ere, bi edo are

hiru obituario erredaktatu behar zituenean, bilokazioaren dohainaren jabe zela sumatzen zuen.

Azaroaren 13an, Francisco Francoren obituarioan pentsatzen hasteko deitu zioten. Egunkari-ko zuzendariak berak egin zion enkargua. 24 urte zituen Paganik. Ezin zuen goragokorik irudikatu. Hildako ilustreen heriotza-oharrak erreparatu zituen urduri. Egunkari eta aldizkari guztietan obituario bakarra agertuko zen, adostua, berak idatzia. Oker zebilen, ordea. Pardora ailegatu bezain laster, argi gutxiko gela batera gidatu zuten. Espainiako obituario-idazle entzute-tsuenak pilatzen ari ziren, astiro. Paganik legez, denek sentituko zuten Espainia bera zegoela hilturren, eta eurek erredaktatu behar zutela azken ohar nekrologikoa. Han ziren, besteak beste, *ABC*, *El Alcázar*, *Hola*, *Blanco y Negro*, *Pueblo*, *La Gaceta Ilustrada* eta *Actualidad Española*-ko maisuak.

Aste tamalgarria eman zuen talde-fianbrera negoziatzen. Madrilera eraman zuen autobusean pentsatu zuenaren oso bestela, zentsura ez zen Arias Navarroren Gobernutik etorri, bere kideen gristasunetik baino, hekatonbe nuklear batean

legez, Espainiaren heriotzara amiltzeko irrikatan. Gupidarik gabeko baltsamatsaileak ziren denak. Adjektibo bakoitza inposatzeko borrokatzen ziren, gaixoaren hil-atorraren txatal bat balitz bezala.

Azaroaren 20an, Caudilloaren heriotzaren egunean, munduan ez zen bestelako ilustrerik zendu, Madrilen elkartutako aditu beltzen talde hari aurka egitera inor ausartu ez balitz bezala, heriotzaren ordua atzeratuz eta berandutuz. *Pueblo* egunkarira bakarrik heldu zen, eta azken momentuan, Estatu Batuetako irrati- eta telebis-ta-gidoilari baten heriotzaren teletipoa. Frank Provo zuen izena.

Hurrengo egunean emakume bat ezagutu zuen Paganik. Francoren beilarako sortutako ilara amaiezinean zen. Parean zeukan andrazkoa. Ilarara batu zirenetik Francoren aitzinean pasa izan zirenera arte, isildu gabe egin zuten berba. Paganik sentitzen zuen gai zela guztia kontatzeko metro batzuk aurrerago zetzan gizonaz. Emakumeak, bere adin berekoa, zihoanari eta zetorrenari buruz hitz egiten zion. Ilara hura ekuatorea zen, zioen, alde mordoan banatzen

zuen. Paganik zazpi belarriz entzun zion. Zerral-
doaren paretik igarotzean otu zitzaion erredakta
zezakeela emakume haren fianbrerarik zehatze-
na eta literarioena, bere bizitza osoa ilara hartan
geldituko balitz bezala, eta heriotza-desio bat
izan zuen harekiko, aitorrezina bezain gaitzesga-
rria. Aldi berean, harekin bizitzeko gogo ezeza-
gun bat ere sentitu zuen. Hura ere aitorrezina
eta iragankorra. Azken batean, irakurleentzat
bizi nahiago zuen. Bizitzaz beteriko heriotzak
eraman, biziarazi herioren bidez.

ARIEL URKIZARI BURUZKO OHAR LABURRA

Web-obituarioren idazlea. Bere lan-ibilbidean he-
riotza-oharrak gizarte-sareetan zabaltzeagatik
nabarmendua.

ARIEL URKIZAREN NEKRONIMOA

Nekronimo bat norberaren gurasoenganako bi-
daia da.

Urkizak lepoa jokatuko zukeen bere izena nekronimoa zela. Zer edo zerk baieztatzen zion buru-bihotzean. Aierua baino gehiago, zimikoa. Baina norena? Nori galdetu ahal zion? Nekronimoak esan gura zuen bere gurasoek Ariel izena jarri ziotela inoren omenez. Beti pentsatu zuen egin zutela juduak zirelako. Judu askoren artean nekronimoak erabiltzea aski zabaldua zegoen. Baina juduak zirenik ere ez zekien. Urkizak ez zuen aita ezagutzen eta ez zion amari garaiz galdetu, hamar urte zituela hil baitzen. Ez zuen izen bereko jende ugari ezagutzen eta, gainera, gehienak bizirik zeuden. Ariel Sharon egiten zitzaion hurbilen, ustezko judaismoagatik noski. Ariel Dorfman idazle txiletarra ere oso gertukoa zitzaion, arrazoia oso besterik izaki. Dorfmanek Asel Luzarraga idazlearen alde egin zuen bere zigor-prozesu tamalgarrian. Valentzian jokatu zuen Ariel *Burrito* Ortega futbolari argentinarra umetatik ezagutzen zuen, bai eta ere Ariel Ramirez musikari -argentinarra hura ere- hil berria. Emakumeen artean, bazekien nor zen Ariel Durant idazle amerikarra, Pulitzer sariaren irabazlea, hala nola Ariel X porno-izarra eta Ariel Rebel

(*A Riel Rebel*) pornografia biguneko online modelo quebectar famatua.

Behin baino gehiagotan hausnartua zen aita biologikoa bilatzeko aukeraz. Baina inoiz ez nekronimoarena azaltzekoaz. Eta bazekien, ondo jakin ere, haren xerka abiatzeko posibilitate bakarra izenari argi ematetik pasatzen zela. Zor zion. Eskola-garaia ez zitzaion samurra gertatu. Gelakideek -are gehiago goragoko kurtsoetakoek- behin eta berriro gogorarazten zioten detergente baten lez deitzen zela. Multinazionalak egiten zituen iragarkiek ere ez zuten ezertan laguntzen. Mutilentzat neska-izena zuen eta neskentzat mutil-izena. Umezaroan, ama hil zen arte, ez zen egunik joan bere izenaz nazkatu gabe. Baina sekula ez zion deus leporatu. Bere baitarako gorde zuen tragedia. Nerabezaroan, kasualitatez, Ariel Roten berri izan zuen. 2005. urtea zen, 16 urte zituen eta berandu deskubritu zuen Ariel Rot, Tequila ohia eta Los Rodriguez ohia. Edade hartan Ariel deitzea oso besterik zen. Udaberri usaineko izena zen, freskoa. Generorik gabeko izena ere bazen. Ez zen ez mutil ez neska sentitzen. Batzuetan mutil. Neska beste

batzuetan. Izenaren inguruan garatzen ari zen sexualitatea. Eta kitzikagarria zen.

HIL-OHARRETARA BIDAIA

Aita. Bizirik zegoen ere ez zekien. Gehien-gehienetan hil bizidun baten gisa ikusten zuen, bere habitatetik desagertzeko zorian dagoen espezie bat bailitzan. Inoiz edo behin ere, Indonesiako ohian ilunetan bizi denaren moduan, zain giza-jendeak noiz deskubrituko. Egun batean, ustekabean, Urkizak aitaren desagerpenari buruz idatzi zuen. Gaztaroan idatzitzako gazte baten oharra zen: *Aitaren heriotza errealari buruzko fikziozko glosa*. Hurrengo egunak beste bat ekarri zuen, lehenaz damutu eta berehalako erantzuna beharko balu bezala: *Aitaren fikziozko heriotzari buruzko egiazko exegesia*. Hortik aurrera ohar gehiago etorri ziren tantaka, nekronimoa ipini zion gizonari buruzkoak denak. Ez egoteko posibilitateen gaineko egunkaria zabaldu zuen kaier batean. Ez egotea bazuen. Hain zuzen ere, huraxe zen ordura arte ezagutu zuen bakarra. Une

hartan, ordea, ez egoteko posibilitatea interesatzen zitzaion. Abandonuak, desagerpenak, ihesak, heriotzak, kanporaketak, botatzeak, deportazioak, erbesteratzeak, akabatzeak, kalitzeak, ezkutitzeak, iluntzeak, ebaneszentziak, lurruntzeak, hiltzeak, reabsorzioak, erradikatzeak, atzera egiteak, uko egiteak, desertzioak.

Lan-ibilbideko lehen oharra goianbego.com web gunean -egun itxita- argitaratu zuen 2008ko apirilaren 5ean. Aitari buruzko oharrak idazteak bilaketa bat baldin bazekarren, beste batzuei buruz idazteak beste bilaketa batzuk ere ekarriko zituen eta, batek daki, agian gizajendearen beraren bilaketa ere bai. Ez zioten ezer askorik ordaintzen, baina musu-truk ere idatziko zituzkeen. Lehena notario batena izan zen. Egun bat lehenago asasinatu zuten Gran Via kaleko bulegoan. Ignacio Egileor notarioak uko egin omen zion kaxafuerteira irekitzeari. Lapurrek tiro bi desarratu zizkioten garondoan. Urkizari iruditu zitzaion obituarioa bigarren planoan geratuko zela. Albisteak zeharo jango zuen.

«Berriaren eta obituarioaren etengabeko tentsioa da», komunikatu zion web guneko ardura-

dunak mezu elektronikoko batez. «Gertakarietatik urrundu beharrean zaude. Beti. Haietan dago eta albistea. Baina haietan bakarrik. Albistea mugatua da oso. Zuk, ordea, hildakoaren bizitza osoa duzu».

Irakaspen ederra iruditu zitzaion Urkizari. Eta zera ipini zion lehen ohar publiko hari: «*Ignacio Egileor: bizitzaren notarioa*».

ARIEL URKIZAREN BIZITZA

Ignacio Egileor hil ondorengo egunean, Charlton Heston aktore amerikarra hil zen. Urkizak ez zeukan artean erabat prozesaturik hil-oharrak erre-daktatzen ari zela web gune batean. Aurreko egunean beste notario batzuekin hitz egin zuen. Egileor ondo ezagutzen zuen jendea. Abokatu biren ere bai. Obituario-idazleak bizitzaren notarioak zirela konturatu zen, pertsona baten merituak zertifikatzen zituzten neurrian. Legitimatuz zeuden, beste inor ez bezala, pertsona baten bizitza jakitera emateko, are gehiago publikoa eta pribatua bereiztea gero eta zailagoa zen gi-

zarte eta sasoi batean. Eta, jakina, sinadura ez zen eszenifikazio hutsa. Idazlearen notario-ekin-tzari ematen zion balioa. Han-hemen gero eta sinatu gabeko albiste gehiago irakur zitezkeen -agentziakoak batzuk, kazetarietak besteak-, baina ez zegoen sinadurarik gabeko obituariorik.

Judua susmoz, Urkiza ez zen erlijiozalea. Ez oso, bederen. Heriotzara gerturatzeak lasai eta aurreiritzirik gabe harremanetan jartzen zuen erlijioekin. Baina ez zuen ezereen alde egiten. Katolikoek heriotza -eta hilezkortasuna- salmoz, otoi-tzaz eta makurtzez betetzen zuten modu be-rean, obituariotz betetzen zituen hark bere bizi-tza eta besteena. Bat zetorren idazle gehienekin sinestean heriotzak etorkizunez beteriko bizitzak zirela. Bizitza behar bezala ezagutu ahal izateko heriotzan sakondu beharra zegoen, neurri ba-tean gorputegian nekropsia egiten duen nekrolo-goaren antzo, gorpuak behin eta berriz eskain-tzen dituen seinaleak interpretatuz, bizitza he-riotzan soilik baitago.

Urkizak gero eta meheagoa ikusten zuen fik-zioaren eta errealaren arteko marra. Poliki-poliki bere hil-geografiak fikziotik ateratako errealitate

bihurtzen joan ziren. Ez denak, jakina. Asko, edozein kasutan. Lehena 2008ko abuztuaren 2an. Fujio Akatsuka manga-marrazkilari japoniarra hila zen. Urkizak, Interneten aurkitutako datuez, obituario sano literarioa sortu zuen. Gaztelerazko Wikipedian ia ez zegoen erreferentziarik. Ingelesezkora jo zuen. Akatsuka, 1935ean jaioa, polizia-ofizial baten semea zen. Gerra ostean industria kimikoko faktoria batean hasi zen beharrez. Tabakozale eta edale amorratua. Urkizak konprenitu zuen Japoniako mangako Bukowski-Behan, Thomas eta Larrearekin batera inoiz agertu behar zitzaion hura-bat zela. Oharkabean, baina, hamaika puska egin zuen testua. Baita berridatzi ere. Obituario berrira, Zero hegazkinak buru gaintetik iragaten zitzaizkion bitartean komikiak idazten zituen gazte baten istorio bikaina ekarri zuen.

Biharamunean, 3an, ikusezintasunaren idazle handia hil zen, Aleksandr Solzhenitsyn. Zeharo txunditurik, Urkizak ez zuen bereizterik izan bere obituarioa hildakoaren bizitza ikaragarriaren fikziozko errealitateari ala egiazko fikzioari zegokion.

2009ko otsailaren 18an, Ariel Paganiren mezu elektroniko bat jaso zuen Urkizak. Paganik obituariok 1.0tik urruntzera animatzen zuen eta, «gorputz eta arima», ohar nekrologikoak 2.0ri ekitera.

ARIEL URKIZAREN OBITUARIOA

Paganiren bizitzan, obran eta heriotza figuratuan murgildu zen Urkiza sukar ero batek eroanda legez, urte batzuk lehenago Paganik berak Sylvia Plath agonikoarenean egin zuen moduan. Hain zebilen emana ezen Paganiren biografo bihurtzeko arrisku larrian suertatu zen.

Diakroniaren tentazioari ihes egitearren, Urkizak bidaiatzea erabaki zuen, bere nekronimoaren jatorriaren bila zihoala simulatuz. Ordurako *Gogoan Zaitugu* izeneko bloga zeukan. Hainbat hilabetetan Ertamerikan barna ibili zen. Segizioen esperoan gelditzen zen kanposantuetako ate nagusietan. Lur-ematea amaitzen zutenean zendutakoari buruz galdetzen zien bertaratutakoei. Chichicastenangoko hilerri koloreanitzean luzaro

geratzea ere aztertu zuen. Gizon-emakume xumeen ohar nekrologikoak erredaktatzen zituen, itxura batean aparteko bizitzarik ez zutenenak.

Aldi berean, eta Interneti esker, Ted Hughes poeta loriatzen ere hasi zen. Luzaro mesprexta-tua, miretsia bezain. Haren lehen emazteak, Sylvia Plathek, bere burua hil zuen 30 urte zituela. Geroago ere, beste horrenbeste egin zuten haren bigarren emazteak eta bien alabak. Eta Plathen eta bien semeak ere, depresioak jota, bere buruaz beste egin zuen Hughes hil eta urtebetera. Urkizari, abandonaturik bizi eta hiltzearen artista iruditu zitzaion poeta, ispilu ezin fide-lagoa.

2010eko uztailaren 15ean, amaitu gabeko obituarioa idazten hasi da Urkiza, lehen fianbre-ra. 726 hitzeko obituario itxia da, ez bat gehiago ez bat gutxiago, Paganiren estiloan. Ez dio bel-durrik heriotzari, erreala zein figuratua izan baina, notarioa denez gero, ondo baino hobeto daki hobe dela dena ondo lotuta uztea.

ARIEL URKIZAREN HERIOTZA

Egiazko bizitzak

FONETIKA ESPERIMENTALAREN EKARPENA GEOPOLITIKARI

Daniela Contrerasen semeen arrasto bila etorri naiz Patagoniaraino. Begi aurrean dauzkat azkenean Puerto Edeneko etxeetako teilatu kolore anitzak. Badia honetako zerua sabai gris hutsa da, arrakala urdinik gabea. Euria ari du goian-behean, etorri aurretik ohartarazi ninduten. Euri hotza da, zurrustaka labaintzen zait aurpegian behera. Tamalez, oraindik ezin gara lehorreratu. Kapitainaren aginduaren zain, kubiarta abandonatu dut.

Bistadizoa bota diot *Newsweek* astekariari. William Marullo soziologoaren artikulua dakar. Argitaratu berri duen ikerketaren arabera *-Sounds of Power: Theoretical, Empirical and Methodological Discussions*, in *Sociological Research* aldizkaria, Georgetown Unibertsitatea 2010-, Osama izenak eragina izan zuen amerikar mordoarengan azken bozetan. Lanak ez du

ulertarazi nahi boto-emateak Osamaren eta Obamaren arteko hurbiltasun fonetikoagatik egin zutenik hautagai demokrataren alde, baina uste baino garrantzi handiagoa izan ei zuen munduko gizon boteretsuena aukeratzekoan.

Marullok linguisten, logopeden eta bozaren terapeuten laguntza jaso du. Espektografo, nasometro, glotografo, palatografo eta inoiz entzun ez ditudan hamaika tramankulu erabili dituzte adituek. Hala ere, psikologo sozialen ekarpenak hobetsi ditu Marullok lotura ezartzeko. Lotura, neurgarria dela dio. Ez dakit zer pentsatu.

Aldizkari honetan bertan oraindik orain agertutako beste artikulu bat etorri zait gogora. Obamari buruz idatzitako biografien gainekoa zen. Iaz, presidente hautatu berri, hamaika biografia kaleratu zituzten hartaz. Osama Bin Ladenek ere batzuk argitaratu dira. Neure artean galdetzen dut zeintzuk diren sinesgarriagoak, ezkutuan bizi den gizonarenak edo munduko pertsona agerikoarenak.

Obamari buruz kaleratutako guztiak irakurriko bagenitu, hamaika puskatan hautsiko litzai-guke ispilua. Autoreak oihuka aritzen dira mer-

katu txiki bateko saltzaileak balira bezala: *Erosi nire biografia, bertan benetako presidentea topatuko duzu-eta!* Zein baino zein egia aldarri. Film hartako eszena gogoangarrian bezala: *Neu naiz Espartako! Neu naiz Espartako!* Ondo akorduan dut. Erromatarrek matxinoak menderatu dituzte. Espartako buruzagia nor den jakin nahi dute. Baina inork ez du salatzen eta garrasi latz horretan lehertzen dira kideak, banan-banan zutuntzen: *Neu naiz Espartako!*

Utikan Espartako eta Obama! Euria ez du atertuko Puerto Edenen, ez da gertagarria. Domingo Montero artistak ekarri nau hona, Daniela Contrerasen bigarren semeak. *Ez naizena naiz* leloaren asmatzailea. Eta Andy Warholen laguna.

DOMINGO MONTEROREN BIZITZA EGIAZKOA

Domingo Montero New Yorken sortu zen Txilen jendea desagertzen den modu berean. Ezkutatu ere hala ezkutatu zen, 1977ko urriaren 23an, Marc Bolan glam rock mugimenduaren aitzinda-

ria hil eta aste batzuetara. Ez da debaldeko detailea. Harrigarria iruditzen zait orain arte inork denbora hurbiltasun hori nabarmendu ez izana. Domingo Monterok eta Marc Bolanek elkar eza-gutu behar zuten ezinbestez. Eta aipu honekin ez dut glamekiko harreman hertsirik ezarri nahi. Monterok panterazko eta lehoinabarrezko prakak janzten zituen; lumazko beroki luzeak zermatzan; ileorde kolore anitzak, bisoizko lepalarruak, makillaje eta purpurina tonak, baina ez zegoen *sensu stricto* lotuta glam mugimenduari. Lehenik eta behin, ez dakit noiz eduki zuen mugimenduaren berri, edo sekula bere buruari galdetu zion haren parte ote zen. Wikipedian, behinik behin, ez dugu haren izena ikusiko glamen barruan.

Domingo Montero 1968ko abuztuan jaio zen Manhattango pisu batean. Sei hilabete lehenago heldua zen Santiagotik. Festa batean zebilen Union Squareko 33an. Gehienak bera bezalako artistak ziren. Andy Warhol izan ezik, ez zuen inor ezagutzen. Jendea berriketan ari zen taldeka. Warholek, lagun txiletar berriari begira, aita-tu zuen artista batek ezin zuela bere benetako

izena agertu -harena Andrew Warhola zen, eta haren aitarena Andrej Varchola-. Txiletar gaztea, ordea, ez zegoen prest bere aitaren izena eraldatzeko, koadro figuratiboa abstraktu bihurtzen den prozesu artistikoa balitz bezala. Ez zen arrazoi bakarra. Aitari gorroto itzela zion. Izen-deiturak aldatu behar bazituen, hari keinurik egin gabe izango zen. Zeharo aldatuko zuen. Bestalde, umiliagarri zeritzon bere izena ingeleseratzeari.

Warholek galdetu zionean «zein da zure izen artistikoa?», «Domingo Montero» erantzun zuen begirik kliskatu gabe. «Domingo, gaur *domingo* delako eta Montero, boxeolari famatuaren omenez». Denek txalotu zuten erabakia. Alkoholez blaitu zuten jaioberria Domingo izena lardaskatzen zuten bitartean. Bost minuturen buruan Monty deitzen ari zitzaizkion guztiak -ez da harritzekoa han-hemen topatzea, Domingo Monteroekin batera, Monty edo Monty Montero-. Eta hortik aurrera inork gutxik jakin zuen zeintzuk ziren haren aurreko izen-abizenak.

Domingo Monteroren biografiarik ez da inon argitaratu. Sarean eta liburuetan, berriz, infor-

mazio ugari dago. Pertsona ezaguna da. Baita zeharo ezaguna ere aldi berean. Nahiz eta artista bikaina izan ez, *I am What I am Not* -euskaraz ez dut ordainik ezagutzen- mugimendua sortu zuen. IWI mugimendua. Hirian topatutako materialak erabiltzen zituen bere artelanak erakitzeke. Eragin handia izan zuen *Green Guerrillas* taldean.

Abuztu hartako egun batez Brooklyngo zubi ondoan paratu zen lauzaz osaturiko artelan bat sortzeko. Domingo Monterok -artean ez zen Domingo Montero- praka bakero maiztuak eta mahukarik gabeko tixerta berde kirolfanoa zermatzen soinean. Tixertan *I am What I am Not* irakur zitekeen. Bata bestearen atzean jarri zituen lauzak -«ibaia zeharkatzen duen bizitzaren ibaia»-.

Kasualitate bategatik Warhol handik igaro zen adiskide batekin -adiskidea Lou Reed zen baina Monterok ez zuen ezagutu-. «Etorri nahi duk festa batera?», galdetu zion Warholek. Une hartan, segundo baten hamarrekotan, baiezkoa eman baino lehen, pentsamendu bi etorri zitzaizkion burura Monterori: batetik, ezagutzen zuela

bi hilabete lehenago Warholi tiro egin zion emakumea -Valerie Solanas, hura ere kasualitatez ezagutu zuen Txiletik heldu eta gutxira-; bestetik, New Yorkera bidaiatu zuela *Campbell* zopa eta *Coca-Cola* latak margotzen zituen artistaren arrastoaren atzetik. Pentsamenduok, baina, ez ziren zehatzak. Warholen erasotzailea erakusketan batean ezagutu arren, ez zuen harekin hitz egiteko aukerarik izan -Warholi sei tiro desarratu izan ez balizkio ez zatekeen inoiz gogoratuko-. Besteko, zerbaiten bila barik, zerbaiti ihesi ailegatu zen New Yorkera.

Gauean Montero Faktorian zegoen aita pontearen alboan. Ez zuen luze jo haren performanceak oso ezagunak bilakatu arte. IWI mugimendu txipia sortu zuen, beti ere Faktoriaren itzalean. Eta haren esanahiaz hitzik esan ez bazuen ere, hamaika orri idatzi dira.

1977ko urriaren 23an, bederatzi urte geroago, Txilen jendea desagertzen den moduan desagertu zen Domingo Montero. Ezagutzen zutenak egun batzuk geroago konturatu ziren. Inork ez zuen gogoratzen ezer berezirik aipatu zuenik edo gertatu zitzaionik. Ondoriozta zitekeen,

beraz, Domingo Monterok ez zuela ezkutatzea erabaki.

Lagunek hilketa eta bahiketa hobetsi zituzten. Poliziak, aldiz, hipotesi guztiak hartu zituen aintzat -arreta gutxi eskaini bide zion kasuari-, eta iradoki zuen Santiagotik etorri bezala alde egin zuela New Yorketik. Polizia-tesi nagusiaren kontra detaile nabarmen bik jokatzeko zuten ordea: batetik, Monterok azken hilabeteetan ez zuen ezohiko joan-etorririk egin bere bankura. Hura desagertu aurretik zegoen tokian segitzen zuten diruak. Bestetik, haren artelan batzuk saldu gabe zeuden. Prentsako arte-adituek, azkenik, *I am What I am Not* ideia-multzoa seinalatu zuten. Hilabete batzuetan artista kasik mito bihurtu zen. Urteek, baina, zegokion lekura itzularazi zuten. Aski Wikipedian toki propioa izateko gaur-gaurkoz bederatzi hizkuntzatan eta Warhole-nean esteka agertzeko.

ERRUSIAR MENDIA

Domingo Montero izateari utzi baino lehen, artistak era grafiko batean irudikatu zuen bere burua. Zero baten moduan zekusan -baliteke, Osama eta Obama legez, Monteroren eta zero-ren antzekotasun fonetikoak eragina izatea, ez baitzen alferrik gazteleraduna-. Ezkerrean, zenbaki negatiboak lez, sortzetiko izen-deiturak zeuden. Eskuinean, berriz, hartu behar zituenak, positiboak. Positibotasuna laudatzetik harago, zenbaki guztien benetakotasuna nabarmendu zuen.

Une hartan Monterok ez zuen aurkikuntza hura gozatzerik izan. Urduri zebilen, izen-deitura berriek zer ekarriko. Hautsi beharrean zegoen. Gainera, hutsik egin gabe haustera derrigortuta zegoen dena ondo aterako bazitzaion. Beraz, une hartan arreta gutxi eskaini ahal zien zenbaki negatiboek. Geroago -askoz ere geroago- hasi zen nabaritzen haien presentzia, bai eta konprobatu zeroaren inguruan batzuek eta besteek osatzen zuten simetria ederra. Haren urterik zorionsuenak izan ziren.

Nik neuk zalantzak izan ditut norantza auke-ratzeko orduan. Zeretik abiatuta batera zein bes-

tera jo nezakeen. Alde negatibora joanez gero, Monteroren umezarora eta nerabezarora bueltatuko nintzatekeen. Alde positibora bihurtuz gero, Montero ezkutatu osteko urteetara. Zirt edo zart egitera kondenaturik, aurrera segitzea erabaki dut. Domingo Montero artista newyorktar ezaguna Juan Vidal herritar txiletar ezezaguna bihurtzen den momentura, hain zuzen ere.

Izen artistikoa erabiltzeari utzi aurretik, Monterok aste batzuk eman zituen hiru izen-abizen diferenterekin: batetik, pasaportean M.B. ageritzen -Txilen 1946an sortu zeneko izen-deituren laburdurak-; bestetik, Domingo Montero segitzen zuen izaten jende guztiarentzat; eta, azkenik, Juan Vidal ere bazen. Baina azkena hark eta pasaporte faltsua egin zion pertsonak soilik zekiten.

1977ko egun haietan Monterok buruhauste franko ibili zituen. Zelan bihurtu Juan Vidal.

9 urte lehenago kasualitatez eta mozkorturik sartu zen Domingo Monteroren azalean. Bataiatu egin zuten, eta inork baldin bazekizkien aurreko izen-abizenak, berehala ahaztu zituen.

Juan Vidal bilakatzea, ordea, ez zen hain sinplea. Pasaporte faltsua eskuratzea izan zen errazena. Baina dokumentu hark ez zuen frogatzen Domingo Montero ez zenik. Arte-aditu baten eskuetara iritsi izan balitz, artelan gisa hartuko zutekeen eta Vidalen bizitza zeharo zapuzturik gertuko zatekeen betiko. Nolanahi den ere, pasaporte bi eta nortasun bakarra zituen. Bestalde, M.B. txiletarrarekin ere apurtu behar zuen. Hori ezin zuen Juan Vidalek egin. Monterok berak kargutu behar zuen. Eta azkenik: nora joan eta nola.

Urriaren 23an, ilea rapa-rapa eginda moztu, traje zahar bat jantzi eta, autobus geltokian, Mexikorako bide luzea hartu zuen. Hilabete batzuk geroago, DFn atsedena hartu ostean, Espainiara-ko bidaia egin zuen hegazkinez. Diru gutxi zeroan aldean.

Juan Vidalen bizitzak etapa bi ditu. Lehendabizikoa Madrilen 1987ra arte, orduko *movidatik* zeharo aldendurik. Montero gomuta hutsa bilakatu da. Aldian behin Warholen gaineko komentarioren bat irakurriko du egunkari bateko artikuluan edo zerbait ikusi telebistako dokumental batean. Hori da dena. Madrilen Domingo Monte-

ro artista ez da existitzen. Ez da gauza bera gertatzen New Yorken. Han ez da Monteroren bizitza amatatu. Beste batzuek manipulatzeko dute lema orain. Lehengo lagunek, ezagunek, arteadituek artezten dute harena New Yorken, fideikomisarioak lez, herentzia bat *-I am What I am Not-* kudeatzen. Beraz, bizitza bi ditu: Domingo Monterorena eta Juan Vidalea. Zein da benetakoagoa, ordea? Biak. Eta bada besterik: Domingo Monteroren bizitza fikzio batean eraikita zegoen -benetako izena M.B. baitzen-; Juan Vidalea, berriz, gezur batetik abiatu da.

Elementu bik dakarte Juan Vidalen bigarren etapa: lehenik eta behin, leku-aldatze fisikoa. 1987an Madril abandonatu eta Nafarroako herri txiki batera joan da Vidal. Guztira sei urte eman ditu Oderitzen, gure aita hiltzen den unera arte hain juxtu. Bigarrenik, geroago, Internet. Sarearen etorrerak Domingo Montero itzuliko dio.

Oderitzera kasualitatez ailegatu da. Gure arrebaren adiskidea da Vidal. Arrebak lagunartean komentatu duenean gure zaharrak egun osoko laguntza profesionala behar duela, Vidali

argi bat piztu zaio buruan. Zer daki gure herriaz? Alde menditsu batean dagoela, inguruan baso oparoak daudela, berrogeita hamar biztanle baino gutxiago dituela eta zinez ederra dela -argazki batean egiaztatu du-. Benetan eder deritzo. Beste guztia irudimenari utzi dio. Ez bat ez bi arrebari esan dio halako herri batean denboraldi batez bizitzea gustatuko litzaiokeela. Handik egun batzuetara Vidal gure baserrian da, egun osoz aitari laguntzeko. Ni neu Bilbora ez-konduta nago eta sarri joaten banaiz ere -Vidal dagoenetik sarriago-, ezin dut zaharra artatu.

Hasiera batean Vidal uste baino Vidalago sentitzen da. Atzean utzi du Montero eta are atzerago M.B., hots, Mauricio Briones, Bastian Brionesen eta Daniela Contrerasen seme txiletarra, Puerto Edenen jaioa. Lipar batez otu zaio hura berreskuratzea, baina baita ere berehala ohartu haren arriskuaz. Inork jakingo balu Mauricio Brionesen atzean Domingo Montero dagoela, Montero bihurtuko litzateke berriro eta haren bizitzaren lema astuna mugiarazi beharko luke. Gainera, zertarako atera jaioterriko lur bigunetik Mauricio Briones? Hobe da inork ezagutzen ez

duen Juan Vidal, txiletarra hura ere, etorkina hura ere, etorkinen legeekin etorria.

Juan Vidalek, bada, atzean utzi zituen Domingo Montero eta Mauricio Briones. Hala izan zen hasieran behinik behin. Bigarren urtean, baina, Juan Vidalek beste nortasun bat garatu zuen Oderitzen: Ariel Contreras. Eta Ariel Contrerasi poliki Mauricio Briones agertzen hasi zitzaion. Contrerasek -amaren abizena, bistan da- ulertu zuen Oderitz zela modurik egokiena Montero behin betiko hondoratzeko -Interneten etorrerarekin ikusiko zuen erraturik zebilela- eta Mauricio Brionesengana bueltatzeko. Aldeak alde, Puerto Edeneko ezaugarri ugari aurkitu zituen Oderitzen. Baso lokaztuetan barreneko ibilaldiek, neguko elurrak eta iluntzeko hotzak umezarora eramaten zuten.

Hau guztiau -baita Monterorena eta Vidalena- ez dakit gure aitak kontatuta, hark ez baitzidakeen deus esango inoiz. Zaharra lurperatu osteko arratsaldean, ahulezia une barkaezin batean alkoholaren eta penaren eraginez, bere identitate guztiak aletu zizkidan Vidalek -edo Contrerasek, ez dakit zelan deitu-. Bata bestea-

ren atzetik, karabana bateko esklaboak bezala, hala azaldu zitzaizkidan hurrenez hurren Mauricio Briones, Domingo Montero, Juan Vidal eta Ariel Contreras. Hurrengo egunean, deus iragarri gabe, jendea Txilen desagertzen den moduan desagertu zen betiko nire bizitzatik.

PUERTO EDENEO FARO BUSTIA

Mauricio Brionesen bizitzako egun bat ekarri zuen akordura Ariel Contrerasek. Arratsean gurasoekin, soldaduekin eta berauen familiekin bildu zen Puerto Edeneko barrakoi handi batera. Sarri egiten zuten, ordu mortuak pasatzearren. Herria Txileko Armadak sortu zuen 1937an, Puerto Montt eta Punta Arenas lotu behar zituen ur-hegazkinetako airebide esperimental bateko geraleku gisa. Lurralde Antartikoan, munduko toki euritsuena zen. Itsasoz eta airez bakarrik hel zitekeen hara.

Ez zegoen giro barrakoian. Munduko ipurtzu-loan beste bina urte jarraitzeko agindua jaso berri zuten soldaduek. Halako batean Ariel Piza-

rrero pilotu zibilaz hasi ziren kalakan, erdeinuz. Begitan hartua zuten aspalditik. Bastian Brionesek gorroto zion. Soldaduetako batek Bastiani kontatu zion semea ikusi zuela goizean Pizarroekin tantai ustelak eta zuhaitz-adarrak pilatzen faro ondoko harrietan. «Kaguenlaestepa!», oihu egin zuen Bastianek, «Mauricio, etorri hona!». Eta besterik erantsi gabe, zaplaztekoa jo zion semeari. Bastian mozkorturik zegoen, beste guztiak bezala. «Semea eta biak», jarraitu zuen soldaduak, «harri banatan eseri dituk, eta luze eman ditek horrela, orduak, egurrei beha». Gau horretan bertan pilotuarenera joateko aukeraz berba egiten hasi zen Bastian.

Mauriciok oso bestela oroitzen zuen hondartzakoa. Egunsentian, teilatu iragazgaitz zulatuaren kontra lehertzean euri-tantoek ateratako hots konpasatuek itzarri zuten. Bota ahalean ari zuen. Leihotik begiratu zuen. Eguna hits zeterren. Urrunean, lurrin trinko bat zabaltzen zen basotik itsasorantz. Eguerdira arte ez zen irten. Euria eskasten hasia zen ordurako. Pizarro pilotuaren etxerainoko berrehun metro heze eta lokatuak egin zituen, haizearen laztan umelak be-

kokia blaitzen ziola. Atea jo zuen. Inork ez zuen erantzun. Etxeko atzealdera joan zen leiho txiki batetik barrura begiratzeko. Pizarro ez omen zen etxean. Edonon izan zitekeen. Bere bidaietako batean ez zebilenean, hara eta hona ibiltzen zen, herritik kanpo beti ere. Basora sartzen zen edozein mater

ial erabilgarriren bila, erreketako ur-lasterrei eta harriei erreparatzen zien edo kostaldeko harritza amaigabeen barrena promenatzen zen.

Mauricio mela-mela eginda zegoen Pizarro faro ondoan ikusi zuenean. Harrieta hutsa zen hondartza. Arrazoi bat edo beste, enbor eta adar ugari ere biltzen ziren hara, itsasaldiak eroanda. Beharrean aurkitu zuen pilotua. Baltsa moduko bat osatzen ari zen. Marearako zela kontatu zion Pizarrok.

«Marearako?», harritu zen Mauricio, «itsasgorak desegin egingo du. Egurrak elkarri lotzeko sokarik ere ez duzu ipini».

«Hik uste baino gehiago eutsiko ziotek enborrek», erantzun zion gizonak. «Propio jarri ditiat. Itsasoaren mugimendu leunak eta geldiezi-

nak ez ditik aise elkarrengandik urrunaraziko.
Egurrek kontra egingo ziotek».